



2012-01-09
ASTELEHENA
348. ZENBAKIA
8. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Gazteak xaxatu nahi ditugu, nahi duten esparruan lan egin dezaten"



ARANTZAZU EZKIBEL

Jon Etxeberria eta Maite Otxoa | Herrigintza gazteko kideak | 7

Laguntzaz beteriko brisa freskoa
Kolonbiako Las Brisas auzora | 11



Garraio publikoa sustatzeko
herribus berriak Bergaran | 16



Aretxabaletako kiroldegia zabaldu
artean, ondokoak erabilgarri | 19



Aretxabaleta aurrera, Mondra lurrera

Aretxabaletak 0-2 irabazi zion atzo Mondrari, ibarreko klasikoan; hala, Oxel Apraitzek eta Beñat Etxabek egin zituzten golak. Garaipen horrekin Juanan Cruzen mutilak bosgarren postuan ekingo diote urteari; Iban Rodriguezen taldeak, berriz, bigarren itzuli aparta egin beharko du kategoriari eusteko; azkenak dira sailkapenean. | 22

Mondrako jokalaria Xabi Pavon lurrean, Aretxabaletako eta Arrasateko jokalariez inguratuta. | JOSETXO ARANTZABAL

Gas naturalak eta bidesarien prezioek gora urte berriaz

Orokorrean prezioek gora egin dute urtarrilean | 6



AP-1, %3,2 garestiago. | GOIENA

Abenduan 3.046 langabe; iaz baino 120 gehiago

Debagoieneko langabezia tasa %9,8koa da | 6

Mankomunitateak inoizko aurrekontu handienak onartu ditu 2012rako

Mankomunitateak inoizko aurrekontu handiena izango du 2012an, hain zuzen, 14.076.522 euro. Aho batez onartu dute aurrekontu hori eta iazkoa baino %65 altuagoa da. Ezohiko zenbatekoak dira, zabor bilketako kontratu berria dela-eta garatutako aurrekontuak direlako. | 4

Arrasaten zentralizatu dute larrialdi farmazia zerbitzua | 6

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22
JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

dks'11
debagoieneko
IV. kirolsariak

Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 20 ostirala
Elgetako Espaloian | 19:00

egin zure proposamena!

www.kirolsariak.com

Debagoieneko nork merezi du herritarren saria?

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

AUTOA ETA ETXEA PUNTU-PUNTUAN

RENAULT AUTOBERRI

AVIA

iKER
SUKALDEAK

Txartela, beti aldean

► Zoaz 21. orrialdera

366 eguneko urte berri on!

- ▶ Lau urtean behin gertatzen den moduan, bisurtea da 2012a
- ▶ Bisurteetan salbuespenak badira ordea, nahiz askok ez ezagutuko
- ▶ 2100a da arau orokorra hautsiko duen hurrengo urtea

JULEN IRIONDO | ARRASATE

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8 egun ere jan dizkiogu dagoeneko 2012ari, baina, tira, aurtengoak bat gehiago ere badu eta! Lautik behin urteak 365 egun beharrean 366 izatearen arrazoia da egun bat gehitzen zaiola, lurra eguzkiarekiko orbita osatzeko ez dituelako 365 egun zehatz -8.760 ordu, alegia- behar, baizik eta 8.765 ordu pasa -365 egun, 5 ordu, 48 minutu eta 45 segundo-; beste era batera esanda, 365,2421 egun, 365 egun eta laurden, borobilduz. Laurden horrek eragiten du, halako laurekin -lau urtean behin, beraz- beste egun oso bat izatea, ohiko 365ei gehitzen zaiena.

Baina gogoan hartu, "borobilduz" hori. Izan ere, arau orokor gisa bisurtea lau urtean behin dela badiogu ere, salbuespenak badira, gutako gehienok bakar bat ere ezagutuko ez dugun arren: honela, 100ekoetan zati daitezkeen urteak -1700, 1800

DATUA

0,0003

EGUN

Urte tropikoaren eta gure egutegi gregoriotarreko urtearen arteko desfasea da. 3.000 urtean egun bakarreko errorea dakar horrek.

eta 1900, adibidez- ez dira bisurte, ez bada 400ekoetan ere zati daitekeela. 2000. urte bisurte izan zen, 2.000 zati 100 egin daitekeen arren 2.000 zati 400 ere egin daitekeelako. 2100. urte, berriz, ez da bisurte izango -hor salbuespena, azken urteotan jaio direnetariko batzuek, behintzat, ezagutuko dutena ondo bidean-, 2.100 zati 100 egin daitekeelako, baina ez 2.100 zati 400 (emaitza ehunekorik gabea izanda, ulertzen da).

400 urtean 97 bisurte

Kontuekin segituz, horrek esan nahi du 400 urteko 97 direla bisurteak -100 beharrean, 400 zati 4 eginda ateratzen diren 100 horiei 400 horietako 100.a, 200.a eta 300.a kendu behar zaielako.

Eta noski, hori ere ez da kapritxo, guk darabilgun egutegi gregoriotarraren urte tropikora egokitze ahalegina baizik: izan ere, urte tropikoak ditu 365,2421 egun. Bisurteak lau urtetik bat balira salbuespenik gabe, esan gurako luke urteak lituzkeela 365,25 egun -horrela zen 1582an egutegi gregoriotarra indarrean sartu zen arte-. 0,01 eguneko errorea litzateke hori borobilduz, 100 urteko egun bateko errorea hortaz, 3.000 urtean hilabeteko errorea pilatuko litzateke eta halako batean -18000. urtean-edo-, uztailean negu gorria izango genuke Euskal Herrian eta urtarrilean bero, klimaren aldaketa beharrik gabe, egutegiaren desfasearen ondorioz.

Baina, gogoratu, 400 urte bakoitzeko hiru bisurte kenduta -100 beharrean 97 izanda-, 400 urte horietan geratzen dira urte bakoitzarentzat 365,2425 egun. Hori egiten du darabilgun egutegi gregoriotarrak, eta horrela asko murrizten da urte tropikoarekiko errorea -nahiz unean unean bizi direnei ez errore batek ez besteak apenas eragin-, urteko 0,0003 eguneraino. Honek esan nahi du lau urtean behingo -salbuespenik gabe- bisurteekin 3.000 urtean hilabeteko errorea pilatuko litzatekeen moduan, salbuespen horiekin 30 aldiz gutxiago pilatzen dela, 3.000 urtean egun bakarra.

Dena dela, hau ere ez da guztiz horrela; izan ere, urte tropikoaren 365,2421 egunak ez dira guztiz zehatzak, ze urte tropikoaren iraupena bera eta luraren errotazio abiadura ere aldatuz doaz mendeekin; beraz, ez

dago erabateko zehaztasunez esaterik noiz iritsiko garen egun bateko errorea izatera.

2 eta 2 ez dira beti lau

Errorea errorea, bisurteek sorrazi dezakete fisika, matematika, astronomia edo antzerako zientziaren bateko eragiketa zenbait egiterakoan. Bisurteek aldatu egin dezakete eragiketa baten emaitza, baina ez da erraza sarri eragiketok zehaztasun denak kontuan izanda egitea. Horrela, normalean, emaitza urte kopuru bat behar duen ariketa bat planteatzerakoan, oharra erre ematen da urte 365 egunekotzat hartzeko ohar-taraziz. Adibidez, bote-prontoan esango genukeen arren 549. urtearen eta 2009.aren artean 1.460 urte pasa direla, benetan 1.461 dira 365eko egun-multzoak: lau urtean behin egun bat gehitu behar denez, 1.460 urtetan 365 gehitu behar dira, beste urte bat egiteko adina.

Aurtengo egutegiak lau urtean behingo itxura

Urriaren 4aren ondotik, 15a Egokitzen harira, bada bitxikeria bat aurreko egutegitik -juliotarra- egungora

Otsailaren 29an gertatu zen

1880

Italia eta Suitza batzen dituen San Gotardoko trenentzako tunela zulatzen amaitu zuten (15 km). 177 lagun hil ziren hura eraikitzen.

1920

Txekoslovakia batua helburu, buruzagi eslovakiar eta txekiarrek hautatutako Asanblada Nazionalak konstituzioa onartu zuen.

1940

Gone with the Wind filmak zortzi Oscar eskuratu zituen. Ez haizeak ez urteek ez dute oraindik haren sona eramán.

1960

Marokoko Agadir hiria suntsitu zuen lurrikara handi batek. 15.000tik gora lagun hil ziren.

2008

Hiru txinpantzerekin egindako esperimintuan ikusi zuten haiek eta gizakiok burmuinaren zati bera darabilgula komunikaziorako, egiaztatuz lengoaiaren oinarri neurobiologikoa bazitekeela izatea bi espezieen jatorrian zegoen hartan, duela zazpi milioi urte inguru. Zazpi milioi urte, bisurteak kontuan izanda ala izan gabe?

JUSTI LARRAÑAGA | OTSAILAREN 29KOA

"Bisurteetan bai, bisurteetan topera ibiltzen da telefonoa, zorion deiekin"

1936ko otsailaren 29an jaio zen Justi Larrañaga bergararra. 2012an zenbat urte egingo dituen gal-detuta, erantzuna beste galdera batekin: "Nire urteak edo benetakoak?", diosku; urtebetetzea, jaio zenaren pareko egunez, 19. aldiz bakarrik ospatuko du.

Era berezian ospatuko duzu?

Otsailaren 29koen bazkaria egiten dugu lgeidon egunean bertan. 300dik gora bilduginen aurrekoan, familiakoekin. Bilera mundiala da,



J. Larrañaga. | GOIENA

Granadatik eta Barzelonatik-eta ere etortzen dira. Abadea eta txakurra ere badi-tugugure egunekoak. Giro ederra izaten dugu.

Askok zoriontzen zaituzte?

Bisurteetan bai, telefonoa topera ibiltzen da. "Aurten Justik

ere egiten ditu", esaten dute euren artean.

Eta bisurtea ez denean, noiz ospatzen duzu?

Aurreko egunean inoiz ez, beti gero, martxoan sartuta.



dute, otsailaren 29 eta guzti; 366 egunekin, 365 beharrean. | IMANOL SORIANO

–gregoriotarra– igarotzerakoan jazotakoa. 1582. urtea zen. Orduan, Gregorio XIII.a Aita Santuak, Christopher Clavius

astronomo jesuitak aholkatuta, erabaki zuen urte hartan eguna egokitu zen urriaren 4aren hurrengo eguna urriaren

15a, egubakoitza, izendatzea. Hala, hamar egun horiek ezabatuta lortu zuena izan zen egutegi juliotarrarekin eguzki

urtearekiko ordura arte pila-tutako egun desfasea desager-raraztea. Hori bakarrik ez, berriro halakorik gerta ez zedin –edo bestela, neurri txikiagoan gerta zedin–, erabaki zuen ordutik aurrera 400 urtero 97 izango zirela bisurteak, 100 beharrean, lehenago azaldu-tako moduan.

Honela, 1582ko urriaren 4a izan zen egutegi juliotarreko historiako azken eguna, eta 1582ko urriaren 15a egutegi gregoriotarreko lehenengoa, izatez 4aren hurrengoa, baina zenbakiz 11 geroagokoa: 1582-ko urriaren 5etik 14ra bitarteko egunak, biak barne, ez dira inoiz existitu.

Eta zer gertatu zitzaion Santa Teresa de Jesusi? Bada, hau: Santa Teresa de Jesus urte hartako urriaren 4an hil zen, eta hilaren 15ean lurperatu zuten. Baina ez zen, ez, lurperatzailearen agenda arazoa izan –gaur egun hainbat eginezini edo egin nahi ezi jartzen zaien aitzakia–, egutegi arazoa baizik, kasu horretan.

Eguzkia inguratzeko 365 egun eta ia 6 ordu behar ditugu; hortik bisurteak

00 amaitutakoak ez dira bisurte, 400 zati egin daitezkeen urteak izan ezik

Salbuespenik ez balego, 100 urteko egun bateko errorea pilatuko litzateke

1582ko urriaren 5a eta 14a arteko egunik ez zen izan, errorea konpontzeko

Otsailak 30? Bai, otsailak 30

Baina 29 ez ezik, 30 egun ere izan ditu otsailak: hiru aldiz izan zen horrela, eta zenbait herrialdetan bakarrik.

Suediak ez zuen egutegi gregoriotarra bere egin 1753. urtera arte. 1700ean hasitako egokitzapen bidean, 1712an, bi egun bisustu izan zituen urteak.

Sobietar Batasunak, berriz, egutegi iraultzailea ezarri zuen 1929an: hilabete guztiek zituzten 30 egun eta gainerako 5 edo 6 egunak hilabetez kanpoko jaiegunak ziren. Bi urtez izan zen horrela.

MANU ARREGI | ILATARGI ELKARTEKO KIDEA

"Urtea 365 egun eta 9 ordu balira, xelebregoa litzateke gure egutegia"

Lurrak eguzkiaren inguruan bira egiten behar duen denbora da urtea. Manu Arregi berresten du gregoriotarra dela egin daitekeen egutegi perfektuena. **Zergatik da perfektuena?**

Urtea 365 egun eta ia laurden izanda, nahiko egutegi simplea dugu. 365 egun eta 9 ordu balira, adibidez, xelebregoa izango litzateke. Hiru urtean behin sartu beharko litzateke bisurte bat, baina hiru ordu izango liriateke sobera eta sarria-




Manu Arregi. | GOIENA

go egin beharko liriateke egokitzapenak.

Urtaroak beti egun eta ordu berean ez hasteak izango du zerikusirik honekin guztiarekin...

Bai. Urtaroak Lurra-ren orbitaren puntu berean hasten dira beti. Baina guk 365 egunekin urtea kontatzean desfasea sortzen da eta horregatik izaten dira gora-beherak. 21aren inguruan beti, baina 20an eta 22an ere izaten da urtaro aldaketa hori.



Epelen egingo dute ibilgailuen garajea eta baita konpostaje planta ere. | GOIENA

Mankomunitateak inoizko aurrekontu handienak onartu ditu

Atez atekoa ezarriko dute Bergara, Oñati eta Elgetan 2013ko urtarrilean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Mankomunitateak 14.076.522,28 euroko aurrekontua onartu du aho batez 2012rako, izaia baino %65,58 altuagoa. Mankomunitateak horrelako aurrekonturik ez du inoiz izan. Guztiz ez ohiko aurrekontuak dira; zabor bilketa kontratu berriaren itzalean garatutakoak dira-eta, hain zuzen, inbertsioak izan dira igoera hori eragin dutenak.

Inbertsioak ingurumen sailen

Ingurumen sailak izango du aurrekontuaren zati handiena: %57a -Epeleko lanak kontuan hartuta %81. Aurtengoa urte berezia izango da, izan ere atzeratuta zeuden hainbat inbertsio 2012an egingo dira. Besteak beste Epelen 2.800.000 euroko inbertsioa egingo da iragaztearen lehenengo fasea eta garbigune industrialia egiteko; eta zabor bilketan 1.930.000 euro-

ko inbertsioa egingo dute -ibilgailuendako garajea egin, 5 kamioi eta puntu berde mugikorra erosiko dute. "Azkeneko 10 urte edo gehiagoan ez da inbertsiorik egin. Ondorioz ibilgailuak oso zaharrak dira, arazo asko ematen dituzte", azaldu du Josu Pereda Mankomunitateko ingurumen batzordeko kideak. Epele derrigorrez iragazgaitu egin behar dela eta geratzen den zatiaren erabilpena

bermatzeko zigilatu egin behar dela ere azaldu du Peredak: "Uste dugu beste 8 bat urte iraungo duela horrela", dio.

Garai batean AKEIn zeuden zabor bilketako kamio guztiak, ondoren behin behineko San Balerioko garajeak erabili izan dituzte (Arrasateko Udalarenak) eta orain behin betiko garajeak egingo dute Epelen. 1.330.000 euro partida dago horretarako.

Puntu berde mugikorrari dagokionez, kendu egin zuten bere garaian baina berriro jartzea erabaki dute olio batzeaz gain beste zerbitzu bat ere ematen duelako: fluoreszenteak eta margoak batu, adibidez. Orain Garbigunera eraman behar dira horiek guztiak baina denek Garbigunea eskura ez dutenez puntu berde mugikorra funtzioa egingo duen ibilgailu berezi bat erosiko dute. Horretarako 25.000 euroko partida dago.

Atez atekoa ezarriko dute

Behin Aldundiak hondakin organiko bilketari irtenbidea emanda 2013rako atez ateko bilketa sistema jartzeko aukera ikusi du Mankomunitateak; modu horretan, inbertsio guztiak 2012an egin beharko dira. Bergaran, Oñatin eta Elgetan jarriko dute atez atekoa hasiera batean.

Atez atekoaren ezarpen kostuak ondorengoak izango dira: aportazio guneak 240.000 euro eta pibote eta edukiontzia 150.000 euro. Aportazio guneak dira base-rritarrendako guneak, txabola

modukoak, giltzapean daudenak (Antzuolan bakarria dago, adibidez). Izan ere baserrietan ez dute atez ateko bilketa egiten. Bergaran, Oñatin eta Elgetan egingo diren aportazio guneen kopurua eta lekua zehazteke dago. 26.700 biztanleri eragingo dion bilketa sistema ezartzeko informazio guneak antolatuta beharko dituzte. "Informazioa emateko bulego teknikoak zabalduko ditugu: bina Bergaran eta Oñatin, eta bakarria Elgetan", dio Peredak. Aurreikuspenen arabera 10 pertsonak egin beharreko lana izango da eta 210.000 euroko kostua izango du horrek.

Konpostaje planta Epelen

GHKk -Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa daraman enpresa- egingo du konpostaje planta: "Hondakinak batu Udalek egiten dute baina hondakinen kudeaketa GHKari dagokio, horregatik inbertsio hori ez du Mankomunitateak egingo", azaldu du Peredak. Asmoa da 2012an egitea konpostaje planta Epelen.

DATUA

5

KAMIOI

Zabor bilketarako bost kamioi erosiko dituzte; flota guztia berrituko dute.

Basque Culinary Center eta Insalus, elkarlanean

M.B. | ARRASATE

Botilako urari jatetxeetako kartetan gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola ikusita, hitzarmena sinatu dute Basque Culinary Centerrek eta Insalusek. Basque Culinary Centerreko zuzendari Joxe Mari Aizegak eta Agua de Insalus enpresako zuzendari nagusi Francisco Javier Malcorrak sinatu dute, uraren eta gastronomiaren inguruko ikerkuntzan eta prestakuntzan sinergiak sortzeko helburuarekin. Bost urteko iraupena izango du eta hainbat lankidetzaproiektu burutuko dituzte, bereziki uraren mundua eta urak gastronomiarekin duen lotura nazioartean zabaltzea helburu dutenak. Ildo horretan, Basque Culinary Centerrek uraren kultura sustatuko du bere programetan, eta Insalus erreferentziako marka izango da.

Era berean, gastronomia, elikadura eta nutrizioaren alorrean bi erakundeek aholkularitza eta laguntza eskainiko diote elkarri, eta informazioa trukatu dute.

Arrasaten zentralizatu dute larrialdi farmazia zerbitzua

Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoendako izango da; Bergarak betiko moduan jarraituko du

JOKIN BEREZIARTUA. | ARRASATE

Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako herriartekko larrialdi farmazia zerbitzua Arrasaten izango dute aurrerantzean. Arrazoa da herri horietan zerbitzu horren erabilzaile kopurua osoa baxua dela.

Erabilzaile kopuru txikia

Azken sei hilabeteetan Oñatin 44 pertsonak erabili dute zerbitzua; hilabeteko 1,8 paziente farmazia bakoitzeko -lau daude-. Aretxabaleta eta Eskoriatzan, berriz, 20

erabilzaile izan dira azken sei hilabeteetan.

Gipuzkoako sendagileen elkartearen helburua da urgentzia medikua ematen den herriarekin bateratzea larrialdi farmazia zerbitzua.

Bergaran, betiko moduan

Bergaran, berriz, orain arte moduan funtzionatu du. Hau da, urte osoan zehar txandakako larrialdi farmazia bat zabalik egongo da gaueko hamarretatik goizko bederatzietara.



Oñatiko Anduaga farmaziakoak bezeroarekin. | ARTXIBOA

Zarimutz bidezubiko taula eraikitzen hasi dira Eskoriatzan

MONIKA BELASTEGI. | ARRASATE

ADIFek -Sustapen Ministerioaren mendeko elkarte- Zarimutz bidezubiko taula eraikitzeko lanak hasi ditu, Gasteiz-Bilbo-Donostia Abiadura Handiko Linearen Eskoriatza-Aramaio tartean, hain zuzen.

Zarimutzeko bidezubia 262 metro luze da eta 18 eta 45 metro bitarteko lau zubi-pilare ditu euskarri. Taulak nazioarteko zabalera neurria izango du, eta eraikitzeko, argia izango duten bost bao -zubi-pilareen arteko hutsunea- sortuko dira, 31 eta 60 metro bitartekoak.

Eskoriatza-Aramaio tartea

Eskoriatza-Aramaio tartea 5,6 kilometro ditu, eta bidearen %64 lurpetik egingo du. Gaine-

ra, tarte horretan, Uruburu I, Uruburu II, Induspe eta Mazmela tunelak eta Uriarteko eta GI-3343 errepideko bidezubiak eraikiko dituzte.

Eskoriatza-Aramaio tarteko lanak amaitzean, 285.672 metro karratu oihan berrituko dituzte ADIFen arabera.

DATUA

262

METRO

Zarimutzeko bidezubia 262 metro luze da eta lau pilare izango ditu.

Formatua aldatuta Mundumira Gatzagan egitearen aldekoa da Debagoieneko Mankomunitatea

Asteon izango dute bilera Mankomunitateko arduradunek Euskal Herria aldizkarikoekin eta Gin Tonic ekoizle etxekoekin erabakia hartzeko, baina Mankomunitatearen asmoa Mundumira 2012 Gatzagan egitea da: "Orain arteko formatua aldatuko dugu. Eguneko azoka Gatzagan egin eta gaueko kontzertuak Eskoriatzan egitea aztertzen gabiltza", azaldu digu Josu Lizarralde Mankomunitateko turismo arduradunak. "Orain arteko edizioak Gatzagan ere finantzatu ditu eta orain euren txanda da", dio.



Oñatitik zortzi autobus irten ziren Bilborantz; irudian, talde bat autobusera igo aurretik. | JOSETXO ARANTZABAL

Ines Osinaga: "Gobernuei saihestezina zaie eskakizun eta borondate zabal honi so egitea"

- ▶ Arrasatearrak manifestatua irakurri zuen Bilboko manifestazioaren amaieran, Jon Garairekin batera
- ▶ Debagoienetik jende asko joan zen presoan aldeko martxara; denera, 31 autobus irten ziren

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Kolosala izango zela ematen zuen eta halaxe izan zen. Egin Dezagun Bidea ekimenak antolatuta, mila-lagun (antolatzaileen esanetan, 90.000 lagunetik gora) batu ziren zapatu arratsaldean euskal presoak Euskal Herriratzeko eta askatzeko aldarrikatzeko Bilbon egindako manifestazioan.

Debagoienetik ere jende asko joan zen Bilbora. Iragarrita zeudenak baino 6 autobus gehiago antolatu ziren. Denera, 31 autobus abiatu ziren (aste barruan 25 autobus zeuden aurreikusita). Hain justu, Bergararik hamar irten ziren; Oñatitik zortzi; Arrasateetik sei; Aretxabaleta eta Eskoriatza eta

Gatzagatik bina; eta Antzuola, Aramaio eta Elgetatik bana. Herri gehienetan gainera asko izan ziren toki barik geratu zirenak. Aramaioakoak, esaterako, Legutioko autobusera desbideratu zituzten; eta Elgetakoak, Elorriora.

Ekitaldia pantailetatik

Presoen senitartekoek zabaldu zuten martxa 17:30ak jota zirenean; ordu eta erdi beranduago heldu zen udaletxera. Manifestari gehienek ibilbidea jarritako pantailetatik eta bozgorailuetatik jarraitu behar izan zuten ekitaldia. Ines Osinaga arrasatearra izan zen manifestua irakurri zuena, Jon Garairekin batera. Honakoa ohar-

tarazi zuten: "Espainiako eta Frantziako gobernuei saihestezina zaie Bilbon islatzen ari den eskakizun eta borondate zabal

honi so egitea". Presoen eskubideak errespetatzen hasteko "aldi berria" zabal dadin, "mugarria" jarri behar dela ere aipatu zuten.



Jendetza batu zen manifestazioan. | IRATI GOITIA



SEBASTIAN ARANTZABAL
ELGETA

"Autobusa betetzea erronka handia zen. Orain dela 15 urte inguru bete genuen azkena. Gainera, herritar asko goizetik joan dira. Elgetarren %10 izan da Bilbon".



MAITE ARISTEGI
BERGARA

"Izugarria izan zen, benetan hunkigarria. Euskal Herriko bihotza Bilbon izan zen. Gatazka politikoaren ondorio larria agerian geratu zen".



ENEKO BARBERENA
ARRASATE

"Gutxitan ezagututako manifestazioa izan zen, izandako tamainagatik eta askotariko eragileen babesagatik. Honezkero erabilia daude adjektibo denak".



MANEX AGIRRE
ARAMAIO

"Bazkaldu eta alde zaharrea ibili ostean, manifestaziora joan nintzen; ikusi ere ez nuen egin jende asko zegoelako. Zabalburutik ezinezkoa zen sartzea".



JOSEBA GABILONDO
ESKORIATZA

"Jendetzarekin hunkitu nintzen. Manifestazio historikoa izan zen. Autonomia kalean metro batzuk egin genituen eta gero pantailetatik ikusi genuen amaiera".

Elikaduraz eta osasunaz jardungo dute Kulturaten

M.B. | ARRASATE

Elikadura eta osasunean aditu Dorleta Martinez medikuak lau hitzaldi eskainiko ditu Kulturaten. Lehen jardunaldia bihar, martitzena, izango da. Egungo elikadurak osasunean duen eraginaz egingo du berba. Bigarren hitzaldia hilaren 17an izango da, eta Martinez zabal ariko da berbetan elikaduraren bidezko hezurren osasunaren gainean.

Otsailean beste bi hitzaldi emango ditu: fibromialgia, nutrizioa eta bestelako terapia naturalen gainekoa, otsailaren 7an; eta elikadura eta minbiziaren arteko loturaren gainekoa, otsailaren 21ean. Hitzaldi guztiak 19:00etan dira.

Sarrera libre da eta informazio gehiago nahi duenak 943 79 74 96 edo 628 68 67 80 zenbakietara dei dezake.

Ireki dituzte AP-1 autobideko zerbitzuguneak

M.B. | ARRASATE

Dagoeneko ireki dituzte AP-1 autobideko bi zerbitzuguneak; hain justu, Arrasatekoa (Oxinalde) eta Eskoriatzako (Uztarreta). Oraingoz, gasolina-gunea eta denda egongo dira zabalik, 24 orduz, autozerbitzu sistemaren bidez.

Ohiko erregaiez gain, ibilgailu hibridoendako petrolio-zoko gas likidoa, eta kamioiendako Adblue gehigarria ere eskaintzen dira. Horretaz gainera, auto-karabanetako hondakinak husteko gunea izateaz gain, kamioiak, turismoak eta auto-karabanak aparkatzeko lekua ere badago bi zerbitzuguneetan. Jatetxe zerbitzua, berriz, apirilera izango da gertu.

Ane Irazabal | Historialaria eta kazetaria

"Etorkizun hurbilera begira ez diot irtenbiderik ikusten gatazkari"

A.T./M.B. | ARETXABALETA

Israel eta Palestinaren gatazkaren gaineko hitzaldia eman zuten joan den astean Ane Irazabal historialari eta kazetariak eta Alberto Pradilla kazetari eta idazleak, Aretxabaletako Arkupen. Irabazal arrasatearra Palestinan bizi da, eta hango egoeraren berri

eman digu. Horretaz gainera, gatazkaren irtenbideaz ere egin zion berba Goienari, Aretxabaletan.

Nola bizi dira egun palestinarrak? Orokorrean okupazio militarren pean bizi den gizarte bat da, horrek dakarren ondorioekin. Dena dela, duintasuna aldarrikatuz, bizitza

normala egiten saiatzen den gizarte da.

Gatazka ondo ezagutzen duzu. Gatazkaren irtenbide politikoa ikusten duzu?

Etorkizun hurbilera begira ez dut inolako irtenbiderik ikusten, ez dut borondaterik politikorik igartzen, bereziki Israelen aldetik. Egia da boikot eta zigorraren kanpaina oso garrantzitsua dela, batez ere nazioarteko kontzientziazio kanpaina hasteko. Horren harira, kontuan izan behar dugu ez direla egoera berdinean dauden bi fakzio, baizik eta okupatzaile

eta okupatuez ari garela berba egiten. Horri aurre egin behar zaio; presioa egin behar zaio nazioarteko ikuspuntutik. Baina Israelgo gizarteak aldatzen ez bada eta barrutik apurtzen ez bada, oso zaila izango da gatazka honekin amaitzea.

Palestinarrak nola bizi dute egoera?

60 urtetik gora daramatzate borrokatzen, erresistentzia bat aldarrikatzen. Denetarik dago: borrokatzera ohituta daudenak eta baita nekatuta daudenak eta bizitza normala egitea gura dutenak.



Ane Irazabal. | AMAIA TXINTXURRETA

Abenduan 3.046 langabe zeuden Debagoiengan, iaz baino 120 gehiago

Hego Euskal Herrian ere gora egin zuen langabezia tasak urte bukaeran

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Urtea bukatuta, estatistikak eta urteko erreposoak egiteko garaia da. Baita langabezia 2011k eman duena erreposatzeko ere. Lanbide emandako datuen arabera, abenduan 3.046 langabe zeuden Debagoiengan, 2010eko abenduan baino 120 gehiago. Hori horrela, langabezia tasa %9,83 zen.

Herrika datuak begiratu, urte bukaeran langabezia tasa handiena Arrasatek zuen (%11,37): azaroan baino gehiago, baina urtarrean baino gutxiago (%11,48). Tasa txikiena, aldiz, Leintz Gatzagak zuen, % 6,02rekin. Zortzi langabe zituzten han.

Lanbide emandako datuen arabera, Hego Euskal Herrian gora egiten segitzen du langabezia, abuztuaz geroztik ez du etenik eta jada 192.340 dira lanik gabe dauden gizon-emakumeak Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Beste bi datu: 2007an krisia hasi zenetik bikoiztu egin da langabe kopurua, 96.000tik 192.000ra; eta azken bi urteetan emakumeei egin die kalte handiena: %17 igo da.

Debagoieneko datuak

Debagoieneko herrietako datuei begiratu, garbi ikusten da urrik abendura gora egin duela



langabeziak. Dena den, 2011. urte hasi genuena baino hobeto bukatu genuen: urteko azken hilean lehenengoan baino 47 pertsona gutxiago zeuden lan barik.

2011ko langabezia tasak hileka ikusita, uztailea izan zen hila-bete onena. Orduan 2.865 lagun zeuden lan barik (%9,24). Bigarren hilabete onena urria izan zen (%9,27). Hilabete txarrenak, aldiz, martxo eta apirila izan ziren. Bietan langabezia tasa %10,24 zen: martxoan 3.173 langabe zeuden eta apirilean 3.175.

Debagoieneko herrietako langabeziak gorabehera handia izan du 2011n. Antzuolan, Aretxabalean, Leintz Gatzagan eta Arrasaten tasa txikiena izan zuten uztailean; Oñatin, Bergaran eta Elgetan urria; eta Eskoriatzan abuztu.



Marta Madinabeitia | M. BIKUÑA

Marta Madinabeitia
Kutxako ordezkaria

"Kutxako bezeroek ez dute aldaketarik igarriko"

M.B. | ARRASATE

Asteon hasi du ibilbidea BBK, Kutxa eta Vitalen bat-egitearen ondorioz sortutako bankuak, Kutxabankek, 75.000 milioi euro inguruko aktiboarekin. Bezeroek kontuan hartu beharrekoaz egin dugu berba Marta Madinabeitiarekin, Kutxako Mendebaldeko zuzendari komertzialarekin.

Ze aldaketa ekarriko dizkio bezeroari Kutxabankek?

Aldaketa gutxi. Ikusiko dute euren etxeetan jasotzen duten gutunetan ikurra eta izena aldatu egin dugula. Aurrerantzean Kutxabank izango gara, baina Kutxaren ikurra mantendu egingo dugu.

Bulegora doazenean aldaketarik nabarituko dute?

Ez. Bulegoak egun dauden tokietan egongo dira, eta langileak eta aholkulariak berberak izango dira. Hori horrela, ez dute arazorik izango.

Lehen egunetan nabaritu duzue ardurarik bezeroen artean?

Ez, ardurarik ez. Jakingura erakutsiko dute, interesa. Nik esango nieke lasai egoteko, egunerokotasunean ez dutela aldaketarik igarriko.

Zeintzuk dira, orduan, Kutxako bezeroek izango dituzten onurak?

Txartelak erabiltzeko orduan eta transferentziak egiteko orduan ez dute komisiorik ordainduko. Orain arte, Kutxaren txartelarekin BBK-ko eta Vital Kutxako kutzazainetan dirua ateraz gero, komisioa ordaindu behar zuten. Berdin, kontuen arteko transferentziak egiterakoan. Aurrerantzean ez da ezer ordaindu beharko. Txartelarekin erosoago ibili ahal izango dira.

Bulegoko langileok aldaketarik izango duzue?

Ez. Lehen esan dudana moduan, gu leku berean gaude eta orain arteko bezeroak ditugu. 2013an sistema informatiko bera erabiliko dugu hiru kutxek, eta orduan, akaso, aldaketaren bat igarriko dugu.

2011KO LANGABEZIA HILEKA ETA HERRIKA

	URTARRILA		OTSAILA		MARTXOA		APIRILA		MAIATZA		EKAINA		UZTAILA		ABUZTUA		IRAILA		URRIA		AZAROA		ABENDUA	
	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA	GUZTIRA	TASA
Antzuola	86	9,45	86	9,45	93	10,22	91	10,00	86	9,45	84	9,23	79	8,68	84	9,23	90	9,89	77	8,46	81	8,90	85	9,34
Aretxabaleta	295	9,14	287	8,89	307	9,51	310	9,61	308	9,54	291	9,02	270	8,37	272	8,43	289	8,96	275	8,52	280	8,68	280	8,68
Arrasate	1.328	11,48	1.289	11,14	1.325	11,45	1.337	11,55	1.290	11,15	1.246	10,77	1.201	10,38	1.211	10,47	1.245	10,76	1.268	10,96	1.283	11,09	1.316	11,37
Bergara	723	10,08	759	10,58	808	11,26	814	11,34	779	10,86	768	10,70	732	10,20	734	10,23	732	10,20	716	9,98	739	10,30	757	10,55
Elgeta	41	8,33	47	9,55	47	9,55	43	8,74	44	8,94	36	7,32	47	9,55	45	9,15	39	7,93	31	6,30	40	8,13	43	8,74
Eskoriatza	205	9,86	191	9,19	199	9,57	203	9,76	197	9,48	193	9,28	187	8,99	180	8,66	179	8,61	187	8,99	213	10,25	219	10,53
Gatzaga	7	5,26	5	3,76	6	4,51	6	4,51	5	3,76	5	3,76	3	2,26	4	3,01	5	3,76	4	03,01	5	3,76	8	6,02
Oñati	408	7,55	382	7,07	388	7,18	371	6,87	367	6,79	361	6,68	346	6,40	356	6,59	325	6,01	315	5,83	327	6,05	338	6,25
GUZTIRA	3.093	9,98	3.046	9,83	3.173	10,24	3.175	10,24	3.076	9,93	2.984	9,63	2.865	9,24	2.886	9,31	2.904	9,37	2.873	9,27	2.968	9,58	3.046	9,83

ITURRIA: LANBIDE

Urte berriarekin prezioek gora egin dute; besteak beste, gas naturalak eta bidesariak

Salbuespenak ere badaude: argindarra ez igotzea erabaki du Gobernuak

M.B. | ARRASATE

Urte berriarekin batera prezioek gora egin izan ohi dute, eta aurrean ere hala izan da. 2012ak salneurri berriak ekarri ditu. Hala, oinarriko zerbitzu nagusien tarifek gora egin dute. Hori horrela, gehiago ordaindu beharko dugu hipotekengatik, gas naturalarengatik eta bidesariengatik, adibidez.

Hipotekak berritu

Gas naturalaren tarifa arautua batez beste %5 igotzea erabaki du Espainiako Gobernuak. Beraz, erdi mailako kontsumoa duen familia batek hilean 57 bat zentimo gehiago ordaindu beharko ditu. Butano-bonbonaren kasuan, ez da igoerarik izango.

Hipotekak ere gora egingo du. Euriborrak –Espainian hipoteka gehien hartzen dituen indizea–



AP-1 erabiltzen dutenek %3,2 gehiago ordaindu beharko dute. | GOIENA

%2rekin itxi du urtea; hau da, martxo ezkerreko izandako mailarik txikienean. Hori horrela, hipoteka abenduko batez bestekoaren arabera berritu behar duten herritar

guztiei igo egingo diete hileroko ordaindu beharreko kuota.

Gainera, Espainiako Estatuko Administrazio Orokorren menpe dauden autobideen bidesariak

ere garestitu egingo dira; batez beste, %3,2. Hala, Eibar eta Gasteiz lotzen dituen AP-1, adibidez, %3,1 garestiagoa izango da.

Eta autoa erabili ordez tren, tranbia, autobusa edo metroa hartu gura dutenek ere gehiago ordaindu beharko dute.

Dena den, gure bailaran autobus zerbitzua ematen duen Lurraldebusek GOIENARI esan dio txartela ez dutela garestituko orain. "Agian" urteak aurrera egin ahala igotzea dutela prezioa. Iaz, esaterako, uztailean garestitu zuten.

Jaitsi edo mantendu

Dena den, horrenbeste igoeraren artean, prezio batzuk jaitsi edo mantendu egingo dira. Adibidez, argindarraren tarifa ez igotzea erabaki du Espainiako Gobernuak. Beraz, fakturretan ez dugu inolako igoerarik izango, apirilera arte, gutxienez.

Erregaiak, bestalde, merkatu egin dira eta, ondorioz Espainiako Estatuan inflazioak behera egin du, hirugarren hilabetez jarraian. Hala, azarotik puntu erdi jaitsita, %2,4an kokatu zen abenduan.

Jon Etxeberria eta Maite Otxoa | Herrigintza Gaztea taldeko parte-hartzaileak

"Gazteak xaxatu nahi ditugu, bakoitzak lan egin dezan interesatzen zaion esparruan"

- ▶ Gazteek gertuko dituzten gaiak landuko dituzte, bi astean behin, eguaztenetan
- ▶ Interesatuak 'gazteak@bagara.net' helbidera idatzi edo 943 79 68 48ra dei dezakete

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Bagara egitasmoak Herrigintza Gaztea jarri du abian, bigarren aldiz. Bailara osoko gazteei zuzendutako ekimena da eta herrigintzan jantzi eta eragitea du helburu. Datorren eguaztenean hasiko dituzte saioak.

Zer da Herrigintza Gaztea?

Jon Etxeberria: Bagara egitasmoaren barruan dagoen talde bat da. Saio batzuk egiten ditugu bi astean behin Bagara egitasmoaren ildoan inguruan: izan daiteke euskalduntasuna, autoeraketa, iraunkortasuna eta elkartasuna. Horien inguruan aritzen gara eta esperientzia ezberdinak partekatzen ditugu.

Maite Otxoa: Formazio ezberdinak jasotzen ditugu, baina beti ez dira formazio eskolak izaten, solasaldiak ere izan ditugu.

J.E.: Kanpotik datorren pertsona batekin izaten dugu solasaldia. Izan daiteke unibertsitateko irakaslea, gaztetxe bateko kidea, euskalgintzan dabilen norbait... Gugana etortzen dira eta solasaldia izaten dugu. Bi astean behin izaten dugun dinamika da.

Norendako da ekimena?

J.E.: 18 eta 30 urte arteko Debagoieneko gazteendako, baita debagoienendarrak ez izan arren Debagoiengan bizi direnendako ere. Adin muga gutxi gorabeherakoa da, gaztetxoagoak edo nagusitxoagoak ere etor daitezke. Izan ere, hemen ikasle asko bizi dira, eta haiek ere etor daitezke.

Parte hartu gura duten gazteek nora jo behar dute?

M.O.: Bada, gazteak@bagara.net helbidera idatz dezakete, edo Bagarako telefonora deitu. Iaz bagaraherrigintzagaztea.wordpress.com ataria sortu genuen, eta han informazioa jasotzeko modua dago. Eguaztenean, urtarrilak 11, hasiko dira saioak, eta bi eguaztenean behin izango dira.

Aurtengoa bigarren edizioa izango da. Nolako balorazioa egin zenuten lehenengo edizioan?

M.O.: Oso ondo joan zen. Talde polita sortu genuen. Hasieran jende asko etorri zen eta gero 15 bat laguneko taldea egin genuen. **J.E.:** Asmoa da bailarako herri gutzietara zabaltzea. Iaz, Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Antzuolako lagunak parte hartu zuten eta badakigu aurten Oñati eta Bergarakoak ere etorriko direla.

Ondorioak zeintzuk dira?

M.O.: Orokorrean, gustura gertatu ginen. Ez genekien zelan irten go zen, eta gustura gaude. For-



Jon Etxeberria eta Maite Otxoa, Herrigintza Gazteak ekimeneko parte-hartzaileak. | A.E.

mazio saioak ondo joan ziren eta aukeratutako gaiak interesgarriak izan ziren.

J.E.: Hurbileko gaiak izan ziren; euskalgintzaren inguruan berba egin genuen, esate baterako. Gazteok egunerokotasunean euskararekiko dugun jarrera aztertu genuen.

"Bagara egitasmoaren ildoan gainean berba egiten dugu"

"Eguaztenean, urtarrilak 11, hasiko dira Herrigintza Gazteak saioak"

M.O.: Egungo errealitatea ikuspegi kritikotik ere aztertu genuen, eta horri buelta zelan eman ere aztertu genuen.

J.E.: Lehenengo edizioa izanda, esperientzia moduan egin genuen, Saio teoriko esperimentalak egin genituen eta asmoa zen, ahal izanez gero, zerbait praktikoa ere egitea. Guk ekoiztutako zerbait egin gura genuen, eta aurten ere asmo hori dugu. Bailaran badaude gaztetxeak, guk ez ditugu sortuko, gazte asanbladak ere badaude, baita aisialdi taldeak ere...

Bailarako jende ezberdinarekin sortutako hartu-emanak izan da polita.

Zein da Debagoieneko gazteen errealitatea?

J.E.: Gazteen errealitatea ikuspegi kritikotik aztertu genuen lehenengo saioan. Ariketa polita egin genuen EGK-ko koordinatzaileekin. Lau oinarri hartu genituen, aisialdia, hezkuntza,

lana eta etxebizitza, eta nork bere kezkek azaldu zituen. Euskal Herriko edozein herritan eginda ere, kezkek antzerakoak izango liriatekeela uste dugu.

M.O.: Etxebizitzaren gainean gazteak dituzten kezkek azaldu zituzten; adibidez, asko eraikitzen dela, baina alokairua ez dela sustatzen.

"Gazteen errealitatea ikuspegi kritikotik aztertu genuen"

"Zerbait berria egiten hasiz gero, errealitatea aldatu egin daiteke"

J.E.: Aisialdiaren gainean ere jardun genuen. Gaur egungo aisialdia kontsumora bideratuta dago, eta horrek asko kezkatzen gaitu. Guk ere aisialdi mota hori kontsumitzen dugu, baina ikusten dugu beste aisialdi mota bat sustatu beharko litzatekeela.

Zein da herrigintzaren egoera gazteen artean?

M.O.: Jende pasiboa dagoela uste dut. Arduratu egiten nau inguruko lagunak pasiboak izateak; guregana etorri eta hemen lantzen ditugun gaiez janztea gomendatuko nieke haiei. Finean, Bagara horretarako sortu da, bailarako dinamika aldatzeko.

J.E.: Nik uste dut jendea bada-goela lanean. Gazteak arlo guztietan daude, baita pasiboak direnak ere, euren buruetan bakarrik pentsatzen dutenak, baina ez gazteak bakarrik, baita nagusiagoak ere. Guk gazteak xaxatu nahi ditugu, bakoitzak lan egin dezan interesatzen zaion esparruan. Herrigintzak esparru asko batzen ditu: politika, kultura, linguistika... esparru asko daude lan egiteko.

Jorratuko diren gaiak blogean daude ikusgai. Hiru orduko saioak izaten dira, eta doan. Nabarmendu gura duguna da oso saio interesgarriak izaten direla, nork bere burua janzteko oso egokiak. Ez da egunero horrelakoak entzuteko aukerarik izaten.

Hizkuntzaren ekologiaren berba egin zenuten. Nolako jarrera dute gazteek euskararekiko?

J.E.: Etorri den jendea kezkatuta dago, garbi dago errealitatea zein den. Inguruan gaztelania mordo entzuten da, eta beti pentsatu izan da bailara hau oso euskalduna dela; gainera, herri batzuk beste batzuk baino gehiago.

Hona etortzen diren gazteak kezkatuta daudela argi dago. Bagararen ardatzetako bat euskalduntasuna baldin bada, atzean kezka bat dagoelako da. Bagara bailarari buelta emateko sortu zen. Garai baten beste jarrera bat zegoen euskararekiko: 80ko hamarkadan bultzada izugarria eman zitzaion euskarari; elkartasuna ere handiagoa zen... gaur egun, hori aldatu egin da; iraunkortasunean ere ikusi besterik ez dago ze norabide hartu duen bailarak, berdetik grisera pasatu gara.

Etorkizuna zelan ikusten duzue?

M.O.: Ondo, esperantza daukat. Beti berdina egiten baduzu ezin duzu aldaketarik espero, baina zerbait berria egiten hasten bazara, aldatu egin daiteke.

ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA
http://goiena.net/iritzia/



Nabarra 10, Nafarroa 500

Nabarra badoa Navarratik irakurri genuen 2011ko apirilean. 9 urte pasako ibilbidea egin ondoren, Nafarroan sortu eta Nafarroan argitaratzen zen euskarazko kultura aldizkariak Nafarroa utzi beharra zuela adierazi zuen, hango Gobernuak laguntza guztiz murriztu ziolako: 0 euro. Hala ere, pozik ziren, neurri batean, Bilbo aldean jarraibidea izango zutelara eta. Baina hamar urte bete berritan esan digu agur. Bizileku berrian ez omen du Nafarroako agintarientza bezalako mesprezurik jaso, baina ezta aparteko maitasunik ere.

Nafarroako Gobernuak 3 milioi euro eman zituen iaz gaztelaniazko hiru telebistarentzat; 2012an, 2,5 milioi emango ditu. Euskarazko hedabide guztiei garairik onenean 300.000 eman zien; 2012an 0 euro izango dira. Hedabideen diru-iturri nagusia publizitatea izan ohi da. Euskarazko hedabideek nafar erakunde publizitatearen %1 jasotzen dute. Egoera horretan hango euskarazko hedabideak desagertzen ari dira.

Baina, Nafarroan ez ezik, Gasteizen, Urola-Kostan edo Busturialdean ere badira laguntza eskasiaz desagertu diren edo kinka larrian dauden euskarazko hedabideak. Eta horietan ez da UPN agintean. 2012an Nafarroaren Konkistaren 500. urteurrena izango da. Dozenaka ekitaldi izango dira han-hemenka orduko memoria gurera ekartzeko, Amaiurko gaztelua defendatu zuten gudariak ohoratzeke. Egin beharrekoa da, baina oharatze-modu eskasa izango litzateke, bitartean, herri honen nortasunaren gaur egungo *gazteluak* erortzen uzten baditugu. Gandiagaren hitzak dira:

Hemen euskaldun izatea bezalako gudaririk ez dago. Hemen euskaraz irakurri eta euskaraz idaztea bezalako iraultzailerik ez dago. Hemen euskara indartzea bezalako indar politikorik ez dago. Hemen ez dago euskara adinako desafiatorik inperio zurrupariaren aurka. Hemen ez dago euskara adinako askatasunaren aldeko itxrobiderik. Ea 2012an ez zaigun beste gaztelurik erortzen.

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

Galtza estuenek zer esango

Jan eta edan, edan eta jan; eta ibili. Eskerrak horri! Mahaia-
ren bueltan eman ditugu Gabonok eta arrisku galanta dauka horrek. Onerako edo txarrerako, ordea, estomagoa urte osoan bete ohi dut nik ondo, eta, jaiegunok pasata, armairuko galtza bakero estuenek esan didate, lehengo moduan nagoela. Eup! Hori baino baskula hoherik? Opor egun hauetan hamaika futbol torneo ere izan da –Debagoienan bertan, urrunago joan barik– eta zelaian gora eta behera korrika ibili direnek ere ez dute kiloez kezkatzeko arrazoirik izango. Datuek, diote, baina, Gabonetan hiruzpalau kilo hartu ohi ditugula eta herritarren %68k dietan hasten dutela urtea. Zure kasua bada, ikusi *Magazinea* egunean.

KALE INKESTA

10 urte pasa dira euroa iritsi zenetik. Erabitzera ohitu zara?



ANTONIO
PROL
ARRASATE

"Bai. Dena dela, pezetara bueltatuko nintzateke, guztia askoz garestiagoa dagoelako orain. Prezioak gora doazen bitartean, soldatak berdina dira".



TRANSITO
VEGA
ARRASATE

"Ohitu banaiz ere, nik pentsatu barik itzuliko nintzateke pezetara. Asko garestitu da guztia, soldatak izan ezik. Horiek igo beharko litzukete".



IRINA
PAVLOVA
BERGARA

"Bai. Gustura nago euroarekin. Bulgariakoa naiz eta Europatik asko ibiltzen naizenez oso eroso da. Prezioak borobiltzea normala da".



EXPOSITO
ESTEBAN
ARRASATE

"Ohitu banaiz ere, pezetarekin hobeto moldatzen nintzen. Ez naiz bakarra. Telebistan ikusten dut jende asko laguntza behar duela".

HANDIK ETA HEMENDIK

Iragarritako albistearen kronika

Luis Aranberri 'Amatiño'

http://eibar.org/blogak/amatiño/

Jose Manuel Soria Industria eta Energia ministroak ziurtatu du ziurtatu beharrekoa. Espainiar gobernu berriak atzera botako du Zapaterorenak 2009ko udan hartutako erabakia eta Garoña ez da itxiko 2013an, sei urte geroago baino, 2019an, alegia.

Ezin, ostera, albistetzat jo, Rajoy berak agindu baitzuen 2009ko udazkenean: "Hauteskundeak irabazten baditugu ez dugu Garoña itxiko". Esan, irabazi eta egin.

[...]

Izan ere, Ministro jaunak zehatz asko bereizi nahi izan du ez diharduela indar nuklearren aldeko apostua egiten, ezta zentral berririk eraiki nahian ere, honezkerorabab amortizatua dagoen azpiegituraz baliatzen baino.

Eta, gainera, Garoña inguruko udalerrietako herri-ordezkarik guzti guztien onspenaz eta esker onaz.

Orain 37 hilabete, 2009ko urriaren 6an, Mariano Rajoyk eskualdeko berrehun inguru alkate, zinegotzi eta herritar bildu zituen Santa Gadea del

Cid udalerriko Espino Andre Mariaren Monostegian eta, zorrotz asko, aurrez aurre zituen guztiek entzun nahi izan zutena baino ez zien esan eta promes egin:

"Hauteskundeak irabazten baditugu ez dugu Garoñarik itxiko". Eta irabazi egin dituzte.

Ederragorik, zer

Anjel Lertxundi Esnal

http://berria.info/blogak/lertxundi/

Alberto Caierok, Fernando Pessoren heteronimo batek, eguzkia opa digu irakurleoi poema batean, eta aulkitxo bat ere bai "leihu baten azpian", eguzkiaren epela gozatzeko.

Eta opa digu euria ere "beharrezkoa gerta dakigunean".

Eguzkia, aulkitxo bat; euria ere bai, premiatutakoan. Behar duguna baino gehiago nahi, ordea. Ez gaitu etxe bakarrak asetzen.

Teknologia berriek bizi gaituzte. Zaborrontziak janariz lepo egongo dira bihar. Gure txikiek baztertu dute dagoeneko Oientzerok ekarritako hainbat jostailu. Soberakoa, beharrezko.

Behar duguna baino gehiago, ordea, ez daukatenen bizkar ustiatzen da.

Urte berriari ezer eskatu ordez, hark niri eskatzen didanari erreparatu diot.

Caieroren poemako errematea –"edertasuna existitzen ez diren gauzen izena da"– oroitarazi dit urte berriak.

Ederragorik zer –erantsi dit–, existitzen ez diren justizia edo elkartasuna bezalako gauzei izena ematen saiatzea baino.

Arratsaldeko erosketak

Juan Luis Zabala

http://www.berria.info/blogak/zabala/

Erruduntasun sentimendu lauso batek eragindako desosegua erretzen dit arratsalde denda batera sartu eta zerbait erosteak, dela etxerako janaria, dela beste edozein gauza. Eguna aurreratuegi balego bezala prestaketarako, beranduegi banenbil bezala bizitzaren abenturaz gozatzeko, izatearen poesiari enkargu prosaiko batzuen truke ihes egiten uzten ariko banintz bezala. Barruko ahots baten errieta entzuten dudala iruditzen zait: "Ez al dakik horretarako goiza eta egurtea daudela?".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urtzelai
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ez.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ez. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ez / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ez. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Blanca Roncal | PSE-EEko zinegotzia Arrasaten (1995-2007)

- ▶ Hiru agintaldi egin zituen PSE-EEko zinegotziak
- ▶ Carrascoren erailketa "oso gogorra" izan zela dio
- ▶ Arrasatetik Oñatiko Udalera egin zuen salto

"Uarkape frontoiaren kontra egon ginen, garestia zelako; eta ez ditu bete orduan aurreikusitako helburuak"

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Blanca Roncalek (Auritz, 1950) 12 urte egin zituen zinegotzi Arrasateko Udalean. "Urte gogorak" izan zirela dio eta, batez ere, gogoan ditu Miguel Angel Blanco eta Isaias Carrasco hil zituzteneko egunak. Egun, Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariordea da.

Hiru agintalditan izan zinen Arrasateko zinegotzi. Ze oroitzapen dituzu?

Oro har, urte gogorak izan ziren, une latzekin. Orduan, eta gaur egun ere bai, oso zaila zen abertzalea ez den PSE-EE-PSOE bezalako alderdi politiko baten alde lan egitea, eta are gehiago Arrasaten. Dena den, Arrasatera heldu nintzenezan herritarren alde egin genuen lan. Eta orduan hasitako bideari esker heldu naiz egun nagoen lekura: herritarren alde lan egitearren.

Urte latzak izan ziren. Osokoak oso gogorak izan ziren. Gainera, gizartea zatitu egin zen, ezker abertzaleak terroristak babesten zituelako eta alderdi nazionalistek beste alde batera begiratzen zituelako.

Zeintzuk izan ziren une gogorrenak?

Duda barik, eta batez ere, nigan, pertsonalki eragin handia izan

zuelako, Miguel Angel Blancoren eta Isaias Carrascoren erailketak. Urte haietan beste hainbat erailketa egon ziren, baina gertutasunagatik eta nolako erailketak izan ziren ikusita, bi horiek aipatuko nituzke.

Bestalde, gogoan dut Blancoren erailketaren ondoren, orduko alkate Xabier Zubizarretaren kontrako zentsura mozioa onartu zela erailketa ez gaitzesteagatik. Batasuna Udal Gobernutik bota genuen. Une haiek ere zailak izan ziren.

Nolako hartu-eman izan zenuen gainerako alderdiekin, zinegotziekin?

Elkarbizitza gogorra izan da une askotan. Ni adostasunak bilatzearen aldekoa izan naiz, eta naiz. Guztiok ezagutzen ditugun arrazoiengatik, gainerako alderdiekin hartu-eman ona izatea oso zaila izan zen.

Proiektu asko egingo zenituzten. Zein azpimarratuko zenuke?

Uarkape frontoia aipatuko nuke. PSE-EE proiektuaren kontra egon zen. Oso garestia zen eta, gainera, lanek arazo asko sortu zituzten. Esango nuke Uarkaperekin aurreikusita zituzten helburuak ez direla bete, inondik inora. Ez ditu bete ez helburu ekonomikoak, ezta kirol helburuak ere.

Bestalde, aipatuko nuke EAJ-rekin Udal Gobernuan egon ginen hirigintzako proiektu asko desblokeatu genituela. Gainera, orduan, Udalaren egoera ekonomikoa ona zen, eta horrek aukera eman zigun hezkuntza publikoa sustatzeko ekintzak antolatzeko.

Arantzarik geratu zaizu?

Herriarendako proiektuak aintzat hartuta, esango nuke ezetz. Ez daukat arantzarik. Politikaren oinarria negoziatzea da, eta horretan dihardute PSE-EEko Arrasateko zinegotzietan.

Arrasatetik Oñatira egin zenuen salto zinegotzi izateko. Politikaren beharra daukazu?

"Une gogorrenak Blancoren eta Carrascoren erailketak izan ziren"

"Adostasunak bilatzearen aldekoa naiz; elkarbizitza oso gogorra izan da"



Blanca Roncal. | PSE-EE

Ni beti egon naiz prest PSE-EE-ren beharretarako. Oñatiko zerrendan nire beharra zutela jakin nuenean, ez nuen bitan pentsatu. Urte batzuetan inork ez zuen alderdi sozialistaren zerrendako kide izan gura, beldurragatik. Gaur egun ere oso zaila izaten

"Alkatearen kontrako zentsura mozioarekin Batasuna bota genuen Gobernutik"

"Oso zaila da PSE-EErendako hauteskundeetako zerrendak osatzea"

da hauteskundeetako zerrendak osatzea.

Zer moduz Oñatin?

Agintaldi bakarra egin nuen han, baina oso oroitzapen onak ditut. **Ezberdina da Arrasaten edo Oñatin zinegotzi izatea?**

Ezberdintasun nabariena lan kargari dagokiona da. Arrasaten lan handiagoa nuen. Bestalde, zailagoa zen Arrasaten lan egitea.

Nola heldu zen Blanca Roncal politikara?

Arrasaten hasi nintzen. Debagoieneko Ospitalean egiten nuen lan, eta ikusi nuen nola mespretxatzen zituzten abertzaleen ideiak ez zituzten herritarrak. Hori ikusita, PSE-EEra afiliatu nintzen, eta ondoren zinegotzi kargua hartu nuen Arrasaten, eta gero Oñatin. Esango nuke ideologia kontuan hartuta sartu nintzela politikan.

Gremioen gida



Jatetxeen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAUKAZU?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida



Profesional liberalen gida



HERRIAK

ONATI

Laguntzaz beteriko brisa freskoa Kolonbiako Las Brisas auzorako

- ▶ Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio Taldea dirua batzen ibili da hango proiektu baterako
- ▶ Kolonbiakoaz gain, beste hainbat proiektu ere egin dituzte behartsuenei laguntzeko

IRATI GOITIA | OÑATI

Osasun etxea Haitin, Queta komunitatearentzat ura ponpatzeko sistema Argentinan, ikastetxea Beninen, ile-apaindegia Paraguain... Horiek dira Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio Taldeko kideek egindako proiektuetako batzuk. Eta beste hainbat dituzte abian.

Euren helburua izaten da dirua batzea, herriko misiolari bat dagoen herrialdean proiektu zehatz bat garatzeko. "Herriko jendeari laguntzen saiatzen gara. Gainera, ezagun bat tartean bada, beti izaten da ikusgarriagoa egiten duzun proiektua eta nora bideratzen duzun dirua", adierazi digu Amaia Ugarte taldeko kideak.

Abegi-etxea Kolonbian

Azken urtean esku artean izan duten proiektua izan da Kolonbiako Las Brisas auzorako eraikin bat egitea. Kasu horretan, Mari Karmen Markuleta moja oñatiarra izan da lotura.

Bogotako auzo behartsua da Las Brisas eta hantxe bizi dira Bogotara aukera ekonomiko bila doazenak eta gatazka armatutik ihesi joandako nekazariak. Bada, jende hari laguntzeko helburuarekin ekin zioten abegi-etxe bat egokitze proiektuari. Eraikinak hainbat erabilera izango ditu: umeei eskolak emateko eta jatorduak eskaintzeko erabiliko da, kontsulta mendikoak pasatzeko, gaixorik eta bakarrik dauden zaharrei laguntzeko...

2010. urtean hasi zuten proiektua eta dagoeneko batu dute behar zuten dirua. Hasieran, 25.000 euro batzeko konpromisoa hartu zuten, baina, azkenean, 16.000 bideratu-



Abegi-etxea eraikitze lanetan. | OÑATIKO PASTORAL BARRUTIKO MISIO TALDEA

ko dituzte proiektura, beste laguntza batzuk jaso dituztelako. Eraikina jada eginda dago. Orain bidaliko duten dirua etxea barrutik atontzeko erabiliko da, eta zorrak ordaintzeko.

Hainbat ekintza dirua batzeko

Ekintza ugari egiten dituzte urtean zehar dirua batzeko; besteak beste: Inauterietan txokolate-jana, Gabonetan parrokiaren egiten den kontzertuan mahaia jartzeko dute

dirua batzeko eta laguntza eskararak egiten dizkiete enpresei eta Udalari. Elkartasun afariak ere egiten dituzte hiru hilabete behin. Bidaurretako fraideek duten lokalean egiten dituzte. "Afari irekiak dira eta edonor etor daiteke. Ostean, nahi duenak borondatea uzten du. Izan ere, elkartzeko aitzakia izaten da. Gure helburu bakarra ez da dirua batzea, jendeak beste errealitate batzuk ezagutzeko nahi izaten dugu. Hala,

Oñatin dagoen misiolaria gonbidatzen dugu, hura dagoen tokian zer egiten duen transmiti diezagun, edo, bestela, gure proiektuen berri ematen dugu", dio Ugartek.

Beste hainbat proiektu

Aurten jasotako dirua Kolonbiara bideratu dute, baina diru apur bat geratu zaie eta horrekin bi partida egingo dituzte: batetik, aurretiaz izandako proiektu baterako, Queta komunitatearendako,

3.000 euro bideratuko dituzte ponpatze sistema beste toki baten jartzeko. Bestetik, Argentinako JuJuy probintzian okindegi bat jartzeko beste 3.000 euro bideratuko dituzte, bertakoei ofizio bat emateko eta diru-sarrera bat izan dezaten.

Haitira eguzki lanparak bidaltzeko dirua batzen ere ibili dira, lurrikarak argindar gabe utzi zituen-eta asko eta asko.

Hurrengo erronka, Malin

Orain, Malin kokatu dute iparra. Ugartek azaldu digu Joxean Larrañaga Oñatiko parrokoak talde bat duela, Mali Elkartasuna izenekoa, eta lan asko egiten dihardutela herrialde hartan; tartean, eskola bat. Umeendako lo egiteko aterpetxea eraiki behar dute orain han. Izan ere, kilometro askora bizi dira asko eta ezin dute egunero joan-etorrian ibili. "Gure proiektua bideratuko litzateke egun osoa eskolan pasatzen duten haur horiek egunean jatordu bat izatea ziurtatzera". Ugartek zehaztu digu badituztela sail batzuk landuta, baina azken urteetan lehorre handia bizi izan dutela eta uzta barik gelditu direla. Beraz, dirua izango litzateke umeek aurten eta hurrengo urtean jatekoa izan dezaten.

Laguntza jasotzeko prest

Hileko bigarren egubakoitzean elkartzen dira, 20:00etan, Garaiko lokalean. Ugartek esan digu laguntzeko prest dagoen edonor esku zabalik hartuko dutela. Dirua emateko bi kontu dituzte: Kutxa-ko 2101/0057/56/0123311268 eta CLPko 3035/0005/31/0050032013.



Abegi-etxe sukaldian emakumea lanean. | OP.B.M.T.



Las Brisas auzoa. | OP.B.M.T.



Jana berotzeko duten sukaldia. | OP.B.M.T.



Bergaran, bizikleta zirkuitua izan zuten umetxoek. | EDU MENDIBIL



Espinakak, tipulak eta bestelako landareek ikusmina sortu zuten txikitxoeren Oñatin. | MIREIA BIKUÑA



Eskoriatzan, uretako parkea jarri zuten. | MAIDER ARREGI



Trena deskantsatzeko aprobeztatu zuten hainbatek. | MIREIA BIKUÑA

DEBAGOIENA

Toki aldaketak ez du eraginik izan Txikilandian

Gabonetako haur parkeetan amaigabea izan da aisialdi eskaintza; denetarik izan dute neska-mutikoen

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Puzgarriak, ohe elastikoak, karroka, tailerrak, kontsolak... Asperzteko astirik ez dute izan etxeko txikiak egunotan. Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan Gabonetako jolas parkeak jarri

dituzte, eta horietan eskaintza zabalena topatu dute.

Eskoriatzan izan ziren lehenak, abenduko azken astea aprobeztatu zuten-eta jaialdia egiteko. Ohikoa den moduan, lehenengo bi egunetan igerilekuan jarri zuten

parkea. Askotariko puzgarriak izan zituzten eskura. Abenduaren 28 eta 29an, kiroldegiko kantxak hartu zuen lekukoa.

Landareekin gustura

Gainerako herrietan urte berriarekin batera zabaldu zituzten parkeak. Arrasaten, Musakolan beharrez, Uarkapen egin dute aurten Txikilandia. Tokia gutxienezkoa dela agerian utzi dute arrasatearrek; Txatxilipurditik balorazio ona egin dute-eta. Bergararrek eta oñatiarrek ere ezin hobeto ibili dira azken egunotan. Bergaran, esaterako, billar jokoa ibiltzeko aprobeztatu zuten hainbat gaztetxok. Bestalde, Oñatin, oso harrera ona izan zuen aurten lehen aldiz jarritako landareen gunek; tipulak eta bestelakoak landatzen ikasi zuten han.



Karaokean ederto moldatzen direla erakutsi zuten Arrasaten. | JOKIN BEREZIARTUA



OÑATI

AMAI TXINTXURRETA

Herria hobeto ezagutzeko aukera

Taldetan banatu eta herria ezagutzen eman zuten egueneko goiza Oñatiko gaztetxoek. Eskuetan herriko plano hartu eta kaleetan gora eta behera ibili ziren. Esaterako, Txandako denda bakoitza planoan zein tokitan dagoen zehaztu behar izan zuten, eta horretarako, herritarren laguntza jaso zuten neska-mutikoen. Oñatirekin lotura zuten hainbat galdera ere erantzun behar izan zituzten gaztetxoek; urduri xarmak ikusi genituen, guztiek nahi zuten-eta azkarrenak izatea.



ELGETA

JOSETXO ARANTZABAL

'Nossa' kantu ezaguna Espaloian

Betiko euskal kantuekin batera, *Nossa, nossa assim voce me mata* bezalako kantu ezagunak dantzatu zituzten zapatu iluntzean Elgetako Espaloian. Gabonetako egitarauaren harira, 10 eta 16 urte bitarteko neska-mutilendako disko festa antolatu zuten ludotekakoek; hiru orduz egon ziren gaztetxoak gorputza mugitzen.



Aretxabaletan ere zaldi gainean egin zuten ibilbidea. | JOSETXO ARANTZABAL



Bergarako Mizpirualden ere pozik hartu zituzten Erregeak. | MONIKA BELASTEGI



Erregeak Eskoriatzan. | A. TXINTXURRETA



Arrasaten, Erregeen bisita iraun zuen bitartean, lasai asko egon zen jaio berria. | JOSETXO ARANTZABAL



Oñatin, Gaspar Erregeari opariak eskatzen. | MIREIA BIKUÑA

DEBAGOIENA

Opariz eta ilusioz beteta etorri ziren hiru Errege Magoak gurera

Jendetza batu zen Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako kabalgatetan

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Olentzeroren lekukoa hartu zuten eguenean ekialdetik iritsitako hiru Errege Magoek, ilusioa eta alaitasuna ekarriz, bereziki txikitxoaren artean. Arrasaten, Ber-

garan eta Oñatin zaharren egotzetan geldiuinetxo egin zuten lehenengo, eta han bizi direnen artean oparitzoak banatu ostean, kaleetan barrena murgildu ziren hirurak. Zain zituzten umeak.

Ilunkerarekin batera hasi ziren Erregeen kabalgatak Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan; jendetsuak izan ziren guztiak. Arrasaten, morroi, zaindari,

danbor jole eta umez osatutako abesbatza ondoan zutela, zaldi gainean Garibai etorbidean hasi zuten ibilbidea, eta plazara heldu bitartean gozokiak banatu zituzten haurren artean. Plaza-

ra iristean jaiotza biziduna bisitatu zuten, haurrek abesten zuten bitartean.

Traktorea opariekin

Bestalde, Bergaran, Bizarzurik umeen gutunak jaso zituen kabalgata hasi aurretik; eta Arrasaten bezala, Bergaran ere traktore baten beharra izan zuten Erregeek. Oñatin, ostera, Udal Musika Bandak ondoan zutela egin zuten guztiek plazan hasitako ibilbidea. Azkenik, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere pozez zoratu ziren gaztetxoak Erregeak zaldi gainean iritsi zirenean.



BERGARA

Dantza alaiak eta klasikoak Zabalotegi

Bergarako herria dantzan jarri zuen Patxi Monterok atzo Zabalotegin. Ume eta gurasoei eskainitako saio irekian Nafarroako *Katadera* dantzatu zuten, beste askoren artean, han batutako 70 lagunek. Jarraian, helduendako bakarrik antolatutako dantzaldian, berriz, Europa osoko dantzaldiak ikasteko aukera izan zuten 50 dantza zaleek; besteak beste, Errusiako *Troika* eta Errumaniako *Hora Romaneasca* dantzatu zuten. Datorren hilerako hitzordua ere egin zuten: otsailaren 5ean izango da.



ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL

2012rako aurrekontua onartu dute Bilduren eta Aralarren babesarekin

Abenduaren 26ko ezohikoan onartu zen; EAJk eta PSE-EEK aurka bozkatu zuten eta PP ez zen egon

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Abenduaren 26an egindako ezohiko osokoan Bilduk eta Aralarrek onartu zuten 2012rako aurrekontua. Hau da, PSE-EEK eta EAJk ez zuten begi onez ikusi. Eta, ez onartzeaz gain, oposizioak gogor kritikatu zuten aurrekontua. EAJk, esaterako, prozedura kritikatu zuen. Jeltzaleek uste dute oposizio alderdiak "kanpoan utziz" eta "gehiengo absolutuaren erabilera" eginez onartu dela 2012rako aurrekontua. Joan den astean Inazio Azkarragaurizar alkatea eta Iratxe Zeziaga Ogasun zinegotzia izan ziren Arrasate Irratian; jeltzaleek esandakoak ukatu egin zituen alkateak: "Ez da egia oposizioa ez dugula kontuan hartu. Alderdi guztiak egon gara, erraztasun guztiak jarri dizkiegu eta gertu egon gara azken unera arte akordiora heltzeko".

Sozialistek, bestalde, Udala Gobernuaren programarik eza eta lidergo falta, enpleguaren gainean ez dela inongo politikarik egin eta euskal presoei bideratzen zaien dirulaguntza salatu zuten, besteak beste. Salaketoi

horrela erantzun die alkateak: "Programa eta lidergo falta Bildu gobernuan dagoen toki guztietan aipatzen dute eta horrek ez du inolako ekarpenik egiten. Enpleguari dagokionez, Estatuan eta Jaurlaritzan egin ez dutena guk Udalean egitea eskatzen dute, agian, eta, azkenik, esan presoei ematen zaien laguntzak preso guztiendako direla, ez bakarrik politikoendako".


Lehentasuna ongizatea da

Eztabaidak eztabaida, Bilduren eta Aralarren botoekin eta EAJren eta PSE-EEren kontrako botoekin onartu ziren 2012rako aurrekontuak -PP ez zen egon-. Aurrekontu orokor finkatua 34.884.546 euro izango da. Udalarena berarena -Aukea eta Iturbide erakunde autonomoenak kontuan hartu barik- 31.162.825 euro izango da, hain justu, iazkoa baino %4,92 handiagoa (29.700.120).

Ongizatea bermatzeak izango du lehentasuna: "Apustu irmoa egingo dugu oinarri sozialeko programak, ekimenak, laguntzak



Abenduaren 26ko osoko bilkura, aurrekontua onartzeko bozketa unean. | J.B.



eta lanak mantentzearen alde", esan zuen Zeziagak. Eta honakoa gaineratu zuen: "Pertsonengan eta herriaren neurria egindako proiektu txikiak egingo ditugu".

Gastu handiena, zerbitzuetara

Gastuei dagokionez, Zerbitzuetan (%40,06), Pertsonal Sailean (%9,47) eta Ongizate Sailean (%7,39) izango dira gastu handienak. Zerbitzuetan, Zeziagaren arabera, azpikontratatuak zerbitzuek

"pisu handia" dute: "Beharrezko zerbitzuak dira eta kostuak berriro aztertzen gabiltza, zerbitzu zuzenena aukeratzeko". Zerbitzuon artean daude, besteak beste, lorezaintza, kale eta eraikinen garbiketa, garraio publikoa eta garabia. Pertsonal Sailera bideratu den partida "garrantzitsua" da, Udalaren "baliabide nagusia" zerbitzua ematea delako eta zerbitzu hori pertsonak eskaintzen dutelako. Azkenik, Ongizatera diru kopuru handia bideratu dute, "gutxien daukatenen beharrik asetzeko" aurrekontuak direlako: "Gure helburua nagusia langabeei, emakumeei, gazteei eta etorkinei dagozkien eskubiak bermatzea da", adierazi zuen Zeziagak Arrasate Irratian.

Mugikortasuna, osotasunean

Urte berriari begira Udalaren erronka nagusia izango da mugikortasunaren arazoari irtenbidea ematea. Baina gaia osotasunean aztertuko dute; hau da, afera berean landuko dituzte, besteak beste, garraio publikoa, aparkalekuak, TAO sistema eta garabia. Aurrekontuez aparte, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren (HAPO) berrikuspina abian dela gogora ekarri du Udalak. Lehen fasean dira; otsailaren 5era arte erakusketa dago Kulturaten, herritarren iritziak jasotzeko.

Azkenik, Udalak arrasatearrangandik hurbil egon gura du: "Egunero egiten dugun lana baliagarria dela sentiarazi nahi diegu herritarrei".

Herriko ondarearen alde lan egiteko zientzia elkarteak

J.B. | ARRASATE

1990tik 1993ra abian izan zen Arrasate Zientzia elkarteak birsortu egin dute. Herriko ondarea ikertzeko, ezagutarazteko eta defendatzeko batu dira orduko bazkide batzuk -Javier Bengoa eta Jose Angel Barrutiabengoa,

kasu- eta egun gaian interesa duten zenbait lagun: Joxe Guridi, Iñigo Arregi, Arantza Otadui eta Juan Ramon Garai, besteak beste. Diotenez, lan egiteko "gogotsu" daude: herritarrei dei egin diete ondare kontsidera daitekeen edozeren berri emateko.

Ateak zabalik edonorendako

Aprendices eskolaren eraikin zaharraren ataria aukeratu zuten aurkezpenarako, galtzeko arriskuan dagoen balio handiko ondarearen adibide. 1990tik 1993ra egindako hainbat proiektu gogoratu zituzten, eta baita egiteke geratutako beste zenbait ere. Oraindik "talde txikia" direla diote, eta ateak zabalik dituzte edonorendako. Bat egiteko modurik errazena, e-posta: arrasatezientziaelkartea@gmail.com.



Guridi, Arregi, Bengoa, Barrutiabengoa, Otadui eta Garai, aurkezpenean. | J.B.



Goikobalukoak zilarrezkoarekin itzuli ziren Erreteriatik

Goikobalu abesbatzako haur eta gaztetxoek zilarrezko garaikurra irabazi zuten abenduaren 31n Erreterian egin zen Gabon abesti sariketa probintzialaren 65. edizioan. 1996a ezker hartzen dute parte txapelketan eta urrezko saria 2006an eta 2008an lortu zuten. Zilarrezko garaikurra, aldiz, 2005etik 2012ra urte guztietan lortu dute. 2011 ezin hobeto amaitu zuten, beraz. Urte berriari begira beste hainbat proiektu dituzte.

Pilatesa egiteko hastapen ikastaroan izen-ematea, 13ra arte

Aukeak pilatesa egiteko oinarriko irizpideak eta teknikak ezagutzeko hastapen ikastaroa jarriko du abian. Izen-ematea zabalik dago hilaren 13ra arte. Izan ere, ezinbestekoa da hastapen ikastaro hori egitea pilatesko ikastaroetan parte hartzeko; horrekin lortzen da ikastaroen maila ez jaistea ikasle berri bat sartzen denean. Urtarrilaren 16tik 26ra egunero egongo dira saioak, goiz eta arratsalde. Orduetegi zehatzen berri izateko, deitu 946 77 16 77 telefono zenbakira.

Kiroldegian abonatuak direnek 17,88 euro ordaindu behar dituzte eta abonatuak ez direnek, berriz, 28,88 euro.

AEDren irrintzi ikastaroa otsailaren 11ra atzeratu da

AEDk azaroan abian jarri zuen ELKARTrUK egitasmoaren barruan, urtarrilaren 21erako irrintzi ikastaroa antolatu zuen. Hala ere, ikastaroa otsailaren 11ra atzeratu dute. Goikobalu Gazteko zuzendari Raket Murgiondoren gidaritzapean, ikastaroak bi orduko iraupena izango du, 11:00etan hasi eta 13:00ak arte. Ikastaroan parte hartzeko bost euro ordaindu behar da eta dirua ELKARTrUK egitasmoa bideratuko da. Izen-ematea aurrez egin behar da, 943 77 12 28 telefono zenbakira deituta edo aed@aedelkartea.com helbidera idatzita.



AEDko Itxaro Artola, Maite Agirre eta Maitena Arana, lehiaketaren kartela eskuetan. | JOKIN BEREZIARTUA

Palindromorik onena aurkitzeko lehiaketa abian da berriro ere

Bigarren urtez antolatu du AED elkarteak palindromo lehiaketa, iazko harrera ona ikusita

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Iaz erantzun ona izan zuen lehiaketak, eta aurten ere esaldi kapikuen bila hasi dira AEDn. Palindromoak, parte-hartzaileek gura adina, otsailaren 15era arte aurkez daitezke AED elkarteak bulegoetan, edo aed@aedelkarte.com posta helbide elektronikora bidalita. Nahi beste aurkeztu bai, baina hizkuntza aldetik zuzenak eta inoiz argitaratu edo beste lehiaketaren baten saritu gabeak behar dute izan.

Iazko uzta polita

Zerua bete da urez, Aurtean urruna errua eta Nire mihia adorez, zero da, ai hi, Miren esaldiak izan ziren iaz, lehen urtean, aurkeztu zituzten batzuk, baina Juan Mari Agirreurreta aretxabaletarraren *Utzi penak Ane; piztu!* palindromoak irabazi zuen sari orokorra. Arrasateko palindromorik onena, oster, Aitor Bengoaren *Atzo, arotza, zeruak erreka urez aztora ozta* izan zen. Bada, aurten ere bi kategoria egongo dira: oroko-

rra, izango dituen Debako Txindurri-Iturri landetxe-sagardotegian bi lagunendako sagardotegiko afaria, logela eta gosaria; eta Arrasate mailakoa, sari moduan Txondorra erretegian bi lagunendako etxeko menu berezia izango duena.

Otsailaren 15a, epea

Palindromoak otsailaren 15a baino lehen mezu bidez bidali beharko dira AED elkartera, aed@aedelkarte.com helbidera. Dokumentu bi igorri behar dira mezuaren barruan: batean, palindromoa aurkeztuko da, ezizen batekin; bestean, erabilitako ezizen bera eta egilearen datuak (izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa). Epaimahaia osatuko dute Marcos Gimeno palindromogileak, Oskar Elizburu Erdu-AEK euskaltegiko zuzendariak eta Amaia Arana Udala Euskaltegiko zuzendariak, eta baloratuko dira balio literarioa eta artistikoa, luzera eta aberastasun semantikoa.

Lagunari labankada eman ziolakoan gizonezko bat atxilotu zuten Gabon zahar egunean

Kalean utzitako odol arrastoari jarraituta aurkitu zuten erasotua etxebizitza baten

J.B. | ARRASATE

Erasoa Gabon zahar egunean gertatu zen, San Andres kaleko etxebizitza baten: eztabaida gogor baten ondorioz, gizonezko batek labana sartu zion haren lagunari, Ertzaintzaren oharren arabera. Erasoren ondorioz, Debagoieneko Eskualde Ospitalera eroan zuten zauritua eta han geratu zen ingresatuta, bularraren inguruan zauriak zituela.

Eztabaida eta labankada

Zapatuan, 15:45 aldera, izan ziren gertaerak. Herrizaingo Sailak aditza eman duenez, eztabaidan hasi ziren bi lagun, eta, halako baten, batak besteari eraso egin eta 15 zentimetroko labana sartu zion bularraren inguruan; bada, zauritua

han bertan odoletan utzi, eta ihes egin zuen.

Ertzainak, abisua jaso eta bertaratu zirenean, ohartu ziren atarian eta eskaileretan odola zegoela eta arrastoek etxebizitza batera eroaten zituztela. Etxebizitzaren ate aurrean topo egin zuten gizonezko batekin, bularreak zauriak zituen, bizi-lagunak alboan zituela.

Erasotzailea, etxe inguruan

Zauritua ospitalera eroan, eta ingresatu egin zuten. Horren ostean, ertzainak ustezko erasotzailearen bila hasi ziren. Etxe inguruan aurkitu zuten lasterrera, eta atxilotu egin zuten. Ustezko erasotzailea, 43 urteko gizonezkoa, komisariara eroan zuten, eta epailearen aurrean deklaratu beharko du.



Giranice zuzenean. | FACEBOOK

Giranice taldearen musika berezi eta landua egunean, hilaren 12an, Kooltur Ostegunak saioan

J.B. | ARRASATE

Bonberenea txarangak eta Porrotx pailazoak eskainitako saio berezi eta dibertigarriekin ekin zioten urte berriari Kooltur Ostegunak ekimenekoek, baina horrekin hasi besterik ez da egin. Eguenean bertan Giranice taldeak joko du, ohiko leku eta orduan, gaztetxean, 22:00etan.

Hain zuzen ere, Orioko Giranice taldeak joko du. Bilbao Hiria lehiaketan hirugarren geratu eta gero, dagoeneko kalean dute lehen lana (<http://giranice.bandcamp.com/album/giranice> helbidean, doako deskargan). Saudade taldeko kideek osatzen dute Giranice, eta, saiakera bertan, melodia eta erritmoetan sakondu dute, gitarra barik, biolina da bizkarrezurra eta mezuak barik egoera animikoak dituzte abestien ildo. Nahiz eta

post-rock edo ambient rock etiketak eman lekizkiekeen, ezerean gaintik berezko izaera aldarrikatzen duen taldea da; are gehiago, inguruan, egiten duten musika estiloaren adibide askorik ez dagoen neurrian.

Urtarrileko programazioa

Gramones taldeak, berriz, hilaren 19an joko du. Gasteizko taldea da eta Ramones taldeari tributua egiten diote; Obligaciones taldeko abeslaria zena dago proiektuaren atzean. Eta hilaren amaieran Keu Agirretxe gitarra jotzaile ondarrutarrak joko du. Aspaldiko ezaguna da hura, eta, makina bat talde eta proiektutan parte hartu eta gero, orain bakarka hartu du izena. Gainera, otsailarako asmoak aurreratuz, Petti eta Xabi bikoteak joko du.



JON BEREZIBAR

Jaiotzaren eszenen erakusketa San Frantziskon

Atzora arte, Jesusen jaiotzaren askotariko eszenak erakusten dituen maketa bilduma izan dute erakusketa moduan San Frantzisko elizan. Gabonetan izan dute erakusgai, elizan bertan, arratsaldean. Jesusen jaiotzaren eta haren inguruan Bibliak kontatzen dituen eszenak irudikatuz osatu dituzte maketak.

Herribus berriak, garraio publikoa sustatzeko

- ▶ Kontsumo aurrezte eta erosotasun handiagoa autobus berriekin
- ▶ Zerbitzua indartu egin dute, herritarrek autobusa erabil dezaten

EDU MENDIBIL | BERGARA

Olentzerok urbano edo herribus berriak ekarri dizkigu bergarroi. Hilaren 2a ezker ari dira lanean autobusak: "Zerbitzu eraginkorra, ekologikoa eta eroso", Udaleko ordezkarien hitzetan.

Ibilgailu bereziak dira; izan ere, GLP gasarekin eta gasolinarekin dabilzan autobus hibridoak dira; ekologikoak eta ohiko autobusak baino askoz isilagoak. Modu horretan ibiliko diren Euskal Herriko lehen hiri-autobusak izango dira. 22 pertsonarendako lekua daukate, eta ezinduendako sarbidea.

Herri barruko autobus zerbitzua hobetzea izan da Udalaren asmoa: bi linea izango ditu herribusak, 20 minutuko maiztasuna egunero eta autobusean bertan karga daitezkeen txartelen bidez ibiliko da.

Jesus Elortza alkatea hauxe esan Gabonetan autobus berriak aurkeztu zituztenean: "Udalak garraio publikoaren aldeko apustua egin du, besteak beste, apar-kalekuaren arazoari irtenbidea emateko. Modernitate iritsi zaiugu autobusok eta erabiltzaileek urbanoa ibiltzea baino ez daukate hori frogatzeko. Esan bezala,

orain bergararrei dagokie Udalak egindako ahalegin horri erantzutea".

Aste osoan

Esan bezala, 20 minutuan behin igaroko dira autobusak ohiko geralekueetatik, 07:00etatik 21:00etara. Zapatuetan 08:50etik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara ibiliko dira, baina 40 minutuko maiztasunarekin, eta domeketan eta jaiegunetan, berriz, zapatuetan bezala, baina zertxobait geroago hasita, 10:10ean, hain justu. Ibilbide bakoitzeko txartelak 1,10



Gabonetan aurkeztu zituzten herribus berriak: Spica Urban modelo. | URKAN



Elortza alkatea eta beste herritar batzuk herribus berria probatzen. | J. BEREZIARTUA



Ezinduendako sarbidea ere badute.

euro balio du, baina, kargatzeko txartelak erabiliz gero, 0,60 euro ordainduko dute herritarrek ibilbide bakoitzeko.

Bi linea

Bi linea dira, beraz. Urdinak honako geralekuak ditu: Zabala, Ekonomatoa, Ozaeta, Zubiaurre 25, Martoko 2, San Antonio 5, Mintegi, Erregetxo Plaza, Ariznoa plaza, Arrurriaga, Bolu, Burdiñate, Zubieta, Super Amara, Amillagako biribilgunea, Boni Laskurain, Alkabieta, Herri Lagunak, Ibargarai 48, Torrekua, San Antonio 10, Martoko 2, Zubiaurre 25, Ozaeta eta Ekonomatoa. Eta gorriak, beste hauek: San Lorenzo, Zubieta, Burdiñate, Bolu, Boni Laskurain, Alkabieta, Herri Lagunak, Ibargarai 48, Torrekua, San Antonio 10, Martoko 2, Zubiaurre 25, Ozaeta, Ekonomatoa, Zabala, Ekonomatoa, Ozaeta, Zubiaurre 25, Martoko 2, San Antonio 5, Mintegi, Erregetxo plaza, Ariznoa plaza, Arrurriaga, Bolu, Burdiñate, Zubieta, Super Amara eta Amillagako biribilgunea.

Zerbitzuaren gaineko argibide gehiago www.herribusa.com webgunean edo 943 76 59 42 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

'Peter Pan' musikala prestatzen hasi dira Musika Eskolako arduradunak

Arduradunak oso pozik azaldu dira 'Olentzero & Co' ikuskizunak izan duen harrerarekin; abenduan Bilbon eta Iruñean erakutsi zuten lana

A. TXINTXURRETA/E.M. | BERGARA

Olentzero & Co! musikalaren emanaldi sorta amaituta, Bergarako Musika Eskolako badauka dagoeneko etorkizunerako beste proiektu bat esku artean: *Peter Pan* musikala. "Protagonistak eskolako abeslari txikiak izango dira eta *Peter Pan* lanaren ingelesezko bertsio bat euskaratu dugu horrekin orain lanean hasteko", esan digu Valen Moñuxek, *Olentzero & Co!* musikaleko zuzendari artistikoak.

Dagoeneko, beraz, lanean hasteko gertu daude. *Olentzero & Co!* musikala baino muntaia xumeagoa, txikiagoa izango da *Peter Pan*. Hala ere, herritar ugari hartuko dute parte, eta bertako protagonista izango diren gazte-txoek oso pozik hartu dute berria.



Valen Moñuxek moldatu du euskarara James M. Barrieren lan ezaguna. | A.T.

DATUA

2.500

IKUSLE

Bilboko bi emanaldietan
1.200 ikusle eta Iruñekoan
1.300 izan zituen
Olentzero & Co!-k joan den
abenduan.

Bultzatzaileen asmoa da ahalik eta azkarren hasteko ikuskizunarekin lanean eta urte honetan bertan estreinatzea.

'Olentzero & Co'

2010eko emanaldien arrakastaren ondoren, 2011ko abenduan Bilbon eta Iruñean eskaini dute *Olentzero & Co!* musikalean parte hartzen duten 200 lagunek. Bilbon bi emanaldi egin zituzten, Campos Eliseosen, eta Iruñean emanaldi bakarra izan zen, Baluartean. Antolatzaileak oso pozik daude musikalak izandako harrerarekin.

OHARRAK

BASERRI INGURUNEKO PLASTIKO BILKETA

Plastiko bilketa zerbitzuarekin jarraituz, Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak aditzera eman du hurrengo bilketa urtarriaren 24an egingo dutela. Hauxe jasoko dute: siloa estaltzeko eta belar boletan erabiltzen den plastiko beltza; berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; eta, azkenik, berotegiko plastiko zuria. Bergaran, Ugarrizan (granja parean), Murinondon, trenbide ondoan eta San Juango eliza aurreko plazan egingo dute bilketa. Argibideak: 943 76 25 47.

SAHARAREN ALDEKO LAGUNTZA

Sahararen aldeko janari bilketa egiten ari da Bubisher. Aurtun ere egoskariak (lentejak, garbantzuak eta beste), pasta, olio, azukrea, atun eta sardina latak, helduendako fardelak eta konpresak batzen dihardute herriko dendetan eta udal-txean.



Iritzi artikuluarri eta poesiari eskainitako moduluen ostean, ipuinak idazten erakutsiko dute UNEDen urtarrilean. | GOIENA

Idazle Eskolan ari diren herritarrendako dirulaguntzak emango ditu Udalak

Ipuinak idazten ikasteko ikastaroa urtarriletik aurrera Edorta Jimenezekin; hilean behin, idazle edo sortzaile baten hitzaldia antolatzen dute UNEDen

EDU MENDIBIL | BERGARA

UNEDeko Idazle Eskolak antolatu dituen modulu eta hitzaldietan parte hartzeko laguntzak emango ditu Udalak 2012an. Idazten eta ozenki irakurtzen trebatzeko ikastaroak eskaintzen dihardu Idazle Eskolak.

Dagoeneko amaituta daude iritzi artikuluarri eta poesiari eskainitako moduluak eta urtarrilean ipuinak idazten ikastekoa hasiko da Edorta Jimenez idazlearen eskutik. Zortzi zapatutan eskainiko da, 10:45etik 12:00etara.

Era berean, urtarrilean zabalduko dute antzerkiko moduluan apuntatzeko epea eta martxoan izango da ozenki irakurtzen trebatzeko ikastaroa.

Izen handiko egileak

Bestalde, hilean behin, idazle edo kultura-sortzaile baten hitzaldia izaten da; urtarrilaren 21ean Julen Arriolabengoa idazlea izango da, *Jaun Zuriaren askazia* bere liburuaren jiran jardungo duena. Euskara jatorrian hartu dute aurten hizpide, eta, Arriolaben-

goaz gain, hizlari izango dira Patxi Zubizarreta, Juan Antonio Urbeltz, Jon Sarasua, Xamar, Fredi Paia eta Aitor Furundarena. Esandako moduan, moduluetan eta hitzaldietan parte hartzeko interesa duten bergararrek Udalaren dirulaguntza jasoko dute. Laguntza matrikularen %75erainokoa izan liteke lana dutenen artean eta %100erainokoa ikasle eta langabeen kasuan. Argibide gehiago Bergarako Udaleko webgunean edo Euskara Zerbitzuan, udaletxean.

Internet ikastaroak urtarrilean KZgunean

E.M. | BERGARA

Urte berriarekin batera Internet ikastaroak antolatu dituzte Irizar jauregiko KZgunean. Urtarrilaren 16tik 27ra Interneten nabigatzen erakutsiko dute, astelehenerik egubakoitzera: goizez (09:00etatik 11:00etara) eta arratsaldez (16:00etatik 18:00etara) egin ahal izango da ikastaroa; doan, gainera. Beste honako saioak ere iragarri dituzte arduradunek: Qr Kodeak urtarrilaren 11n jorratuko dituzte, 09:00etatik 11:00etara; Google Maps eta Google Earth, urtarrilaren 13an, 16:00etan hasita; eta informatika lainoan (drop-box, yosendit eta scribd) urtarrilaren 17an, 18:00etatik 20:00etara.

IT txartela

Bestalde, IT txartela ateratzeko aukera ere eskaintzen du Bergarako KZgunea. Hurrengo azterketak izango dira gaur, astelehena, 16:00etatik 18:00etara; hilaren 12an, ordu berean; eta hilaren 18an, 11:00etatik 13:00etara.

KZgunea, esandako moduan, Barrenkaleko Irizar jauregian dago, hirugarren solairuan, eta astelehenerik egubakoitzera dago zabalik, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 76 38 65 telefono zenbakian edo *tutor.bergara@kzgunea.net* helbide elektronikora jo dezakezue.

Herrixa Dantzan: hurrengo hitzordua, otsailaren 5ean

Herrixa Dantzan egitasmoak atzo eman zion hasiera 2012ko egutegiari. Aurrerantzean, hileko lehen domekan batuko dira, leku eta ordu berean, Zabalotegin 18:00etan. Hurrengo hitzordua otsailaren 5ean izango da; 18:00etatik 19:00etara, ume eta gurasoak elkarrekin dantzan arituko dira. Ondoren, 19:00etatik 20:30era, dantzazale helduentzako saioa izango da: Euskal Herriko eta Europako beste eskualde batzuetako dantza tradizionalak, sokan, taldean, bikoteka..., denetarik. Udaleko Kultura zerbitzuak antolatu du eta doanekoa da. Agindutako orduan azaltzea besterik ez dago.

Bergara Kirol Elkartean zozketan saritutako zenbakiak

Bergara Kirol Elkartean Gabon zaharretan egindako zozketan honako hauek izan dira saritutako zenbakiak: lehen saria, egoitzan ikusgai izan duten Gabonetako saski ederra, 43.554 zenbakiari egokitu zaio; bigarren saria (Ecuador bidaia agentziarekin asteburuko egonaldia hotel baten) 40.086 zenbakiarendako izan da; eta, azkenik, Multiopticasen opari sorta 50.310 zenbakidun txartelak jasoko du.

Sariak jasotzeko epea urtarrilaren amaierara arte dago zabalik. Saridunak agertu ezean, honako hauek dira ordezeko zenbakiak, hurrenez hurren: 50.600, 1.599 eta 39.679.



Mariskadaren irabazlea

Ohitura bilakatu denez, Bergarako ezker abertzaleak mariskada bat zozketatu zuen abenduaren 24an. Kostata izan bazen ere, azaldu zen mariskadaren irabazlea: 286 zenbakidun txartela izan zen irabazlea eta Juan Luis Agirrek eraman zuen mariskada. Argazkian, Agirre irabazlea eta Amagoia Aristegi agertzen dira. Ezker abertzaleak eskerrak eman nahi dizkie zozketan parte hartu zuten guztiei.



Udaleko egutegiak eskuragarri oraindik

Azken urteetan egindakoari jarraituz, Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak 2012ko egutegia kaleratu du. Jorge Murgiondo, Juanjo Lopez, Felix Idigoras, Imanol Mondragon, Pedro Mari Arregi, Jose Agustin Gurrutxaga, Joseba Leturia eta Ina Azpeitia argazkizaleen irudiak batzen ditu egutegiak. Leku guztietara bidaltzeko ahalegina egin du Udalak, baita baserri auzoetara ere. Postontzietan sartzeko egutegia tolestu beharra zegoen tokietan, atarietan etxe bakoitzerako bana laga dute pilotxoan. Hala ere, arrazoitxeraren baten jaso ez bada, oraindik ere badaude zenbait ale eta interesatuek Udaltzaingoko bulegora jo dezakete egutegia eskuratzera.

Bilduren aldeko botoekin 2012ko aurrekontua onartu zuten

- ▶ EAJk kontra bozkatu zuen abenduaren 22an egindako osokoan
- ▶ Udal Gobernuak ia 16 milioi euro izango ditu gastatzeko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Abenduaren 22an osoko bilkura egin zuten eta 2012ko udal aurrekontua onartu zuten Bilduren aldeko botoekin: 15.816.149 euro, iaz baino %2,7 gehiago (2011ko aurrekontua 15.347.079 euro izan zen). EAJk kontra bozkatu zuen; izan ere, Bilduk egindako aurrekontu proposamenean udal langileen soldatak %2,82 igotzea aurreikusten zen, eta lan hitzarmenaren edukiarekin ados ez egoteagatik aurrekontuen kontra bozkatu zuen EAJk. "Guk beste bozka bat geneukan gertu, baina lan hitzarmenaren nondik norakoa ezagutu dugunean, bozka aldatzea erabaki dugu. Osokoaren aurreko egunean jakin dugu %2,82ko igoera proposamena. EAJk ez du negoziazio horretan parte hartu", esan zigun Lourdes Idoiak. Dena den, "positiboki baloratu" zuten urtea bukatu aurretik aurrekontuak onartzeko Udal Gobernuak egindako lana.

Sarrerak eta gastuak

2012ko aurrekontuen arabera, sarrerak %2,20 igoko dira, zergak, tasak eta ordenantza fiskalak igo egingo direlako. Gastuen atalak ere igoera izango du: %2,70. Kontu-hartzaileak esan zuen Oñatiko Udalak zorpetze mailaertaina duela. Bestalde, gaineratu zuen 2012ko aurrekontuetan krediturik eskatzeko asmorik ez dutela. 2010ean eta 2011n onartu baina erabili ez ziren kredituak erabiliko dituzte.

Igoera nabarmenenak

2011ko aurrekontuekin alderatuta, antzeko diru kopurua izango dute 12 batzordeek. Igoera nabarmenena Ingurumen batzordeak

izango du: %64 igoko da. Besteak beste, Zero Zabor filosofia bultzatzeko ekintzak egingo dituzte; eta berrerabilpenaren, birziklapenaren eta kontsumo arduratsuen alde egingo dute. Berdintasun batzordeak 42.000 euro izango ditu emakumearen egotzaren diagnostika egiteko, Berdintasun Planaren diseinua eta garapena egiteko eta formazioa eta sentsibilizazioa bultzatzeko.

Auzo eta Landa Garapen batzordeak %43,62ko igoera izango du. Diru partida handiena kontsumo taldearendako eta artzainendako Berezaon lokal bat erosteko erabiliko dute: 70.000 euro. Gainera, 8.000 euro bideratuko dituzte herriko produktuak promozionatzeko.

Bestalde, Euskara eta Hezkuntza batzordeak 600.000 euro pasa izango ditu (iaz baino %18,99 gehiago): euskararen Plan Estrategikoa egiteko 18.000 euro, UEMAn sartzeko 15.000 euro, Herri Eskolako galdara aldatzeko 75.000 euro (Eusko Jaurlaritzak %60 itzuliko dio Udalari) eta Oñatiko euskara sustatzeko 5.000 euro, besteak beste.

Jaitziera handiena Hirigintza eta Zerbitzu batzordeak izango du, %16 gutxiago. Diru partida handiena ETEO zaharreko eraikina mantentzera bideratuko dute: 15.000 euro.

Inbertsioak

Inbertsio handiena (ikus goiko taula), berriz, Larrañako kirolgunea egiteko izango da: futbol zelaia berritu eta skate parkea egiteko 243.600 euro izango ditu Udalak. Bestalde, osasun etxe inguruko irisgarritasuna egiteko 180.000 euro erabiliko dituzte.



Udal zinegotziak abenduko osokoan. | MIREIA BIKUÑA

AURREKONTUAK BATZORDEKA

BATZORDEAK	2011	2012	ALDEA
Ogasuna	1.771.716,85	1.873.678,66	%5,75
Euskara eta Hezkuntza	504.321,49	600.109,69	%18,99
Berdintasuna	0,00	42.000,00	-
Auzoak eta Landa Garapena	330.991,13	475.368,99	% 43,62
Ongizate Zerbitzuak	1.731.591,47	1.820.015,18	% 5,11
Ingurumena	131.360,30	215.897,79	% 64,36
Kirolak	969.746,69	1.167.206,89	% 20,36
Kultura	822.755,47	833.061,89	% 1,25
Partaidetza eta Komunikaz.	4.151.116,56	4.526.665,58	% 9,05
Sozioekonomia	591.049,48	545.999,01	-%7,62
Hirigintza eta Zerbitzuak	4.109.128,35	3.441.065,48	-%16,26
Gazteria	231.301,63	275.080,00	%18,93
GUZTIRA	15.345.079,42	15.816.149,16	%2,7

ITURRIA: OÑATIKO UDALA



MIREIA BIKUÑA

2011ko kirolari onenak saritu zituzten

Abenduaren 23an banatu zituzten Oñati kirol sariak. 2011ko kirolari eta kirol talde onenak saritu zituzten: Xabier Luis (duatloietan egindako lanagatik), Aloña Mendiko igeriketa taldea, Jabi Gomez (entrenatzaile onena), Luis Mari Etxeberria (txirrindularitzaren alde egindako lanagatik), Jon Urtzelai (kirol ibilbidea), Markel Irizar (Andaluziako Itzulia irabaztearen) eta Iban Altube zena. Ekitaldian egon ziren udal arduradunak, saridunak eta haien lagun eta familiak.

Euskararen biziraupenari buruzko udal egutegia salgai dago Turismo Bulegoan, euro baten truke

Euskararen biziraupenari buruz Bitoriano Gandiagak idatzitako olerkia jasotzen du 2012ko udal egutegiak. 800 inprimatu dituzte eta herriko denda, enpresa, ikastetxe, lokal eta bulegoetan zabalduko dute. Soberan geratzen direnak Turismo Bulegoan erosi ahal izango dira, euro baten.

Urdina eta zuria dira egutegiaren kolore nagusiak, eta, herriko jaez gain, beste egun batzuk ere zehaztu dituzte; besteak beste, Aratuste-martitzena, Genero Indarkeriaren Kontrako Eguna eta Euskararen Eguna. Gainera, urteko hilabeteak Oñatiko hizkeran betidanik esan diren moduan jaso dituzte.



Udal egutegia. | GOIENA

ARETXABALETAKO

Ibarra kiroldegia zabaldu artean ingurukoetara joan daiteke


Martxoan zabalduko dute eta bitartean Eskoriatzara edo Arrasatera jo daiteke

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Ibarra izango da kiroldegi berriaren izena, eta ondo bidean martxoan zabalduko dute; hala, jakinarazi du Ana Bolinaga alkateak. Bien bitartean, Eskoriatza edo Arrasateko kiroldegietara jotzeko aukera izango dute aretxabaletarrek.

Adostasuna izena hautatzean

Kiroldegiaren izena aukeratzeko lehiaketa deitu zuen Udalak orain hilabete batzuk, eta 15 proposamen jaso zituzten. Horietako hiru etorri dira bat Ibarra izenarekin, hain zuzen toponimiak dioden moduan: "Eta alderdi politiko guztiekin adostu dugu Ibarra izatea. Erabaki dugu izen proposena dela, kiroldegia dagoen tokiko toponimiarekin bat datorrelako", argitu du alkateak. Datozen egunotan egingo dute lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.



Abonu bereziak ingurukoetan

Kiroldegiaren eraikitze lanek atzerapena izan dute beste behin, eta azken planaren arabera martxoan izango da zabalduko moduan. Bitartean, Eskoriatza eta Arrasateko kiroldegietara jo ahal izango dute aretxabaletarrek, abonua bereziak adostu dituztelako hanga arduradunekin. Eskoriatzako kasuan hiru hilabeterako izango da abonua –urtariletik martxora

artekoa– eta Arrasaten bi hilabeterako –urtarrila eta otsaila–.

Bestalde, kiroldegia kudeatuko duen enpresa hartzeko lehiaketa deia eginda dago eta aurkezteko epea bihar, hilak 10, bukatuko da. Udalak enpresa hautatzen duenean jakingo dira tarifak, eta orduan egingo dute abonatzeko kanpaina, otsail inguruan.

Urbanizatzeko lanak

Kiroldegia bukatu bakarrik ez, inguru guztia ere txukundu egingo dute. Ez zegoela halakorik aurreikusita aurrekontuan jakinarazi du alkateak: "Baina 80.000 euro lortu ditugu urbanizazio txukun eta erabilgarria egiteko". Helburua aparkalekua eta bidegorria egitea baziren ere, lan apalagoak egingo dituzte. Izan ere, erreka tartean egonda diru kostu handia du bidegorria behar bezala egokitzea.

Karmelegiaren obraren gaineko errezitaldia etzi

Karmelegiaren olerkariaren obraren gaineko hitzaldi-errezitaldia egingo du etzi, eguaztena, Tere Irastortza idazle lagunak. Aretxabaletarak idatzitako poesiak errezitatu eta horien nondik norakoen gainean jardungo du Irastortzak.

Loramendi Elkarteak antolatuko du ekitaldia eta udaletxe zaharrean izango da (18:30).

Tai txi eta txi kung ikastaroa egingo dute Basotxon hilaren 12an

Basotxo erretiratuen elkarteak tai txi arte martziala zer den ezagutzeko eta txi kung-aren mugimenduak lantzeko ikastaroa antolatuko du. Eguenean, hilak 12, izango da (17:00) elkartearen egoitzan. Bizitza zentroak eskainiko du eta osasuna eta bizitasuna sustatu eta gorputza eta adimena bateratzeko ikastaroa da.

ESKORIATZA



2012ko orri-puntua. | JOSEBA GABILONDO

Joseba Gabilondok egingo du orri-puntua

M.A. | ESKORIATZA

Udal bibliotekan erabiltzeko orri-puntu lehiaketa deitu zuen Udalak azaro inguruan, eta Joseba Gabilondo eskoriatzarrak irabazi du 1512 lanarekin. 250 euroko saria jaso du horrek.

Lehiaketara 15 lan aurkeztu zituzten –ikusteko moduan daude Udalaren webgunean: www.eskoriatza.net–, gehienak maila handikoak, eta epaimahaiak Gabilondoren irudia aukeratu du. Nafarroako erresuma eta euskara ditu protagonista irudi horrek, eta Bernart Etxeparearen berbekin osatu du.

Irudi horrekin egingo dute 2012an udal bibliotekan erabiliko den orri-puntua, eta erabiltzaileen artean banatu.

Bainuetxeen programan izena emateko epea zabalik

Espainiako gobernuko nagusiaren antolatzen duen termalismo programan izena emateko epea zabalik dago. Otsailetik abuztura bitartean joateko, urtarrilaren 16ra artekoa da epea; eta irailetik abuztura joateko, maiatzaren 16ra artekoa. Argibide gehiagorako Eskoriatzako Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo.

Zaraiaren eta Basotxoren Gabon otzarek badute jabea, Aretxarterenak oraindik ez

M.A. | ARETXABALETAKO

Gabon otzara ugari zozketatu dituzte azken asteotan gurean. Basotxo erretiratuen elkarteak, esaterako, bi banatu zituen eta irabazleak izan dira: Cristina Romano eta Xabier Uralde.

Zarai mendizale taldearen otzara, osterak, Arrasaten bizi den Lurdes Etxenausiak jaso du.

Lehenengoz taldeko bazkide baten eskuetan geratu da saria.

Aretxarteren otzara

Aretxarte merkatariaren elkarteak ere zozketatu du otzara ederra eta zenbaki saritua (130.315) agertzeko epea zapatuan bukatu zen. Ordezko zenbakia duenak, 130.136, jasoko du orain otzara.



Pagaldai erakusleho politena

Kultura Saileko kideek egunotan banatu dituzte Gabonetako erakusleho lehiaketaren sariak, eta lehenengoa Pagaldai pentsuak dendak eskuratu du –250 euro eta plaka–. Bigarren geratu da, Anitua farmazia –150 euro–; eta hirugarren, Aretxabaleta iturgintza –100 euro–. Hamaika saltokik hartu dute parte lehiaketan, eta aurtien lehenengoz, herritarrek ere bozkatu ahal izan dute. Hirugarren saria, Aretxabaleta iturgintzari hain zuzen, herritarrek emandakoa izan da.



Romano, Basotxoko otzararekin; eta Etxenausia, Zaraiakoarekin. | BASOTXO ETA M.A.



Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.

eredu izan
EUSKARAZ
plazera delako!

Aretxabaleta
Udala
EUSKARA SAILA



Urtarrilaren 4an egin zen haur eta gaztetxoendako jolas parkea; jende askotxo erakarri zuen. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Gabonak ekintzez lepo eta aspertzeko astirik gabe igaro dituzte aramaioarrek

Ohiko ekitaldiez gain, 'Bauh Txabal!' antzezlan, Gabonetako jolas parkea eta Errege eguneko bertso saioa izan dira jende gehien erakarri dituzten ekintzak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Amaitu dira Gabonak, eta beraz, 2011 atzean utzi eta 2012ari ondo etorria eman diote aramaioarrek. Hainbat herritarrek Orixolera mendi martxa eginda eman zioten ongi etorria urte berriari.

Udalak eta kultur taldeek egitarau zabala antolatu zuten Gabonetarako. Olentzeroren etorreratik hasi eta urtarrilaren 6an kultur etxean egin zen bertso saiora arte (30. orrian informazio gehiago), ia egunero egon da zerbait. Protagonista nagusiak, nola ez, umeak izan dira: taillerak, ipuin kontalariak, ikuskizunak eta PINera irteera izan dituzte. Horrez gain, jolas parkea joan den eguaztenean heldu zen Aramaioa; haur eta gaztetxo asko elkartu ziren kiroldegian.

Bestalde, programako ekitaldi arrakastatsuen artean kokatu beharra dago Txirritola euskara elkarteak abenduaren 30erako antolatu zuen *Bauh Txabal!* antzezlan. Kultur etxea bete egin zen, eta antolatzaileen arabera, 100 lagun inguru batu ziren Unai Iturriaga bertsolariak egingako eta Jon Zubiaga *Osoron*-ek antzeztutako ikuskizunean.

Abenduaren 30ean Kultur etxea bete egin zen *Bauh Txabal!* ikusteko. | ARTXIBOA

Abenduaren 24an umeek Olentzerori opariak eskatu zizkieten. | I. LOPEZ DE BERGARA

ANTZUOLA

Saharar herriarendako material bilketa egiten ari dira eskola, udala eta Anelkar elkartasun taldea

Tindufen duten elikadura krisia arintzea da kanpainaren helburua

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Aurten ere Saharar Herriaren lagunen Euskal Elkarteek Sahararen aldeko kanpaina jarri dute martxan. Antzuolan abenduaren 27an hasi zen kanpaina eta urtarrilaren 20ra bitartean egingo da; ordura arte batuko dituzte janari eta bestelakoak.

Jasoko dituzten produktuak dira hegaluzea, sardinak oliotan,

arroza, azukrea, pasta, lekaleak eta helduentzako fardelak eta konpresak. Horiek guztiak Eskolan edo Aixa, Eroski eta Kalebarrren dendetan laga beharko dira.

Elikadura krisia arintzeko

Kanpainaren helburua nagusia da elikagaiak batzea, Aljeriako Tinduf kanpamenduan errefuxiatu-

tako sahararrek jasaten duten elikadura krisia ahal den neurrian arintzeko.

Antzuolan eskolak, udalak eta gobernu kanpoko Anelkar elkarteak bultzatu dute zortzigarren aldiz antolatzen den Piztu Itxaropena kanpaina. Esan bezala, urtarrilaren 20ra bitartean batuko dituzte produktu horiek guztiak.

ELGETA

Anthony Blake: "Ikertuko dugu beldurra zer den, eta nola bizi dugun"

Blake 'No vengas solo' ikuskizun berriarekin dator Espaloira urtarrilaren 13an eta 14an

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

"Baliteke norbaitek ukitzen zaituela sentitzea horrelakorik ez dagoenean, edo baten batek berba egiten dizula pentsatzea aldamenean inor ez duzunean". Horrelako hitzekin gerturatu gaitu Anthony Blake mentalista entzutetsuak Espaloian egingo duen ikuskizunera. "Gai oso zailak landuko ditugu", esan du. "Ikertuko dugu beldurra zer den, eta nola bizi dugun".

Portzelanazko papina batekin egingo du ikuskizuna, eta nola ez, ikusleekin. "Ezin dut aulki baten adimena irakurri edo aulki baten arima deitu", esan du Blakek. "Publikoarekin eta publikoarendako egiten ditut beti nire saioak".

Elgetan etxean bezala

"Espaloia, niretzat, esperimentazioarako laborategi zoragarria da. Beti eramaten dut zerbait berriari Elgetara". Duela hilabete batzuk estreinatutako *No vengas sólo* Bartzelonan. "Ez zegoen guztiz nire gustura, eta berrikuntzak egin dizkiot. Azken emaitza hori da Elgetan lehenengo aldiz eskainiko dudana". Blakek azpimarratu du ez dela beldurrezko ikuskizuna. "Gai oso delikatuak landuko ditugu, eta irudi gordinak ikusiko dira; ez dut umeendako gomendatzen ez eta oso sentikorrek diren pertsonendako ere". Ikuskizun biak 22:30ean hasita egingo ditu. Sarrera 18 euro da, 15 euro bazkideendako.



Anthony Blake 'No vengas solo' ikuskizun berria egiten. | ANTHONY BLAKE

LEINTZ GATZAGA

Itxura dotorea hartu du pilotalekuak margotuta

Abenduan ibili dira pintatze lanak egiten

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Pilotalekua margotzea erabaki zuen Udalak eta abenduan, pintatze lan horiek egin ostean, itxura dotorea hartu du. Pilotan jokatu, baloiarekin jolastu, jaialdiak ospatu edo beste edozein ekitalditarako txukun eta

garbi utzi dute. Izan ere, hainbat erabilera ditu plazan dagoen pilotalekuak, eta 2010ean guztiz itxi zutenetik leku txukuna da negu partean, aterpean, jolas egiteko. Inguruko herrietatik ere sarri joan izan dira bertara pilotan jokatzerara.



Margotu ondoren itxura berria hartu duen pilotalekua. | M.A.

URTARRILEKO SARIAK

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

DONOSTIA 2016 KAMISETAK

Bidali KLUBA KAMISETAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

 DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN



IPUINAK UMEENTZAT

Bidali KLUBA IPUINAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

 PAMIELA
argitzailea



ERREMEIXUEN DVD-A

Bidali KLUBA DVD
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

 kutxa  goiena
Bergerako Udala



LIBURUAK

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

 PAMIELA
argitzailea



2012an atera etekina txartelari

 AQUARIUM

AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99
■ Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

 AVIA

AVIA MECA GASOLINDEGIA

Arrasate, 943 79 13 39
■ %2 gasolindegian erregaia erositara.
■ %2 dendako produktuetan

 BEGIONDO OPTIKA

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21
■ -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

 GAHIR

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41
■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.

 Esko Sport

ESKO SPORT KIROL DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96
■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

 GAES

GAES ENTZUMEN ZENTROA

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

 IKER
SUKALDEAK

IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
■ Sukalde osoa erositara, mikrouhin-labea opari.

 LILURA
EDERTZE INSTITUTUA

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71
■ -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
■ -%20 elikagai-intolerantzia proban.
■ -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
■ -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

 MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

 NAREN
FISIOTERAPIA ZENTROA

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89
■ -%15 zerbitzu guztietan.

 RENAULT
AUTOBERRI

RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72
■ -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
■ -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

 TXIKI ZOO
TXAKURAREN BOSTITIGEA
ETA ILE AMINDEGIA

TXIKI ZOO

Aretxabaleta, 943 79 51 15
■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

 TXURI URDIN
Donostia

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA

Donostia, 943 46 44 00
■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
■ -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)
■ -%10 zubi eta oporraldietan.

 ZIENTZIEN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA


ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78
■ %10 deskontua.

ANTHONY BLAKE IKUSTEKO SARRERAK

'No vengas solo' ikuskizunerako sarrerak
Elgetako Espaloia antzokian,
urtarrilaren 13 eta 14an. 22.30ean.
(bina sarrera egun bakoitzeko)

Eskuratzeko deitu asteartetik aurrera:
943 25 05 05



 ELGETAKO
espaloia
KAFE ANTZOKIA

goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta nagusi jokoan eta markagailuan Mondraren aurkako derbian

Oxelek eta Etxabek egin zituzten golak; Aretxabaleta bosgarren sailkapenean eta Mondra, 'kolistari'

EMAITZA

MONDRA
0-2
ARETXABALETA

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Sailkapenak esandakoaren isla izan zen atzo Mojategin gertatu-takoa. Zelaian hobeto kokatuta, merezita irabazi zion UDAk (5. sailkapenean) Mondra *kolistari*. Hasieratik baloiaren jabe izan ziren aretxabaletarrak eta haienak

gol aukera garbienak. Sanchezek izan zuen lehen aukera garbia 30. minutuan, baina Ander atezaina adi egon zen baloia urrunterakoan eta ondorengo Lopezen jaurtiketa arazorik gabe geratu zuen. Handik gutxira, eta atezainaren aurrean bakar bakarrik geratzera zihoa-nean, joko kanpoko posizioa adierazi zion epaileak Oxeli. Zalan-tzakoa epailearen erabakia. Lehen zatia amaitzear zihola, Etxabek ederto errematatu zuen kornar bat buruz, eta Anderrek primeran erantzun. Oxelek beste abisu bat eman zuen buruz baita; gutxia-gatik joan zen baloia kanpora.

Gol psikologikoa

Lehen zatia amaitzear zela eta erortzen ari zela, ederto loratu zuen Oxelek baloia eta ustekabean harrapatu Ander. 0-1ekoa eta gol psikologikoa, justu atsedenauren aurretik min egiten duen horie-tako bat. Messiren keinu ezaguna eginez, Jaime Lopez eta Manolo San Vicente *Zurdi*to zirenei eskai-ni nahi zien gola Oxelek. Ronaldo brasildarraren antzera, dagoene-ko tripatxoa dauka golegile arra-satear beteranoak. Baina kilotoak bakarrik ez, klasea ere soberan, goleko jokaldi horretan erakutsi-tako moduan.

FITXA TEKNIKOA

Mondragon: Ander, Alain, Delpa, Txaoite, Unai, Zabala (Txonan, 60. min.), Lopez, Urza (Gonzo, 56. min.), Xabi, Maku eta Andoni.

Aretxabaleta: Agirregabiria, Gorosabel, Etxabe, Arriaran, Mar, Etxeberria, Eraña (Oianguren, 80 min.), Sanchez (Arrizabalaga, 56. min.), Oxel (Barbero, 85. min.), Hernandez (Badillo, 60. min.) eta Perez (Canas, 87. min.).

Bestelakoak: 450 ikusle inguru atzo Mojategin, horietako asko Aretxabaletakoak. Peña Barandako gaztetxoek Mondra animatu zuten partidu osoan. Isaac Palencia epaileak Anderri, Zabalari, Xabiri, Txonani, Sanchezei, Hernandezi eta Oiangureni atera zien txartela.

Bigarren zatian, erantzuna eman ezinda zegoen Mondra; Xabi bakarregi zegoen puntan eta haren taldekideek nahikoa lan zeukaten UDAkoak eusten. Aretxabaletaren kasuan ezkerretatik zetorren eraso handiena. Aipagarria Etxabek eta Hernandezek egindakoa. Partidua borobiltzeko Etxabek egin zuen bigarren gola, ikusgarria benetan. Perezen erdiraketa bat jaso eta burukada bikain batekin bidali zuen baloia sarera. Amaie-ran, Arrizabalagak jokaldi eder batekin eta Barberok 0-3koa izan zuten hanketan, baina ez zen gol gehiagorik izan Mojategin.



Mondrako eta UDAko bi jokalaririk borrokan atzo, M



dks '11
debagoieneko
IV. kirolsariak

Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 20 ostirala
Elgetako Espaloian | 19:00



ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

KOORDINATZAILEA

arteman
KOMUNIKAZIOA

BABESLEAK

Kanpazar obate
— harrobiak —

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

la Caixa

Debagoieneko nork merezi du herritarren saria?

egin zure proposamena!


www.kirolsariak.com

GABONETAKO IZARRAK | Gabonetako kirol hitzorduen errepassoa | **26**




lojategin. | JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK



"Ez dugu gure jokoa egiterik izan eta aurkaria zoriontzea baino ez dago, hobeak izan dira-eta. Zuloan sartuta gaude, baina liga asko falta da eta partiduz partidu joan behar dugu. Ezin dugu etsi, borrokatu beharra dago"

JON DEL PALACIO | MONDRA



"Garaipen inportantea da guretako eta egia esan pozik gaude egindako partiduarekin. Ez dugu igarri Gabonetako geldialdia. Bigarren golarekin beharbada erabakita geratu da partidua"

BEÑAT ETXABE | ARETXABAETA



OHOREZKO ERREGIONALA

JOSETXO ARANTZABAL

Bergarak eta Beriok husna

Bergarak eta Beriok husna berdindu zuten atzo Agorrosinen. Beriok lidergoa eskura zuen atzo irabazi izan balu, baina donostiarrak berdinketarekin konformatu behar izan ziren. Bergarak ondo eutsi zion Beriori. Saikapeneko zortzigarren tokian dago Bergara. Neka Galanen taldeak Real Unioni bisita egingo dio hurrengo jardunaldian.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak hiru puntu laugarren dagoen Oartzunen zelaiatik

Andoni Azkargortaren taldeak amaitu moduan hasi du urtea, bolada onari jarraipena emanez. Oartzunen zelaiatik jokatuz zuten atzo arratsaldean, ligan laugarren dagoen taldea, eta hala ere, Oñatikoei 1-2 irabazi zuten.

EUSKAL LIGA

Mondrako neskek 1-3 irabazi zioten atzo Osasunari

Mondrak 1-3 irabazi zuen atzo Tajonarren. 1-0 aurreratu ziren nafarrak eta bigarren zatian etorri ziren arrasatearren golak: Ainhoa Letek penaltiz egin zuen banakoa eta Melani Concepcion eta Ainhoa Alonsok egin zituzten beste biak.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

 <p>2 URTE</p> <p>1000 b/min 6 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>SUNNY 610 GARBIGAILUA</p> <p>275 € edesa</p>	 <p>2 URTE</p> <p>1200 b/min 6 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>3F-2612 GARBIGAILUA</p> <p>315 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>1200 b/min 8 Kg</p> <p>A++ Saikapen energetikoa</p> <p>F-2812 GARBIGAILUA</p> <p>430 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>A- Saikapen energetikoa</p> <p>2LF-013SX ONTZI-GARBIGAILUA</p> <p>395 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>8 Kg</p> <p>B Saikapen energetikoa</p> <p>1SF-84CE KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA</p> <p>399 € FAGOR</p>
 <p>2 URTE</p> <p>A Saikapen energetikoa</p> <p>LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X INDUKZIO PLAKA HOLLY-I3S</p> <p>625 € edesa</p>	 <p>2 URTE</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>STA 1410 B/N LABEA ETA BITROZERAMIKA</p> <p>360 € aspes</p>	 <p>2 URTE</p> <p>1440 x 545 x 600</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>ZEN-F211 HOZKAILUA</p> <p>310 € edesa</p>	 <p>7 URTE</p> <p>"BRITA" OPARI</p> <p>1850 x 600 x 600</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>NO FROST</p> <p>FFJ-6725 HOZKAILUA</p> <p>575 € FAGOR</p>	 <p>7 URTE</p> <p>2000 x 600 x 600</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>NO FROST</p> <p>FFK-6835X HOZKAILUA</p> <p>675 € FAGOR</p>

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >> 45%
B >> 25%

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

SASKIBALOIA

Natra Aloñak kolpe gogorregia jaso zuen Zubikoan zapatuan, Burgosen aurka

Hirugarren laurdenean aurretik izan arren, oñatiarrek 18 puntuko aldearekin galdu zuten

EMAITZA

NATRA ALOÑA

77-95

BASKET BURGOS

FITXA TEKNIKOA

Natra Aloña: Iñigo Zabaleta (3 puntu), Jon Lekuona (2), Mikel Biain (2) Alex Anduaga (3), Gorka Kintana (19), Jagoba Gamarra (13), Eneko Blanco, Iban Lizarralde, Asier De la Iglesia (17), Iñigo Biain (10) eta Ander Mallabiarrena (8).

Basket Burgos: Rodriguez, Ortega (15), Lozano (16), Valles (3), Toledo (2), Arnaiz (10), Gomez (19), Liparteliani (9), Gonzalez (4), Tobar (17) eta Temiño

Beste: 350 lagun inguru Zubikoan. Giro ona harmailetan. 500 bazkide izatera heldu direla jakitera eman zuen zuzendaritzak.

EDU MENDIBIL | OÑATI

Partidu erabakigarria zen zapatuko Xabier Igartuaren taldearendako baina oñatiarrek huts egin zuten etxean Burgosen aurka. Kolpe gogorregia oñatiarrek jaso zutena. Hirugarren laurdenean amaieran aurretik ziren etxeokak (64-62), baina azken laurdenean ez ziren batere fin ibili Natra Aloñakoak eta 18 puntuko aldearekin nagusitu ziren bisitariak.

Ordu erdira arte partidu orekatua jokatu zuten Natra Aloñak eta Basket Burgosek. Hortik aurrera bisitariak izan ziren jaun eta jabe, etxeokoen hutsak aprobetxatuta. 13-33 izan zen azken laurdeneko partziala. Horrela ez dago partidua irabazterik. Lur jota amaitu zuten Igartuak eta haren jokalariek, Burgos arerio zuzena dela eta ezin izan zietelako zaleei garaipena eskaini. Jokalari guztien jarrera, txalagarria; hala ere, momentu era-



Iñigo Biain (14 zenbakiarekin) lehen zatiko erasoko jokaldi baten. Oñatiarrek 10 puntu egin zituen. | JOSETXO ARANTZABAL

bakigarrietan zuhurtzia eta lasatasun falta erakutsi zuten.

Lehen itzulia, amaitzear

Bisitariak aldiz, dena sartzen zuten azken laurdenean. Igartuak partidu amaieran esan bezala, hirukotan zenbaki txarrak zeuzkaten burgostarrek. Oñatira etorri arte. Etxekoek entrenatzaileak agindutako zonako defentsak ere ez zuten esperotako emaitzarik eman eta defentsan nahiko makal ibili ziren oñatiarrek.

Zapatuko porrotaren ostean sailkapeneko behealdean jarraitzen dute oñatiarrek. 2 partidu irabazi eta 8 galdu egin dituzte Xabier Igartuaren mutilek. Lehen itzulia amaitzeko partidu bakarra geratzen da: zapatuan Zornotzan jokatu dute oñatiarrek.

XABIER IGARTUA | ENTRENATZAILEA

"Garaipen bat behar beharrezkoa dugu taldeak konfiantza hartzeko"

Serio-serio zegoen Igartuak partiduabukaturakoan. Haren aurrepegiak ikusi besterik ez zegoen kantxan gertatutakoa jakiteko.

Azken zatian joan zaizue partidua...

Kontrolpean izan dugu partidua eta horrela galtzeak min bikoitza ematen du. Azken laurdenean ez dugu asmatu jokoarekin gozatzen eta beraiei, aldiz, dena atera zaie. Tre-



Xabier Igartua. | E.M.

mendako kolpea jaso dugu.

Orain, zer?

Aurrera jarraitu behar. Oraindik liga asko falta da, eta galdutako partidu asko irabazteko gai garela uste dut. Hala ere, garaipen bat behar dugu konfiantza hartzeko.

Zaleak chapeau gaur ere...

Horrenbeste jende etorri eta esku hutsik joateak min ematen digu.



Ainhoa Lazkano zenaren gurasoek (erdian) omenaldia jaso zuten atsedenaldian. | E.M.



Natra Aloñako jokalariek eta Sustraitxo, partidu atarian. | E. MENDIBIL

'Sustraitxo', azken fitxajea

Maskota berriaren aurkezpena egin zuen zapatuan Natra Aloñak. Sustraitxo du izena eta Zubikoako giroa berotzen ahalegindu zen partidu osoan zehar: dantzan, txaloka eta atsedenditan saskira botatzen baita: ez zuen punteria onik erakutsi. Etxeko taldeari ez zion zorte onik eman zapatuan. Hurrengoan izan beharko.

SASKIBALOIA

Gabonen bueltan, Bergararen bosgarren garaipena atzo

Senior mailako taldeak 66-52 irabazi zion Aluminios Francisco Alberdi Urretxuko taldeari

E.M. | BERGARA

Soraluce Bergarak 66-52 irabazi zion Aluminios Francisco Alberdi taldeari, atzo arratsal-

dean Laberagarrietan. Jon Beistegi etxeokoen entrenatzaileak pozik azaldu zen bere jokalariek egindako lanarekin. Haren

ustez, garaipena eskuratzeko gakoak egindako defentsa ona eta kontraerasoa izan ziren. Atsedendian urretxuarrak ziren aurretik, 27-19.

Bigarren itzulia hastear

Gipuzkoako ligako lehen itzuliko azken partidua zen atzokoa eta sailkapeneko 11. tokian dago Bergara. Hurrengo asteburuan Easori egingo diote bisita. Aukera ona sailkapenean gora egiteko, donostiarrek azken aurreko tokian (13) daudelako.



Begararren erasoko jokaldi bat atzoko partiduan. | JOSETXO ARANTZABAL



Iazko DKS sariaren ekitaldian saritutako kirolariak. | JOSETXO ARANTZABAL

KIROL SARIAK

Urtarrilaren 20an banatuko dituzte DKS sariak, Elgetan

2011n nabarmendu diren kirolariak sarituko dituzte; herritarrek ere botoa eman ahal izango dute

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Badatoz Debagoieneko kirol esparruan lanean diharduten pertsona eta erakundeak saritzea helburu duten DKS sariak. Aurtengoa laugarren edizioa izango da, eta Elgetan egingo dute ekitaldia. Hala, bertan batuko dira 2011n ibarrean gehien nabarmendu diren kirolariak, eta baita herritarrek estimuan dituzten kirolariak ere, herritarrek euren aldeko botoa eman ahal

izango dutelako internetez (www.kirolsariak.com).

Dagoeneko aditzera eman dituzte herritarren sarirako hainbat hautagai, eta tartean daude Oihana Kortazar, Iban Letamendi, Aitor Mendizabal edota Maialen Axpe moduko izenak. Horiak, baina, proposamenak baino ez dira, herritarrek aukera librean izango dutelako euren nahi duten proposamenak egiteko, zergatia azalduz.

Guztira zortzi sari

Ekitaldian guztira zortzi sari banatuko dituzte, eta aurreratu moduan, herritarrena izango da horietako bat. Gainontzekoak epaimahaiko kideek erabakiko dituzte, eta seguru lehenago botatuko izenak kontutan hartuko dituztela sari horietarako. Baina, kirolari onenekin batera izango dira, besteak beste, entrenatzaile onenaren saria, babesle onenarena edota kirolari anonimoarena.

Aurtengo edizioak ez du Udalen babesia izango, eta Goienak hartuko du ekimena antolatzeko ardura, Arteman laguntzaz. Horretarako, Mondragon Unibertsitatearen, Kanpanzar Harrobiak enpresaren eta La Caixaren babesia izango dute.



NATURGAS/BBK TRANSANTARTIKA

BAT BASQUE TEAM

Gaur iritsi daitezke helmugara

Eskuartearen duzuen alea amaitzeaz geneukanean jaso genuen, atzo gauean, Naturgas/BBK Transantartika espedizioa kideen azken oharra: 54 egun zeharkaldian egin ostean helmugatik 69 kilometro daude, eta domekako saioan 170 kilometro egin zituzten. Hala, posible da munduan zortzi lagunek egin duten zeharkaldia gaur amaitzea.

ZIKLOTURISMOA

Debagoieneko Txirindulariak taldeak zabalik dituzte zikloturista berriak hartzeko

Iritsi da 2012ko zikloturismoko lizentziak berritzea, eta tramite horiek egiteko laguntzaz batera, Debagoieneko Txirindulariak taldeak bertako kide izateko eskaintza egin du. Taldearen egoitza Arrasateko Ignacio Zuloaga kalean dago (10, sotoa), eta urtarrilaren 12an eta 19an (19:00-20:00) zabalik egongo da kide izan nahi duenak izena eman dezan (605 744 275).

ZIKLISMOA

Luxenburgon aurkeztu dute Irizarren talde berria, Radioshack-Nissan taldea

Radioshack-Nissan talde indartsua aurkeztu dute Luxenburgon, profesional mailan garaipen mordo eskuratzera "derrigortuta" dagoen taldea. Ekonomikoki indartsu -Irizarrek onartu du Mallorcara bidean lehenengoz egin behar zuela bidaiari hegaldi pribatua- Radioshack eta Leopard Trek taldeen fusioak sekulako ziklistak batu dituzte talde berean. Tourra dute helburu, baita Iparreko klasikoetan ere protagonista izatea.

MENDIA

Besaide mendi elkarteak urtarrilaren 19an, eguna, egingo du urteko batzar orokorra, Kulturaten

Arrasateko Besaide mendi elkarteak urtarrilaren 19an egingo du urteroko batzar orokorra. Lehenengo deialdia 18:45ean izango da, eta bigarrena 19:00etan, Kulturaten. Horrekin batera, urtarrilaren 21eko eta 22ko astebururako Formigalera eski alpinoko egitera joateko irteera antolatu du mendi taldeak. Izenemateak astelehen, martitzen eta eguaztenero, 18:30etik 19:30era. Informazio gehiago www.besaide.org webgunean.

ESKUBALOIA

Aloñako neskek Liderraren kontra galdu

Goren mailako Aloñako neskek Bera Bera liderraren kontra galdu zuten zapatuan Zubikoan (14-25). Goizean, berriz, hiruko torneo jokatu zuten gizonezko Aloñak, Bergarak eta Urolak; mahoneroek irabazi zuten lagunartekoa.




JOSETXO ARANTZABAL

AUTO TELEGIDATUAK

Zortzi orduz ibili ziren auto telegidatuak gidatzen, Eskoriatzan

Dos Pistones taldeak antolatuta erresistentziako auto telegidatuaren lasterketa egin zuten zapatuan arratsaldean Eskoriatzan. Goizaldeko 01:00ak arte egon ziren bederatzi lagun, hiru taldeetan banatuta, zirkuituari ehunka itzuli ematen. Sergio Frutosek, Jose Sanchezek eta Javi Martinek irabazi zuten lasterketa.



JOSETXO ARANTZABAL



Iazko DKS sariaren ekitaldian saritutako kirolariak. | JOSETXO ARANTZABAL

KIROL SARIAK

Urtarrilaren 20an banatuko dituzte DKS sariak, Elgetan

2011n nabarmendu diren kirolariak sarituko dituzte; herritarrek ere botoa eman ahal izango dute

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Badatoz Debagoieneko kirol esparruan lanean diharduten pertsona eta erakundeak saritzea helburu duten DKS sariak. Aurtengoa laugarren edizioa izango da, eta Elgetan egingo dute ekitaldia. Hala, bertan batuko dira 2011n ibarreen gehien nabarmendu diren kirolariak, eta baita herritarrek estimuan dituzten kirolariak ere, herritarrek euren aldeko botoa eman ahal

izango dutelako internetez (www.kirolsariak.com).

Dagoeneko aditzera eman dituzte herritarren sarirako hainbat hautagai, eta tartean daude Oihana Kortazar, Iban Letamendi, Aitor Mendizabal edota Maialen Axpe moduko izenak. Horiak, baina, proposamenak baino ez dira, herritarrek aukera librean izango dutelako euren nahi duten proposamena egiteko, zergatia azalduz.

Guztira zortzi sari

Ekitaldian guztira zortzi sari banatuko dituzte, eta aurreratu moduan, herritarrena izango da horietako bat. Gainontzekoak epaimahaiko kideek erabakiko dituzte, eta seguru lehenago botatuko izenak kontutan hartuko dituztela sari horietarako. Baina, kirolari onenekin batera izango dira, besteak beste, entrenatzaile onenaren saria, babesle onenarena edota kirolari anonimoarena.

Aurtengo edizioak ez du Udalen babesia izango, eta Goienak hartuko du ekimena antolatzeko ardura, Arteman laguntzaz. Horretarako, Mondragon Unibertsitatearen, Kanpanzar Harrobiak enpresaren eta La Caixaren babesa izango dute.



NATURGAS/BBK TRANSANTARTIKA

BAT BASQUE TEAM

"Dena ematen ari gara"

Hego Polotik pasa ostean Hercules badiara ziztu bizian doaz Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltza. Egubakoitzean bidali zuten azken oharrean emandako datuak ez ziren nolanhikoak, 162 kilometro egin zituztelako egun bakarrean. Ez zen jardunaldi makala izan, zoru zakarra izan zutelako, berriro ere sastrugiez. Azken ahaleginean daude.

ZIKLOTURISMOA

Debagoieneko Txirindulariak taldeak zabalik dituzte zikloturista berriak hartzeko

Iritsi da 2012ko zikloturismoko lizentziak berritzeko ordua, eta tramite horiek egiteko laguntzaz batera, Debagoieneko Txirindulariak taldeak bertako kide izateko eskaintza egin du. Taldearen egoitza Arrasateko Ignacio Zuloaga kalean dago (10, sotoa), eta urtarrilaren 12an eta 19an (19:00-20:00) zabalik egongo da kide izan nahi duenak izena eman dezan (605 744 275).

ZIKLISMOA

Luxenburgon aurkeztu dute Irizarren talde berria, Radioshack-Nissan taldea

Radioshack-Nissan talde indartsua aurkeztu dute Luxenburgon, profesional mailan garaipen mordoa eskuratzera "derrigortuta" dagoen taldea. Ekonomikoki indartsu -Irizarrek onartu du Mallorcara bidean lehenengoz egin behar zuela bidaiari hegaldi pribatua- Radioshack eta Leopard Trek taldeen fusioak sekulako ziklistak batu dituzte talde berean. Tourra dute helburu, baita Iparreko klasikoetan ere protagonista izatea.

MENDIA

Besaide mendi elkarteak urtarrilaren 19an, eguna, egingo du urteko batzar orokorra, Kulturaten

Arrasateko Besaide mendi elkarteak urtarrilaren 19an egingo du urteroko batzar orokorra. Lehenengo deialdia 18:45ean izango da, eta bigarrena 19:00etan, Kulturaten. Horrekin batera, urtarrilaren 21eko eta 22ko astebururako Formigalera eski alpinoko egitera joateko irteera antolatu du mendi taldeak. Izenemateak astelehen, martitzen eta eguaztenero, 18:30etik 19:30era. Informazio gehiago www.besaide.org webgunean.

ESKUBALOIA

Aloñako neskek Liderraren kontra galdu

Goren mailako Aloñako neskek Bera Bera liderraren kontra galdu zuten zapatuan Zubikoan (14-25). Goizean, berriz, hiruko torneo jokatu zuten gizonezko Aloñak, Bergarak eta Urolak; mahoneroek irabazi zuten lagunartekoa.




JOSETXO ARANTZABAL

AUTO TELEGIDATUAK

Zortzi orduz ibili ziren auto telegidatuak gidatzen, Eskoriatzan

Dos Pistones taldeak antolatuta erresistentziako auto telegidatuaren lasterketa egin zuten zapatuan arratsaldean Eskoriatzan. Goizaldeko 01:00ak arte egon ziren bederatzi lagun, hiru taldetan banatuta, zirkuituari ehunka itzuli ematen. Sergio Frutosek, Jose Sanchezek eta Javi Martinek irabazi zuten lasterketa.



JOSETXO ARANTZABAL

Gabonetako izarrak

Kirol hitzorduz beteta izan ditugu Gabonak; hemen errepasoa

XABIER URTZELAI | DEBAGOIENA

Gabonetan herritarrok batzbeste hiruzpalau kilo hartzen ditugula errepikatu dute egunotan komunikabideek. Bada, erretretuan azaltzen direnek ez dute halakorik izan, izerdia botatzeko aitzakia ederrak izan dituztelako. Urtetik urtera geroago eta kirol hitzordu gehiago antolatzen dituzte ibarreko klubek, kirol moda-

litate erabat ezberdinetan, gainera. Santamas jaiak pasa eta ondorengo egunetatik hasitako kirol errepasoa duzue hau, Errege bezperara arte. Tartean egon dira omenaldiak –Mendizabali, esaterako– gogoan ditugun eta dagoeneko gure artean ez dauden laguneroimenezkoak –Txelis, edota Manuel Muñozen omenez egindakoak. Torneo askotan kan-

potik puntako taldeak etorri dira, Ointxe!-ren saskibaloiturneoan, edota Arizmendiren futbolekoan, esaterako. Baina, izan dira gure gaztetxoei zuzendutako txapelketak ere, gehienak, eta horietan neska-mutiko mordoak hartu dute parte: Pilotan Debagoiena osoan, saskibaloian Bergaran, futbolekoan Mojategin eta Ibarra... Datorren urtean, gehiago.



HERRIKO BANDERA AITOR MENDIZABALENDAKO
Antzuolako Udalak omenaldia egin nahi izan zion bigarren mailako lau t'erdiko pilotari txapelkunari. Abenduaren 23an izan zen, herriko plazan. Herriko bandera eman zioten.



ALOÑA ETA BERGARA TXAPELDUNAK IBARRAN
Debagoieneko futbol eskolen arteko Bixente Etxeandia Gabonetako txapelketa bukatu zuten eta hilaren 2an jokatu zituzten finalak. 400 neska-mutiko ibili ziren.



EASO GARAILA OINTXEI-REN GABONETAKO SARIAN
Donostiako Easo taldeak irabazi zuen Ointxe!-k antolatzen duen Gabonetako Saskibaloiturneoaren txapelketa. Abenduaren 28ko finalean 80 eta 65 nagusitu ziren donostiarrak.



GIPUZKOAKO SELEKZIOA IRABAZLE
Manuel Muñozen omenez torneoa jokatu zuten Eskoriatzak, Gipuzkoako selekzioak eta Arabakoak. Finala 26an jokatu zuten.



EMAKUMEZKOEN TXAPELKETA REALEKOENDAKO
Jende asko animatu zen Arizmendik antolatutako Gabonetako Emakumezkoen Torneo jarraitzera. Realak eta Eibarrek jokatu zuten finala (2-0).



BERGARAKO PILOTARIAK 'BARRU'-TAN JOKATZEN
Ohiturari eutsiz Gabonetan Barru-tan jokatu zuten Bergarako pilotariak, eta torneo hori egin zuten Gabonetako Saria jokatzeko hasi aurretik, motorrak berotzen joateko.



MAILA TXIKIETAKO GABONETAKO PILOTA SARIA
Antzuolan jokatu zituzten ibarreko pilotari gaztetxoei Gabonetako torneoaren finala, baina sailkapen partiduak herri askotan izan ziren. Mendizabal izan zen sari banaketan.



ENTRENAMENDU BEREZIA 2011RI AGUR ESATEKO
Arrasate Errugbi Taldeak urte amaierako festa egin zuen abenduaren 30ean. Klubeko jokalar, entrenatzaile eta gurasoak Mojategin batu ziren jai berezia egiteko.



URTEA AMAITZEKO, SAN SILBESTRE
Eskoriatzan eta Oñatin San Silbestre lasterketa eginez amaitu zuten Debagoieneko atleta askok urtea. Eskoriatzakoa berezia izan

zen, brindisa egin ostean Manuel Muñozen omenezko herri lasterketa egin zutelako. Oñatin, berriz, lasterketak parte-hartze galanta izan zuen, 368 lagun batu ziren.



HIRUNAKO SASKIBALOI ARRAKASTATSUA
Bergarako pilotalekua saskibaloi kantxa bilakatu zuten hainbat egunez. Torneo hori antolatu ostean hasi ziren infantil mailako II. Bolintxo Saria.



IRRISTAKETAN
Hanka Labankaren eskutik Iristaketa Eguna egin zuten abenduaren 30ean Labegarietan. Duela bost urte antolatu zuten lehenengoz eta ordutik urteroko hitzordu bilakatu da.



ISTAR DAPENAK ERREKORRA
Arrasateko atleta gazteak abenduaren 29an ondu zuen Euskadiko kadete mailako errekorra pertika saltoan. Realeko atletak 4.01 metroko marka egin zuen.



HEGO POLORA IRITSI ZIREN ABENDUAREN 29AN
Alberto Iñurrategiren espedizioak uste baino azkarrago lortu zuen lehen helburua, Hego Polora iristea. Egun horretan 80 kilometro egin zituzten jarraian.



ANTIGUOKO ONENA 'TXELIS'-EN OROIMENEZKOAN
Urtarrilaren 5ean jokatu zuten Mondrako kide izan zen Jose Luis Iburguren Txelis-en oroimenezko torneo; 400 neska-mutiko batu ziren Mojategin.



BERGARAKO TXAPELKETA REALAK IRABAZI ZUEN
Bergarako Gabonetako Futbol Txapelketako finala jokatu zuten Aretxabaletak eta Realak. Txuri-urdinak bi maila gorago egon arren UDAko gazteak ez dira kikildu (2-1).



Gero eta gehiago dira aldaketa soziala bultzatzeko eragile pribatuek antolatzen dituzten ekimenak. | NODOT PHOTOS

Zazpi gomendio irakurzaletasuna bultzatzeko

L.Z. | ELGETA

Umeek imitazioz ikasten dute. Hala, umeendako lehen pizgarria gurasoak irakurtzen ikustea izango da. Etxean irakurketarako giroa sortzen bada eta gurasoek euren irakurketak umekin banatzen badituzte, eragina handiagoa izango da.

Egunero irakurketarako denbora tartetxo bat hartzea oso positiboa da, baita umeei txikitatik notatxoak uzteko ohitura hartzea ere.

Lehenengo liburutegia

Une berezietan liburuak oparitzen baditugu, irakurketari garrantzi berezia emango diogu. Lagundu umeei lehen liburutegia osatzen. Eman kokapen egokia etxean, eta ipini liburuak eskuragarri. Gurasoen txikitako liburuak oso gustuko dituz-

te umeei. Bide batez, atera udal liburutegiko txartela, eta noizean behin eraman umea liburutegiko liburuen artean gustukoenak aukeratzera.

Erakutsi liburuaren azala, kontrazala, aurkibidea eta hitzaurrea identifikatzen, eta dosifikatu gainerako zaletasunetarako umeak duen denbora. Gogoan izan ikus-entzunezko gizartean bizi garela eta telebistak eta bideo-jokoek denbora luzea kentzen diotela irakurketari.

Emaitza akademiko hobek

Berebiziko garrantzia du umeen artean irakurzaletasuna bultzatzeko. Hainbat ikerketak erakutsi dute irakurtzeko ohitura hartzen duten umeei emaitza akademiko hobek lortzen dituztela.



Umea, irakurtzen. | RICHARD MASONER / CYCLELICIOUS

Aldaketa: osasuntsua bezain beharrezkoa

Itziar Bartolomek aldaketa asmoak ekintzara eramatea aldarrikatzen du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eskolara oinez egitasmoa, *Rusafa* auzo-ekimena, Adventure Playground jolasgune eredu berriak... Itziar Bartolomek hainbat proiektu nabarmendu ditu *Guraso.com* atarian. Leku ezberdinetako adibideak dira; talde txikitatik abiatutako egitasmoak. Txalagarriak iruditzen zaizkio Bartolomek: "Aldaketa batzuek gure esku daude", dio, eta ziurtatzen du aldaketa sozialaren

giltza garrantzitsu bat aldaketa pertsonalen eta talde aldaketen barruan dagoela. "Bada garaia gure esku dauden aldaketak abiarazteko!", dio, eta elikadura, garraio, aisialdi zein kontsumo ohiturak aipatzen ditu, besteak beste.

Nondik hasi

Gure kontsumo jarreraren eta ohituren gainean galdetu behar ei diogu gure buruari. "Nola eragi-

ten dute nire osasunean? Eta inguruan?", dio. Errealistak izan eta gauza egingarrietan pentsatzeko aholkua ematen du, eta aldaketa asmoa poliki-poliki ekintzara eramateko, banakoen talderatzeak sortzen duen indarrak jabetzeko eta maila pertsonalean gauzatzen ditugun aldaketen aldarrikapenak plazaratzeko. "Osasuntsua bezain beharrezkoa da gure eguneroko bizitzan aldaketari lekutxo bat egitea".

'Ikastea' hezkuntza atari digitalak informazioa eta baliabide didaktiko berriak eskaintzen ditu

L.Z. | ELGETA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jarri du abian *Ikastea. hezkuntza.net* ataria. Hezkuntza-sistema osatzen duten eragile guztiendako da eta erabiltzaileen arabera antolatuta dago; ikasleak, familiak, irakasleak eta ikastetxeak. Horiak dira lau sarbide posibleak. Edukiak, berriz, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez irakur daitezke.

Sei atal nagusi

Sei atal nagusi ditu webgune berriak: informazioa eta zerbitzuak, araudia eta hezkuntza-dokumentuak, hezkuntza-zentroak, berrikuntza eta ikerketa, baliabide didaktikoak eta azken berriak.

Atari digital berria erabilia izateko sortu dutela adierazi dute Eusko Jaurlaritzako arduradunek,

"hezkuntza arloko kide guztien topaleku" izateko xedearekin. Hala, herritarren parte-hartzea du helburu, eta webgunean parte hartzeko dei egin die Isabel Zelaa Hezkuntza sailburuak ikasleei, irakasleei, familieei eta ikastetxeei.

Hainbat aukera

Ikasleek, esate baterako, profila sor dezakete, eta guraso eta irakasleek hezkuntza-arlo eta etapa desberdinetarako material eta proposamenak izango dituzte. Kontsultak egiteko aukera ere ematen du. Gainera, eskola egutegia, agenda eta azken berriak ere jasotzen ditu. "Parte-hartzea hezkuntza hobetzeko ezinbesteko elementua da", esan du Isabel Zelaa. "Aldaketak iraunkorrak izatea ahalbidetzen duelako", adierazi du.

Jostailuak batzen erakutsi behar diegu seme-alabei

L.Z. | ELGETA

Sasoi honetan jostailu berri mordo dugu denok etxean. *Consumer* aldizkarian ohartarazi duten moduan, garrantzitsua da umeei erakustea erabili ostean jostailuak batu egin behar direla. Baina zein umeri gustatzen zaio jostailuak batzea? Jolasteko denboraren amaiera dakar, eta astuna egiten zaie. Funtsezkoa da egiteko hori erakargarri egitea.

Jolasaren bidez batu

2-3 urterekin has gaitzke ordenaren ohitura lantzen. Umeek jostailuak batu ditzaten trikimailu ezberdinak erabil daitezke: norik gehiago batu lasterke- ta egitea, abestiren baten errit- mora jostailuak batzea edo *Altzorraren bila* moduko jolasa egitea; hau da, batu beharreko

jostailua deskribatu eta hura lokalizatu eta bere tokira eramaten duen lehenengoa txapel- dun.

Espazio egokia eskaini

Umeak jostailuak batzea nahi badugu, lan hori erraztuko dion espazioa eskaini behar diogu. Objektu talde bakoitzarentzako gune bat ezarri behar dugu, eta etiketa edo marrazki sinbolikoen bitartez jostailu bakoitzaren tokia identifikatzeko modua aurkitu behar dugu.

Hasieran gurasoek erabaki- ko dute jostailuak nola klasifi- katu, baina egokia da umeari zein klasifikazio egin nahi duen erabakitzen uztea. Jostailuak batzen ikasten duen umeak erra- zago batuko ditu etorkizunean liburuak, arropa edo bestelakoak. Ordena ari gara lantzen.

Errefortzu positiboa

Umeek imitazioz ikasten dute, eta giro ordenatuan bizi den haur- rakk errazago bereganatuko du ordenaren printzipioa. Garrantzitsua da jostailuak ondo batzen dituen umeari egindako lana aitortzea eta egin duen ahalegi- nagatik zoriontzia.

Adituek gomendatzen dute haurraren jolasa ez eragozteko, eta ez dute egoki ikusten jostai- lu bat atera aurretik aurrez era- bilitakoa batzeko eskaera egitea. Amaitutakoan batuko ditu jos- tailu guztiak. Haurrak laguntza beharko du hasieran, baina argi egon behar du laguntza besterik ez dela; 5-6 urtetik aurrera baka- rrik batu beharko luke. Eta ez etsi. Azkenean, etsituta, jostailuak guk batzen baditugu, porrot egin dugu. Eraginkorragoa da pazien- tziaz jokatzea.



KULTURA



Arrasateko plazan elkartu ziren pailazoak, txarangoak eta herritarrak gero gaztetxera joateko. | JOSETXO ARANTZABAL

Porrotx eta Bonberenea txarangoak dantzan jarri zituzten haur eta helduak

- ▶ Pailazoek eta Tolosako txarangoak festa giroz bete zituzten kaleak
- ▶ Txatxilipurdik antolatu zuen ekimena, Kooltur Ekintzak babestuta

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Eguenean, arratsaldeko bostetan zen hitzordua Arrasateko plazan. Baina Euskal Herriko pailazo maitatu eta ezagunenaren presentzia iragarrita badago, ohikoena da ekitaldia hasi baino dezenteko lehenago haur eta nagusi pila bat dagoeneko itxaroten egotea. Hori gertatu zen eguenean ere, Txatxilipurdik antolatu eta Kooltur Ekintzak babestutako saioan. Hitzordu berezia zen gainera Errege bezperakoa. Izan ere,

Pirritxek, Porrotxek eta Marimotsek Bonberenea txarangoekin batera diskoa grabatu dute, eta horixe aurkeztera etorri ziren Arrasatera. Ez denak, izan ere Pirritx eta Marimotsek ezin izan zuten bertaratu. Porrotxek eta Patakon piratak baina, ez zuten hutsik egin.

Musika koloretsua

Kolore biziko jakak jantzita, Bonberenea txarangoak gazteen lana izan zen giroa berotzen hastea.

Txaranga estilora moldatutako hainbat doinu ezagun jo zituzten, eta berehala jarri zituzten dantzan bai etxeko txikiak eta baita gurasoak ere. Txikilandiako begiraleak ere bertan izan ziren giroa animatzen, eta gezurretakoa izan arren, plazan ibili zen zezenak susto bat baino gehiago eman zituen. Porrotxen agerpenak guztiak aztoratu zituen, eta ondoren denak gaztetxera abiatu ziren kalejiran, hantxe egin zuten eta ordubeteko saioa.

Saioa gaztetxean

Gaztetxea goraino beteta zegoela igo ziren agertokira Porrotx eta Patakon pirata, eta ohikoa duten legez umorez, baina era berean erantzukizunez, ortzadarraren koloreen esanahia azaldu zieten neska-mutikoei. Ikusleen parte-hartzea bultzatuz, barre algara ugari eragin zituzten haur eta helduen artean. Hitzak alde batera utzi, eta berriz ere gorputza astintzeko garaia heldu zen segidan txarangoekin batera.



JON ALTUNA
BONBEREENA
TXARANGAKO KIDEA

"Disko konpletoa da, hartu-emaneko gure filosofia islatzen du"

Udazkenean argitaratu zen Tolosako Bonberenea gaztetxeko txarangoak eta Pirritx, Porrotx eta Marimotsek elkarlanean egindako diskoa. **Nola sortu zen disko hau egiteko ideia?**

Urte batzuk generamatzen Pirritx, Porrotx eta konpainiarekin elkarlanean. Goserren Arrosa diskorako bertsio bat grabatzeko aukera izan genuen. Ahotsa sartzea erabaki genuen eta pentsatu genuen txarangoaren kolore eta alaitasunarekin uztartzeko pailazoak zirela aproposenak. Bertsioa oso polita irten zen, eta bi aldean artean diskoa egiteko gogoia piztu zen.

Nolako izan da disko hau egiteko lana?

Gura izan genuen eurei nolabait ere omenalditxo bat egitea, eta pailazoendako Xabier Zabalak konposatutako abesti esanguratsuenak aukeratu genituen. Nahi genuen lana egiteko erraztasun guztiak eskaini zizkiguten, eta elkarrekin ere lan asko egin dugu. Musika estilo ezberdinak lantzen dira diskoan, eta hainbat kolaborazio ere badaude; esaterako, Zea Mayseko Aiora Renteriaena, Doctor Deseoko Francisena eta Goseko Ines Osinagarena. Oso disko konpletoa da, eta gure hartu-emaneko filosofia islatzen du.

Aurkezpenak egiten ari zarete pailazoekin. Nola bizi duzue euren fenomenoak?

Behin hasierako urduritasunak kenduta hainbeste jenderen aurrean jotzea izugarria da, egindako lanak fruitua eman duela ikusteak. Eskertzekoa da eman diguten aukera. Gainera bi formatu uztartzeko aukera ematen digu: kalejiran zein agertoki gainean aritzeko.

"Izugarria da hainbeste jenderen aurrean jotzea"

Magiarik behar ez duen erregea

"Arrasatera beti gustura etortzen gara, hemen auzolana, irudimena eta alaitasuna direlako nagusi" zioen Porrotxek gaztetxera heldutakoan. Eta badirudi arrasatearrak eurak ere gustura zeudela Porrotx herrian izatearekin. Asko izan ziren berarengana muxu, besarkada edo argazki baten eske joan zirenak. Nagusienak irrikaz hurbiltzen zitzaizkien, txikiak heldur puntu batekin baina era berean txundituta. Pailazoak guztiendako zuen txantxa edo hitz goxoren bat. "Titia ematera eta fardelak aldatzera" etorri zela gaineratu zuen. Ez zuen halakorik egin beharrik izan han zeuden guztiak poltsikoan sartzeko.



Porrotxek txikiak eta handiak, denak bereganatu zuen agertoki zenean. | JOSETXO ARANTZABAL



Jexux Mari Irazu eta Manex Agirre, bertso saioko une batean. | XABIER IGOA

Umorea nagusi Aramaion egindako Gabonetako Bertso Saioan

Manex Agirre, Julio Soto, Odei Barroso eta Jexux Mari Irazu aritu ziren

TXOMIN MADINA | ARAMAIO

Umerez betetako bertsoak gus-tatzen zaizkionarentzat saio aproposa izan zen egubakoitz iluntzean Aramaioko kultura etxean entzungai egon zen Gabo-

netako Bertso Saioa. Herriko bertso eskolak antolatu zuen, Udalak lagunduta eta lau izan ziren agertoki gainean ibili ziren bertsolariak, laurak ere Euskal Herriko txoko ezberdinetatik

etorritakoak: Aramaioko bertako Manex Agirre, Jexux Mari Irazu gipuzkoarra, Barakaldon jaio arren betidanik Urruñan bizi izan den Odei Barroso eta egungo Nafarroako txapelkun

den Julio Soto. Denak ere ederki asko ibili ziren Xabier Igoak jarritako gaiak lantzeko orduan.

130 pertsona inguru bildu ziren kultura etxeko aretoan, aipatu bezala umorez beteta egon zen bertso saioa ikusteko. Animaliek, gainera, protagonismo berezia izan zuten, bertso bat baino gehiagotan animalia kontuak izan ziren-eta nagusi. Puntuka gai librean ere bide beretik jo zuten bertsolariak, eta ez zuten elkarri adarra jotzeko aukerarik galdu. Dena den, gai serioagoek ere izan zuten euren lekua saioan zehar. Hala, zapatuan Bilbon presoan eskubideen alde egindako manifestazioari buruz ere aritu ziren bertsoan.

Giro onean burutu zen, beraz, ordu eta erdi inguru iraun zuen bertso saioa, eta antolatzaileak eurak ere pozik geratu ziren ordu eta erdi horrek emanda-koarekin.

Koadrilen arteko txapelketa

Aramaion egindako bertso lehenengo bertso saioa izan zen egubakoitzekoa, baina ez da azkena izango. Izan ere, urtar-rilaren 21ean aurkeztuko dute Arabako Koadrilen arteko Bertso Txapelketa, eta txapelketa horretan herriko bi taldek hartuko dute parte. Ondorioz, lehia-ketan zehar egingo diren bi saio behintzat Aramaion izango dira; baita finala ere. Martxoaren 24an egongo da jokoan final handia.

Loquilloren kontzerturako sarrerak eskuragarri

J.B./T.M. | ARRASATE

Jose Maria Sanz Beltranek, edo beste era batera esanda, Loquillo rock abeslari famatuak kontzertua emango du Arrasateko Amaia antzokian, datorren urtar-rilaren 27an 21:00etan hasita. Iaz argitaratu zen bere azken diskoa, *Su nombre era el de todas las mujeres* izenekoa aurkezttera dator *Loquillo a solas, tour teatros 2012* biraren barruan, eta sarrerak oraindik ere eskuragarri daude Amaia antzokiko leihatilan eta Kutxa-ren webgunean.

Bira horren barruko erre-pertorioan daude, besteak beste, honako artista hauek: Cesare Pavese, Bernardo Atxaga, Mario Benedetti, Jaques Brel, Georges Brassens, Gil de Biedma, Luis Alberto de Cuenca, Gabriel Sopena, Sabino Méndez eta Jaime Urrutia. Egun Donostian bizi den Bartzelonako abeslariak 90. hamarkadan hainbat antzokitan egindako biren izpiritua berreskuratzen du bira honen. Bere azken lanaz gain, bakarka egin dituen diskoak dira protagonista nagusiak.

Bergara aldetik heldutako blues doinuak Eskoriatzan

Diabulus in Musica, taldearen bigarren lana aurkeztu zuen Belceblues hirukoteak zapatuan Eskoriatzako Inkernu tabernan. Kontzertua hotz samar hasi zen, baina azkenean taberna betetzea lortu zuten bergararrek. Euren abestiak izan ziren nagusi, baina Jimi Hendrix bezalako klasiko handien bertsoak ere jo zituzten.



JOSETXO ARANTZABAL

'Noiz arte justiziarik gabe?' jaialdia, egubakoitzean

E.A./T.M. | ARRASATE

Espainiako gerran fusilatutak, zigortuak edo errepresaliatuak izan zirenen omenez *Noiz arte justiziarik gabe?* izeneko jaialdia antolatu du Intxorta 1937 elkarteak Arrasateko Amaia antzokian datorren egubakoitzeko. 20:00etan hasiko da jaialdia, sarrera doan da eta Arrasateko Udala da laguntzailea. Azaroan argitara eman zuten CDan eta liburuan, *Gerrako ipuinak* izenburukoan, parte hartu zuten musikari gehienak igoko dira agertokira: Anger, Gose, Ain 1, Andoni, Petti eta Eñaut, Iker Fernandez eta Oscar Manso, Musiraka taldea, eta Domentx Uzin, Juan Fernandez eta Eider Varela.

"Memoria historikoa errespetatzea ezinbestekoa da askatasunez bizitzeko, zauriak ixteko, eta baita aurrera egin eta etorkizuna sendotzeko ere", diote Intxorta 1937 elkartetik. Horixe da, hain zuzen ere, elkarteak jaialdiarekin sortu nahi duen espiritua, jaialdiaren beraren helburua.

Bide Ertzeanen musikak girotu zuen atzo iluntzea Elgetan

Ehun ikusle inguru bildu ziren atzo Elgetako Espaloian Bide Ertzean taldearen kontzertua ikusteko. Ordu eta erdi inguru iraun zuen emanaldian zehar, *Don Inorrez* euren azken lana aurkeztu zuten, baita *Gerrako ipuinak* CD-ko *Adarretan* abestia jo ere.



JOSETXO ARANTZABAL

Tobera ikusi zutenek 'Beste bat, beste bat!' eskatzen dute

Abenduaren 28an Amaia antzokia bete zuen herri-antzerki satirikoarekin pozik, egile zein ikusle

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Arrasate errudun, horrek ez du bueltarik tobera eta gero baina "sasi-epaiketak", bertan epelak eta bi esan eta gero, utzi bide du arrastoa. Amaia goraino bete zuten ikusleak irribarrea aurpegiari atera ziren antzokitik eta taula gainekoak zein atzekoak ere ezin harroago egon daitezke lan bikainarengatik. Kontu zahar eta berriekin herriarrak xaxatzea zen helburuetako bat eta batuta-ko iritzi sortan behintzat ikusten

da toberak komentarioen soka ekarri duela. Ohitura hartu beharra dagoela diote guztiek eta errebantxa egarrria ere badago.

Tobera gehiago

Pozik aldi berean, Bagara egitas-mokoak. Arkaitz Bian kideak garbi ikusten du toberak ibilbidea badaukala "lehen saiakerak izan duen harrera ona eta gero". "Ze maiztasunekin," ez dakite oraindik, baina "egingo dela, bai". Bagara bertako kulturagintzako



Arrasateko defentsaren une bat, antzezlanean. | JULEN IRIKONDO

sustapen taldeko proiektuetako bat izan da herri-antzerkia eta herriarrak herriarentzat ibili dira lanean. Helburua beteta hortaz. "Kultura sorkuntza astin-

du eta, aldi berean, gizartea ere xaxatzea bilatzen zen", dio Biainek eta uste du "ukitu direla zenbait gai modu sanoan eta jende askok iritzi horiek entzuteko

aukera izan" duela. Entzun, eta gustatu, iritsi zaizkien iruzkinak "positiboak" izan dira-eta Bagarako kideak nabarmentzen duenez.



KEPA URTEAGA
ARRASATE

"Dibertigarria bai, iruditu zait, eta baita komenigarria ere"


"Oso dibertigarria eta batez ere, geure buruez barre egiteagatik, komenigarria iruditu zitzaidan. Nik akusazioari zentzu larregi ez nion ikusten eta ez nuen espero errudun ateratzea. Arizmendiari bizikletarekin irten zen unea mundiala iruditu zitzaidan. Arrakasta izan zuen proposamenak eta horrek poztu egin ninduen; jendez topera egon zen eta gustura gainera. Lehenengo pausua eman da eta ez dut zail ikusten jarraitzea".



JUAN MARTIN ELEXPURU
BERGARA

"Ideia bikaina da baina topikoak gehiegi errepikatzen ziren"

"Ideia bikaina iruditu zait tobera egitearena eta interpretazioa eta eszenaratzea ere oso onak izan ziren, batenaz beste. Bestalde, gidoia motel samarra egin zitzaidan, ez oso literarioa, topikoak gehiegi errepikatzen ziren eta argumentuaren hariak ez zuen aurrera egiten. Horrekin batera, hizkuntza gehitxoago zaindu beharko litzateke; esaterako, pertsonai batzuk eten barik jotzen zuten gaztelaniara grazia egin nahi zutenean".



ITXARO ARTOLA
ARRASATE

"Epaia epai, Arrasaten, ondo ala txarto, zenbat gauza egin diren ikusi da"

"Antzezpenen sekulako lana egon zen eta emaitza polita izan zen baina *mondrautar* moduan pipertuta nago han esan zirenekin eta gure defentsa 'ultrasurrealista' horrekin. Otxoteari, hori bai, *chapeau*, momenturik politena *Mondra*, *mondra* abestu zutenean izan zen. Hala ere, epaiari nik buelta ematen diot eta Arrasaten, ondo ala txarto, zenbat gauza egin diren ikusteko balio izan zuen eta Bergaran azken 60 urteetan gutxi egin dutela".



JOXE ARANTZABAL
ARRASATE

"Nabarmenegi geratu zen Arrasate kondenatu behar zutela"

"Ni pozik atera nintzen baina Arrasateko defentsa ahul xamarra iruditu zitzaidan eta nabarmenegi geratzen zen, agian, Arrasate kondenatu egin behar zutela. Hala ere, lehen saiakera izanda eta toberak gurean tradizioz ez duela jakinda, ohitura finkatzeko lehen urrats moduan balio dezake. Jokoa zabaldu daiteke bailarako beste herrietara. Arrasate eta Bergara baino, nik gehiago ezagutu dut Arrasate eta Aretxabaleta arteko ika-mika, adibidez".



LARRAITX ARANDO
ARETXABALETA

"Hurrengo toberak izan behar du herri guztiak Oñatiren kontra"

"Betiko kontuak argi eta garbi esan ziren. Aretxabaletarren ordezkaritza mundiala izan zen! Aretxabaletak ere erraz izan dezake bere tobera: Aramaiorekin Untzilla, Eskoriatzarekin Gellao eta Oñatirekin Urrexolan dago saltsa. Baina nik hortik zehar gehien entzun dudana izan da hurrengoak izan behar duela herri guztiak Oñatiren kontra. Gustatu zitzaidan nola exageratu zuten bergararren dotorezia eta arrasatearren *pasotismoa*".



UNAI AZKARATE
BERGARA

"Bergarak irabazita ere, otxoteak egurra eman zion orfeoiari"

"Jende piloia egon zen, oso pozgarria da hori eta etorkizuna ikusten diot. Bergarak irabazi arren, musikari moduan esan behar dut Arrasatek egurra eman zuela otxotearekin eta orfeoiak baino hobeto abestu zutela eta *Mondra*, *mondra* momentua ikaragarria izan zen. *Bergara-Antzuola* bat egin beharko litzateke eta Oñatirekin ere beste bat, azken urteotan eman duen aldaketa itzela erakutsiz, adibidez".



UXUE ZABALETA
BERGARA

"Hala ere, gaur egun diferentzia gutxi ikusten ditut nik herrien artean"

"Barre asko egin nuen baina lehenengo kontu zaharrak dira, nik uste dut gaur egun herri guztiek gero eta antz handiagoa dutela elkarren artean, diferentzia gutxi ikusten dut nik; Bergaran, Arrasaten eta Oñatin asko ibilitakoa naiz-eta. Arrasatekoak *punky* bai baina *pasota*-ez *kañero*-, hala nituen epaiketetan. Onena, epailearen idazkaria; hori gustatu zitzaidan gehien. Saltsa nahikoa dago honekin jarraitzeko nahi izanez gero".



EDORTA ARANA
LEINTZ-GATZAGA

"Kritikarako gogoia badagoela ikusi da; espero dut gehiagotan egitea"

"Txalagarria da egitasmoa eta ikusi da umore, kritika eta ondo pasatzeko gogoia badagoela eta espero dut gehiagotan egitea. Formatua oso egokia da baina amateur ikuspegi hori gaitzitu eta sendotasuna eman behar zaio batez ere gidoi kontutan, eritimoa eta ulermena puntu batzuetan galdu egiten zen-eta. Egitasmo oso polita da eta umore zorrotzagoa eta gatz eta piper gehiagorekin, ikuspegi kritikoago batekin, asko irabaziko du".



JOXE MARI MUXIKA
ARRASATE

"Kooperatibismoaren kritika bai, baina beste balore batzuk badaude"

"Errealitate baten isla ipini zuten mahai gainean. Niri berehala pasatu zitzaidan eta bai tonoa eta baita ere komentarioak, txukunak izan ziren. Kooperatibismoaren humanismoaren galeraren kritika onargarria iruditzen zait baina aipatu ez ziren beste balore batzuk ere badaude, jabetza kolektiboa, kasu. Hori esango nuke nik ikusten dut txantxa moduan, akusazio bat baino. Tobera errealitate batzuen kritika egiteko forma polita".



LEIRE LARDIZABAL
ARRASATE

"Herrien arteko loturak indartzeko balio dute halakoek"

"Herrien arteko ika-mika sano horrekin jolasteko modu oso ona iruditu zait eta asko gustatu zitzaidan herrien arteko loturak indartzeko balio du-eta. Uneren baten edo beste, arrasatear moduan oholtzara defentsan igotzeko gogoia piztu zitzaidan eta unerik hunkarriena izan zen otxoteak *Mondra*, *Mondra* abestu zutenean. Antzuolar batek baino gehiagok eskaini zuen bere burua Bergararen aurkako akusazioan laguntzeko gero!".



TWITTER kontu bana, herri eta gai bakoitzeko

Goiena Komunikazio Taldea: @goiena

Kontu horretan Goienaren inguruko berriak, telebistako programazioa, azken ordukoak... jasoko dituzu.

HERRIAK

Antzuola: @antzuolagoiena

Aramaio: @aramaiogoiena

Aretxabaleta: @aretxagoiena

Arrasate: @arrasategoiena

Bergara: @bergaragoiena

Elgeta: @elgetagoiena

Eskoriatza: @eskogoiena

Oñati: @oinatigoiena

GAIK

Ekonomia: @ekonomiagoiena

Hezkuntza: @hezkuntzagoiena

Kirolak: @kirolakgoiena

Kultura: @kulturagoiena

Osasuna: @osasunagoiena

Teknologia berriak: @teknonetgoiena

Goiena Kluba: @goienakluba

Egin zaitez jarraitzaile!

GURE MUSIKA TALDEAK

BELCEBLUES



Asier Elorza, Ibon Larrañaga eta Oihan Vega hiruko bergararrek osatzen dute Belceblues taldea. | BELCEBLUES

"Teknika barik, ezinezkoa da instrumentua menderatzea eta sentimenduak azaltzea"

► Bigarren diskoan taldearen eboluzioa nabari da; izan ere, doinu helduagoak batzen dituen blues modernoak dakar hirukoteak

MAIDER ARREGI | BERGARA

Belceblues talde bergararrak *Diabulus in musika* bigarren lana aurkeztzen dihardu. Disko landua eta detaile askokoa, mimo handiarekin egindakoa da. Blues musikaz eta bere giroaz disfrutatzen dihardutela kontatu digute bergararrek.

Disko helduagoarekin zatotze. *Infer* gure lehenengo diskoa baino helduago eta garatuagoa da; salto handia eman dugula konturatu gara, bai musikaren kalitateagatik, baita soinuagatik ere. *Diabulus in musika* oso disko landua da, detaile eta kolore desberdin askokoa. Bluesa da oinarri, gure lehen diskoan bezala,

baina beste estilo batzuk ere zeharkatzen ditugu. Oso gustura geratu gara emaitzarekin.

Kolaborazio askoko lana da.

Aitor Gorosabel, Jon Gurrutxaga, Israel Santamaria, *Satan ass* haitze-laukotea eta Enrike Txurruka piano-jotzailea izan ditugu lagun. Nork bere kalitatea eskaini dio diskoari eta horrek asko aberastu du emaitza.

Aldatu, eboluzionatu egin duzue. Eboluzioa disko berrian ikus daiteke.... askoz helduagoak gara musikalki, eta normala da, 100 kontzertu inguru jo ditugu lehenengo diskoa atera genuenetik; horrek esperientzia eta eskarmentu handia ematen du.

Bluesaren publikoa zorrotza da.

Kalitatea gura dute, eta hori eskertzekoa da. Guk kalitatearen aldeko apustua egin izan dugu beti, eta jarraitzaile ugari izatea lortu dugu.

Oso teknika ona duzue. Inprobisazioarendako lekuri?

Teknika beti da garrantzitsua; izan ere, teknika barik, ezingo duzu sekula instrumentua menderatu eta, horren ondorioz, zu zeu espresatu. Instrumentua menderatuta, sentimenduak eta emozioak azaleratzea errazagoa da. Guretzat garrantzitsua da, baina horrek ez du esan nahi inprobisatzen ez dugunik. Teknika ona izanez gero, inprobisatzeko bali-

bide gehiago izaten dira. Gure kontzertuetan inprobisazio handia ikus daiteke, baina kontzertuen egitura ondo lotuta eramatea gustatzen zaigu.

Bluesa eta gitarra elektrikoa.

Bai, hori da gure ezaugarrietako bat. Bluesaren oinarriari Ibonen gitarraren soinu indartsu eta azkarra gehitu diegu. Blues modernoa dela esan daiteke.

Espainiako Arte eta Musika Zientzien Akademiaren sarietan, proposatua izan da *Infer* kantua. Ze sentazio sortu dizue?

Gauzak ondo egiten ari ginen seinalea izan zen; hobetzen segitzen dugu...

Jonhy Winterrekin batera egon zineten agertokian, Hondarribian. Itzela izan zen. Horrelako muntro historiko baten ondoan jotzea! Ez dago hitzik. Horrelako jaialdietan asko ikasten da, musikari asko ezagutu, giroa arnastu... bikaina!

Eskola didaktikoak ere ematen dituzue.

Aspaldi hasi ginen kontzertu didaktikoak ematen. Musika modernoaren oinarriak azaltzen ditugu bluesaren sorreratik abiatuta. Bereziki, gazteen ikuspegia ireki nahi dugu. Oso harrera ona duen formatua da.

Jendaurrean aurkeztu duzue diskoa; ze harrera izan du?

Oso ondo hasi da, lehenengo kontzertuan jende asko bildu zen eta disko mordoa saldu genituen. Giro bikaina! Diskoa bailaran aurkeztuko dugu, lehenengo, eta gero, probintzia eta hiriburuetara joango gara. Blues musikaz eta bere giroaz disfrutatzen segitu nahi dugu orain.

ZERTZELADA



DIABULUS IN MUSIKA

Estiloa: Bluesa, soula, rocka, countrya...

Egilea: Belceblues.


Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 51,8 minutu.

Bluesari merezitako jantzia emanez

Belceblues taldeak aurrerapauso garrantzitsua egin du disko honekin. Soinu aldetik bilakaera galanta da, eta baita abestien borobiltasunari begiratzen badiogu ere. Hainbeste miresten duten Steve Ray Vaughanengandik abiatuta, haratago joan dira eta bluesaren sentimenduan gehiago murgildu direla jaso dut diskoa entzutean. Bestalde, gitarrak are eta beroagoak dira, Asierren ahotsa ondu egin da eta bada hard-rock estruktura duen piezarik ere. Kantuei ñabardura gehiago emateko, gainera, Satan Ass metal taldearen, Aitor Gorosabelen, Jon Gurrutxagaren eta beste hainbat musikari eta laguneren aportazioa izan dute. Bluesarekin batera, rockak, soulak, countryak eta baita hip-hopak ere (!!) daukate lekua mimoz eta gogoz egindako diskoan.

IKER BARANDIARAN



HTML berriak aplikazio ugari ekarriko dizkigu. | SIXREVISIONS.COM

Abantaila eta aldaketa ugari ekarriko ditu HTML5ek

Facebookeko argazkiak editatu ahal izango ditugu eta Internet Explorer 10ek abiadura handia izango du

MIRYAM GALILEA | ARRASATE

Techcrunch.com-ek 2012an Interneten egongo diren abantailen eta aldaketen aurrerapentxo bat egin nahi izan du, eta dagoeneko teknologiko izarrak diren Zynga, Facebook, Microsoft, Google eta Applen artean lehia sortuko duten aldaketa edo abantaila deigarrienak izendatu ditu, horiek guztiak HTML5en inguru-

ruan.

Diotenez, aurten HTML5ek oso erabilgarri izango diren aplikazioak izango ditu, eta web orriak elkarren artean konektatu ahal izango dira. Adibidez, Facebookek dituen Zynga jokotan aldaketa nabari bat egongo da: Postmessage aplikazio berria erabilita, joko horiek zuzeneko komunikazioa izango dute Face-

bookeko eduki euskarriekin; izan ere, orain arte, beste zerbitzarien baten laguntza behar zen horretarako.

Beste aplikazio bat CORS izenekoa da. Horren bidez, web orriek askoz errazago partekatuko dute informazioa elkarren artean. Adibidez, CORSEk argazkiak editatzeko zerbitzua eskainiko du, Facebookeko argazkiak

zuzenean deskargatuta, eta haiek moldatu eta berriro jaisteko aukera emanda. Aldi berean, HTML5ek eskainiko digun semantika-informazioari esker, web erremintak egitea askoz errazagoa izango da, baita webetarik informazioa eskuratzea ere.

Ekarriko digun beste nobedade bat da nabigatzaileen itxura iPhoneen antzekoa izango dela. Orokorrean, arrakasta handia dute Applen iOSek, eta izango duen itxura berriarekin, albisteak, kokalekua eta bestelakoak izango ditu, baita aplikazio desberdinen konparaketa egiteko aukera ere.

Bestalde, orain arte, egutegiak, e-posta, argazkien moldaketarako eta abarrerako aplikazioak... oso erabiliak izan dira, baina, hemendik aurrera, gehiago erabiltzeko baimena izango dugu, Inkscape eta Illustrator aplikazioekin.

Internet Explorer 10

Guztiok ezagutzen dugu Internet Explorer, eta hark motela izateagatik duen ospe txarra, baina aurten, Techcrunch.com-ek dioenez, Internet Explorer 10 abiadura azkarragatik izango da ezaguna, egin dituzten aldaketek esker.

Azkenik, nabigatzeko enpresak aplikazioen munduan ere sartuko direla diote. Applei kasu eginaz, nabigatzaile ekoizleak konturatu dira aukerak galtzen dabiltzala aplikazioen denden negozioan ez egoteagatik. Izan ere, Google Chrome dagoeneko hasi da horiek integratzen, eta gainerako nabigatzaileek ere hori egitea espero da. Bada, azken hori HTML5eko aplikazio egileentzat oso garrantzitsua da, aplikazioen salmententzako aukera ederra da-eta.

Facebookek 1.000 milioi dolar baino gehiago irabaziko ditu

Zazpi urte dira Facebook sare soziala sortu zela eta milioika dolar batu ditu dagoeneko. Izan ere, Gawker.com atariak argitaratu berri duenez, zorrik gabeko 3.500 milioi dolar inguru ditu erreserbatan, eta, horretaz gainera, 5.600 milioiko aktiboa eta 714 milioiko diru-sartze garbia 2011n bakarrik. 2010. urtekoaren bikoitza eta 2009. urtean irabazitakoaren laukoitza da, hain zuzen ere. Bada, oraingoz, Facebookek 800 milioi erabiltzaile baino gehiago ditu eta Mark Zuckerberg, enpresaren sortzailea, aberastu egin da arrakasta horri esker.

Appleko Steve Jobsek hilondoko Grammy bat jasoko du

Steve Jobs Appleko kofundatzaileak hilondoko ohorezko Grammya jasoko du, musika, hura kontsumitzeko era, telebista, pelikulak eta liburuak goitik behera aldatzeagatik. Otsailaren 12an izango da Grammy sarien 54. edizioa, Los Angelesko Staples Center-en. "Irudikor-sortzaile moduan, Jobsek sortutako iPod edo iTunes on line dendak musikaren industria eta hura banatu eta lortzeko modua goitik behera aldatu zituen", dio National Academy of Recording Arts and Sciences-ek. Besteak beste, Diana Ross, Allman Brothers Band eta Glen Campbell ere jasoko dute saria.

Sinde Legea onartu du Espainiako gobernu berriak

Neurri berriekin batera, aurki indarrean egongo da kopia pribaturako konpentsazio sistema ere

JON BEREZIBAR | ARRASATE

PPren gobernu berriaren lehen neurrietako bat izan da. Lege berriarekin, webguneen itxiera kudeatzeko batzordeari funtzio gehiago eman zaizkio eta aurreko testuan ere ematen zitzaizkion bitartekaritza, eta, arbitraje lanez gain, "jabetza intelektuaren eskubidea babesteko ekimenak" ere abiatu ahal izango ditu batzordeak. Hala, batzordeak bi atal izango ditu: batek bitartekaritza eta arbitrajea egingo du, epaitegietara jo barik konpon daitezkeen kasuetarako; bigarrenak "egile eskubideen defentsarako" egingo du lan eta alde baten salaketatik abiatuta jardungo du administrazioarekiko auzietarako epaitegi zentralaren interbentzioarekin. Bigarren atal horrek, testuan

azaltzen dutenez, erabiltzaileen aurka barik, "Informazioaren Gizarteko zerbitzu-emaleen" aurka egingo du, eta, "edozein kasutan, zuzenean edo zeharka, salatuak irabazi asmoekin jardun duela" frogatu beharko da edo "egile-eskubideen jabeari ondare-kaltea" egin zaiola argi geratu.

Edukien kopia pribatua

Martxoan Auzitegi Nazionalak kanon digitala delakoa baliogabetu eta gero, gobernu berriak kopia pribatuaren konpentsazio sistema jarriko du indarrean, PPK hauteskunde programan agindu bezala. Sistema berria aurki zehaztuko dutela diote, eta errege-dekretu baten bitartez egingo da.



Nintendo 3DS erabiliko dute Louvre museoan. | 17BITS.CL

Louvre museoak Nintendo 3DS erabiliko du audio-gida gisa

Nintendo 3DS horiek ez dute jokorik onartuko, lapurretari ez gertatzeko

M.G. | ARRASATE

Martxoan hasiko da Parisko Louvre museoak Nintendo 3DS kontsolak audio-gida gisa erabiltzen. Orain arte museoak erabili izan dituen gida turistikoak pixkanaka alde batera

utzi eta kontsolak erabiltzen hasiko dira; aldaketa hasteko, martxorako 5.000 ale izango dituzte.

Nintendok eta museoak zuzendaritzak akordioa egin dute, eta bisita gidatuen gailuak martxoan

aldatzen hasiko dira fabrikatzaileak entregatuko dituen 5.000 Nintendo 3DSekin; horiek bisita-software berezi bat izango dute, bisitariari alokatzeko aukera zabaltzeko.

Museoak 3D funtzionaltasuna eta pantaila bikotza baloratu ditu, eta, horien bitartez, museoak dituen artelanak ezagutzeko beste era bat eskaini nahi die bezeroei. Kontsolaren bitartez museoak hiru dimentsiotan bisitatzeko aukera izango da, zortzi hizkuntzaren artean aukeratu, eta betaurreko berezirik erabili gabe. Horren bitartez gazteak erakarri nahi dituzte.

Bada, gailu horiek integratzea ideia handia izan dela dirudi, baina erabilpenaren balorazioa eta erabiltzaileen erantzuna ikusteko dago oraindik.

Bestalde, eta lapurretari ez gertatzeko, Louvreko Nintendo 3DS horiek ez dute jokorik onartuko. Eskuratzeko, orain arte beste gidekin egin den moduan, harreraren nortasun agiria utzi beharko da gordailu gisa, eta sei euro inguru ordaindu alokatu ahal izateko.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



Ongi etorri telesaien urteari

2011n telesaioak nabarmendu ziren telebistan. Zonbiak eta antzinako istorioek izan zuten arrakasta.

2012an zer? Ildo beretik. Hala ere, telesaioak iragartzerakoan, lan hobea egiten ari dira. Hollywoodeko aktoreak aukeratu dituzte *glamour* eta kalitate pixkat emateko. Esaterako, Dustin Hoffmanen debuta ikusiko dugu: publizitate ona izan liteke. Spielbergen ukitua ere *The River* telesaioan eta historiako telesaioerik garestiena ere estreinatuko da: *Terra Nova*. Horrela salduta erakargarria izan liteke.

Glamourra eta diru dezentetengoa telesaioetan, baina istorioei dagokienez, ez dugu ezustekorik izango: antzinako istorioak eta zonbiak. Bestalde, banpiroak eta otso-gizonak gustuko badituzu, ez duzu aspertzeko astirik izango. *Luna, el misterio de Calenda* estreinatuko da laster.

Itxura guztien arabera, 2012. urtea oparora da telesaien ikuspegitik. Aktore bikainak, sekulako aurrekontua eta arrakastako istorioak. Publizitate kanpaina ezinhobea izan da. Baina, orain, produktua probatzeko unea da. Ea saltzen digutenak merezi duen.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 28



Zapatuko manifestazioa

19:44

Jabi Lazkano Bergarako preso ohia elkarriketatuko dugu zapatuan egin zen manifestazioari buruz berba egiteko.

12:25 Sakonduz
12:48 Onein
13:08 Kantari
13:38 Altxor Txokoa
14:04 Ur eta lur
14:30 Ikusmira
14:47 Berriak
15:17 Ikusmira
15:44 Hamaika.bit
16:14 Bizitegia
16:44 Berriak
17:14 Ur eta lur
17:41 28.Klip
18:11 Berbetan
18:44 Berriak
19:14 Kantari
19:44 Magazinea
20:44 Harmailatik
21:29 Magazinea
22:29 Harmailatik
23:14 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 29



Jose Antonio Ardanza, gurean

19:45

Markel Olano EAJren bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Ahalduen Nagusi ohia elkarriketatuko dugu.

12:30 Magazinea
12:30 Harmailatik
14:15 Kantari
14:42 Berriak
15:12 Altxor Txokoa
15:38 Harmailatik
16:21 Onein
16:44 Berriak
17:14 Bizitegia
17:44 Harmailatik
18:29 Ikusmira
18:56 Berriak
19:23 Kantari
19:48 Magazinea
20:48 Ikusmira
21:15 Magazinea
22:15 Bizitegia
22:45 Magazinea
23:45 Gipuzkoa kultura

EGUAZTENA, 30



Arrasateko zientzia elkarte

19:45

Arrasate Zientzia Elkarte birsortu dute herriko ondarea mantentzearen alde lan egiteko eta horri buruz hitz egingo dugu.

12:30 Magazinea
12:30 Ur eta lur
12:57 Ikusmira
14:15 Kantari
14:45 Berriak
15:15 Gipuzkoa kultura
15:45 Ikusmira
16:12 Berriak
16:42 Bizitegia
17:09 Altxor Txokoa
17:35 Harmailatik
18:18 Berriak
18:48 Kantari
19:13 Magazinea
20:13 Berbetan
20:46 Magazinea
21:46 Ikusmira
22:19 Magazinea

EGUENA, 1



Gabonetako jatorduen ostea

19:46

Lorea Aranburu nutrizionista izango dugu osasun tartean Gabonetako jatorduen osteko komeni den dieta zehazteko.

12:30 Magazinea
12:30 Hamaika.bit
12:55 Kantari
14:20 Bizitegia
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:42 Lamien artean
16:42 Berriak
17:12 Kantari
17:42 Altxor Txokoa
18:08 Sakonduz
18:31 Ikusmira
18:49 Berriak
19:19 Kantari
19:46 Magazinea
20:46 Hamaika.bit
21:16 Magazinea
22:16 Gipuzkoa kultura
22:46 Magazinea
23:46 Berbetan

EGUBAKOITZA, 2



Gaztetxoak kantari

19:20

Bailarako gaztetxoak agertoki gainean nola moldatzen diren ikusten jarraitu ahal izango dugu Kantari karaoke ikuskizunarekin.

12:30 Magazinea
12:30 Gipuzkoa kultura
12:55 Kantari
14:22 Onein
14:47 Berriak
15:14 28.Klip
15:44 Bizitegia
16:14 Leku txiki bat
16:44 Berriak
17:17 Lamien artean
18:17 Onein
18:45 Berriak
19:20 Kantari
19:47 Magazinea
20:47 Gipuzkoa kultura
21:17 Magazinea
22:17 Ikusmira
22:44 Magazinea
23:44 28.Klip

ARRASATE IRRATIA

'Girandice' taldea entzuteko sarrerak eta Xarmaren CDa zozketan

Girandice taldea entzuteko sarrerak daukagu. *Kooltur ostegunak* egitasmoaren barruan joko du taldeak eguean. Zozketan daukagu baita ere Xarma taldearen azken diskoa. Horiek lortzeko bide dituzue: deitu 943 25 05 05era edo idatzi irratia@goiena.com-era.

Liburutegiak atera duen Neguko Gida hizpide, 107.7an

Aurten ere, irakurtzeko, entzuteko edo ikusteko hainbat proposamen jaso ditu udal liburutegiak atera duen neguko gidak. Adin tarte bakoitzarendako proposak izan daitezkeen liburuak, diskoak edo filmak zeintzuk diren jakin ahal izango dugu Arrasate Irratian.

Besaideren Leixargarateko aterpetxeari buruz

Besaideren Leixargarateko aterpetxeari buruz ere jardungo gara astean 107.7ko uhinetan. Aterpetxearen erabilera, arauak eta izena emateko bideak ezagutuko ditugu. Informazio guztia emango digu Besaide Mendi Elkarte zuzendaritzako kide batek. Astelehenean, 10:30ean, Arrasate Irratian izango da hori.

TELE-ALBISTEAK

Telebistan lehiaketa ugari izango ditugu 2012 urtean

Esaterako, atzo hasi zen 'El Conquistador del Fin del Mundo' saioaren zortzigarren edizioa ETB-2n

Julian Iantzi *El Conquistador* saioko aurkezlea. | SANMARCALES.COM

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Lehiaketa ugari izango ditugu telebistan 2012 urtean. Orain arte aski ezagunak diren lehiaketa batzuk mantendu egingo dira programazioan, hauek adibidez: *Atrapa un millón* eta *La ruleta de la suerte* (Antena 3) eta *Pasapalabra* eta *Tú sí que vales* (Telecinco).

Laster hasiko dira baita ere *Gran Hermano* eta *La Voz* (Telecinco), eta *Tu cara me suena* eta *El Número Uno* (Antena 3).

El Conquistador

Bestalde, atzo hasi zen, esaterako, Euskal Herrian horrenbeste arrakasta daukan *El Conquistador del Fin del Mundo* saioa, ETB-2n. *Reality*-a Julian Iantzik aurkezten du aurten ere eta guztira 24 partaide arituko dira lehian. Aurten, gainera, saioa Iguazuko ur-jauzietan amaituko da berrikuntza modura. Edizio honek nola funtzionatzen duen ikusi egin behar da, aurreko edizioan, baina, 20,1eko sharea izan zuen eta guztira 167.000 ikus-entzule izan zituen emisio bakoitzeko.

'Magazinea' itxura berriarekin bueltatuko da gaur bertan 19:45ean

Gai interesgarriz josita dator aurten ere zuzenean iluntzetan egiten dugun 'Magazinea'

A.T. | ARRASATE

Gaur bertan itzuli da Goiena telebista ohiko programaziora. Gabonetan hartutako oporren ostean, beraz, berrituko bueltatuko dira, besteak beste, *Magazinea* eta *Harmailatik* saioak.

'Magazinea' berriztuta

Magazinea saioa, gainera, itxura berriarekin bueltatuko da; platoko dekoratuak aldaketak izan ditu, eta ondorioz, beste itxura bat hartuko du saioak.

Astelehenetik egubakoitze-
ra eskainiko dugu *Magazinea*, orain arte bezala, 19:45ean. Eta aurkezlea Arritxu Barruso izan-

go da, orain arte moduan.

Gai interesgarri ugari jorratuko ditugu aurten ere saio horretan, besteak beste, hizpide izango ditugu ekonomia, osasuna eta kultura kontuak. Bestelako gaiak ere jorratuko ditugu.

Gonbidatu ugari emango diegu hitza eta Debagoienan gertatzen diren notizien berri ere jakingo dugu *Magazinea*-n egingo diren elkarriketekin. Gaur, astelehena, esaterako, Jabi Lazkano Bergarako preso ohia izango dugu urtarrilaren 7ko manifestazioari buruz berba egiten.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Alaitz Azula Urrutia
Urtarrilaren 7an, 4 urte.
Zorionak, *guapetona*,
aitatxo eta amatxoren
partetik. Patxo handi bat.



ARETXABAETA
Iban Luermo
Urtarrilaren 7an, 34 urte.
Zorionak, Iban! Lagun
guztion izenean, bereziki
Zaraia MT eta UDAko
lagunen partetik.
"Benga txabalote",
jarraitu beti bezain jator!
Aupa UDA, bisca Barça!




OÑATI
Uxue Ugalde Urkiola
Urtarrilaren 6an, 9 urte.
Ospakizuna gertu
daukagu. Ea lagun guztiok
oso ondo pasatzen
duzuen! Eta bezperan,
"Badakizu, parranda!"
Zorionak etxeko danen
partetik!



ARRASATE
Iker Arenaza Pagaldai
Urtarrilaren 6an, 8 urte.
Zorionak gure erregeari eta
patxo mordo bat etxeko
danen partetik.



BERGARA
**Markel Martinez
Garitano**
Urtarrilaren 6an, 4 urte.
Zorionak, txapeldun! Beti
bezain alai eta jator
jarraitu! Muxu handi bat
familia guztiaren partetik.



OÑATI
Aimar Madina Zubia
Urtarrilaren 6an, 8 urte.
Zorionak, Aimar. Ondo-ondo
pasatu zure eguna. Patxo
handi bat etxeko danan
partetik.



OÑATI
Xabi Altube
Urtarrilaren 5ean, 29 urte.
Zorionak, tio Xabi:
ondo-ondo pasatu zure
urtebetze egunean. 29
tirakada fuerte
belarrietatik eta patxo
ugari etxeko guztien, eta
batez ere, Lexuriren
partetik.



OÑATI
Naroa Olalde Galdos
Urtarrilaren 5ean, 10 urte.
Zorionak, maitia! Ondo
pasatu eta hobeto ospatu
zure egun handi hau. Muxu
pila bat. Aitaxo, amatxo
eta Maia.



ARETXABAETA
Yuli Corres Zubillaga
Urtarrilaren 5an, 8 urte.
Zorionak, maitia! Ze ondo zaintzen dotzuen argazkiko
Spiderman bixak, je je! Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetzian! Mila kilo zorion... familia guztiaren eta,
bereziki Sarah, Danel, Oxel eta Maddiren partetik..



ARRASATE
Aurre Matilla Urrutia
Urtarrilaren 3an, 40 urte.
Zorionak, koko! Dagoeneko
berrogeitona zara, mutiko!
40 kilo patxo eta belarri
tirakada. Ederto hasi urtea
eta primeran ospatu egun
berezi hau, laguntxo
guztien partetik. Patxoak,
guapeton!




OÑATI
Gaizka Zelaia Cueva
Urtarrilaren 3an, 20 urte.
Zorionak, Gaizka!
Ondo-ondo pasatu zure
egunian eta asko
disfrutatu! Patxo
handi-handi bat zure
kuadrillako danan
partetik! Jakin beti eongo
gaela hemen eta asko
gura zau! Mxk!



ARRASATE
Ane Aranzabal Vitoria
Urtarrilaren 2an, 2 urte.
Zorionak, poxpolintxo, zure
bigarren urtebetetze
egunean. Txokolatzeko
muxu pila bat etxeko
guztien, eta bereziki, zure
anai Unax eta Jonen
partetik.




ARRASATE
Maite Lizaranzu
Urtarrilaren 1ean, 25 urte.
Zorionak! Parranda on
batez ospatu ezazu zure
eguna urtea ondo hasi
dadin. Zorionak, potxola,
kuadrilakoan partetik.



ARRASATE
Alaitz Laskurain
Urtarrilaren 1ean, 3 urte.
Zorionak, sorgintxo! Oso
ondo pasatu zure
urtebetetze eguna eta
muxu handi bat familia
guztiaren eta bereziki Unai,
Haizea eta Eñauten
partetik.



ARRASATE
Nora Justinne Sanchez
Abenduaren 31n, 8 urte.
Zure urtean jaiotako
gipuzkoarrik gazteena
zaren arren, aita eta
amarentzat handiena zara!
Zorionak eta patxo bat
familia guztiaren partetik!



ANTZUOLA
Karlos Azkarateaskasua Arana
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, Holigan!
Besarkada handi bat Laia, Meihong, Garaine eta Igorren
partetik. Ondo pasatu eta urte berri on!



BERGARA
Marisa Escobar Miranda
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, amama! Aurtengo
urtebetetzia pertsona berezi berri batekin ospatuko dozu,
beraz, asko disfrutatu! Egun ona pasatzea espero dugu!
Muxu handi bat zure biloba Kenarren, etxekuen eta Uxueren
partetik!



OÑATI
Nagore Iñurritegi Arregi
Abenduaren 30ean,
urtebetetzea. Zorionak,
Nagore. Ondo-ondo pasatu
urtebetetzea. Muxu handi
bat.



OÑATI
**Iñaki Larrañaga
Etxeberriarteun**
Abenduaren 30ean, 6
urte. Zorionak, Iñaki. Jaso
muxu pila bat etxeko
danen partetik eta oso
ondo pasatu zure
urtebetetze egunian.



OÑATI
**Aratz Etxeberria
Benito**
Zorionak, Aratz! 30ian 7
urte in zebeñ eta ze ondo
zelebrazu geben danok
batera. Patxo
handi-handi bat etxeko
danen partetik.



ARAMAIO
Miren Urzuriaga
Abenduaren 30ean, 18
urte. Zorionak, Miren,
guapa! Arnton eta Aritzen
partetik. "Lo prometido es
deuda" gaztelerez esaten
den bezala. Eta beste askoz
gehiago bete itzazula!



OÑATI
Josu Zubia Fernandez
Abenduaren 30an, 5 urte.
Zorionak zure bosgarren
urtebetetzian, maitia.
Ama, aita eta Eñaut.



BERGARA
**Unax Murgizu
Rodriguez**
Abenduaren 29an, 5 urte.
Zorionak. Txokomarrubizko
muxuak familia guztiaren,
eta bereziki, Hodei eta
Irairen partetik.



OÑATI
Unai Blázquez Plazaola
Abenduaren 29an, 2 urte.
Zorionak, txapeldun! Patxo
handi bat! Familiakoak.



BERGARA
Laida Unamuno Lopez
Abenduaren 29an, 3 urte. Zorionak, maitxia! Ondo-ondo
pasatu zure urtebetetze eguna eta jaso itzazu patxo pila bat
Zalao, amatxo eta aitaxoren partetik.



ARRASATE
**Ane Regodesebes
Mendiartz**
Abenduaren 28an, 10
urte. Zorionak, prexioxi! Bi
zenbakikin kontatzen
haszen zarela! Ondo
ospatu eta patxo pila
Zigarrolakuen partetik.



OÑATI
**Eneko Aranburu
onandia**
Abenduaren 27an, 6 urte.
Zorionak, *guapa*, eta
ondo-ondo pasatu eguna.
Muxu handi bat Irene,
aitatxo eta amatxoren
partetik.



ARRASATE
**Ander Melendez del
Palacio**
Abenduaren 27an, 9 urte.
Zorionak eta patxo handia
arrea Leire, aitaxo eta
amatxoren partetik!



ARRASATE
Markel Urrutia Zubia
Abenduaren 27an,
urtebete. Zorionak, Markel!
Urtetxo bat! Muxu handi
bat familia guztiaren
partetik.



BERGARA
Ekhi Ormaetxea
Abenduaren 26an, 2 urte.
Zorionak, Ekhi! Bi urte!
Ondo-ondo pasatu eguna
eta muxu pila bat familia
guztiaren eta bereziki
Aratzen partetik.



ESKORIAITZA
**Izaro Markaide
Gonzalez**
Abenduaren 26an, 8 urte.
Zorionak eta muxu
potolo-potolo bat etxeko
guztien partetik. Muak!



DEBAGOIENA
Eudi Loidi Larrañaga
Abenduaren 24an, 10 urte.
Zorionak, txapeldun! Gora
Erreala! Ondo pasatu
eguna eta patxo handi bat
Auritz, Iñigo eta Enararen
partetik.



BERGARA
Nora Alcaide Morillas
Abenduaren 22an, 4 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetzean. Muxu pila
bat etxekoan partetik,
bereziki Ander.



OÑATI
Libe Iñurritegi Guridi
Abenduaren 21ean, 5 urte.
Zorionak Kaioko
printzesatuari. Laztan
asko etxeko danen eta
bereziki zure lehengusuen
partetik. Txokolatzeko
muxuak Lizaur kaletik!
Muak!



BERGARA
Maddi Berrocal Santos
Abenduaren 20an, 6 urte.
Zorionak, pottola, eta
muxu bat lagun eta
etxekoan partetik.



ARRASATE
Naroa Urrutia Zubia
Abenduaren 18an, 4 urte.
Zorionak, sorgintxo! Oso
ondo ospatu zure
urtebetetzea eta muxu handi
bat familia guztiaren
partetik. Espero dogu
txokolata txuruekin
egotea primeran
ospatzeko.



OÑATI
Haizea Igartua
Abenduaren 17an, 13 urte.
Zorionak, Haizea! 13 urte,
jada handi-handixa eh!
Ondo pasatu eguna,
guapixima! Askogun
persona danan partetik,
baina bereziki Leire eta
Helene.

JAIOTAKOAK

DEBAGOIENEAN 2011 URTEKO AZKENA



Jon Odriozola Zubia

Oñati 4,780Kilo. Abenduaren 29a. Gurasoak: Mireia eta Fernando. Argazkian, Jon, 2011n Debagoieneko ospitalean jaiotako azken umea, aitarekin.

DEBAGOIENEAN 2011 URTEKO LEHENA



Paule Sanchez Eguren

Bergara 3,300Kilo. Urtarrilaren 1a. Gurasoak: Eneritz eta Oscar. Argazkian, Paule, 2012an Debagoieneko ospitalean jaiotako lehenengoa, aita eta amarekin.



Ane Sande Díez

Arrasate 3,250Kilo. Abenduaren 17a. Gurasoak: Monica eta Ruben. Argazkian, Ane sehaskan.



Amy Cascante Pinales

Oñati 3 Kilo. Abenduaren 20a. Gurasoak: Vicky eta Luis. Argazkian, Amy aitarekin.



Erik Cacheiro Perez

Bergara 3,650Kilo. Abenduaren 21a. Gurasoak: Maite eta Marcos. Argazkian, Erik sehaskan.




Yoel Prieto Cruz

Aretxabaleta 3,800Kilo. Abenduaren 17a. Gurasoak: Yunaiki eta Victor. Argazkian, Yoel amarekin.



Anyia Lozano Boyero

Aretxabaleta 3,740Kilo. Abenduaren 26a. Gurasoak: M.Carmen eta Adolfo. Argazkian, Ania amarekin.



Ibone Diaz Horrillo

Bergara 2,850Kilo. Abenduaren 24a. Gurasoak: Susana eta Unai. Argazkian, Ibone aitite eta amumarekin.



Itxaso Madinagoitia Gual

Arrasate 4,500Kilo. Abenduaren 26a. Gurasoak: Elena eta Ibai. Argazkian, Itxaso sehaskan.



Izei Arizmendiarieta Merino

Elgeta 3,270Kilo. Abenduaren 28a. Gurasoak: Enara eta Igor. Argazkian, Izei sehaskan.



Oinatz Zumalde Zelaia

Oñati 3,420Kilo. Abenduaren 28a. Gurasoak: Arantzazu eta Eneko. Argazkian, Oinatz sehaskan lo.



Oier Agirre Garcia

Elorrio 2,500Kilo. Urtarrilaren 3a. Gurasoak: Jessica eta Jon Abbat. Argazkian, Oier gurasoekin.

BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Oier Goitia Oria

Oñati 4,250Kilo. Urtarrilaren 2a. Gurasoak: Nerea eta losu. Arreba, Ane. Argazkian, Oier amaren besoetan.

ESKELA

Romana Ayerbe Barandiaran

Amaia Txintxurreta Goienako langilearen amama

Oñatin hil zen 2012ko urtarrilaren 1ean.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena

Goiena Komunikazio Taldea. Debagoienean, 2012ko urtarrilaren 9an.

ESKER ONA

Jesus Oroiz Ormazabal

Gasteizen hil zen 2011ko abenduaren 19an, 54 urte zituela.



Lerro hauen bitartez Jesus Oroizen sendiak eskerrak eman nahi dizkizue bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2012ko urtarrilaren 9an.

ESKER ONA

Kontxi Marco Ortega



Arrasaten hil zen 2011ko abenduaren 28an, 87 urte zituela.



Haren senarra: Tomas Sanchez; seme-alabak: Tomas, Javier eta Ana, Joserra eta Rosa, Nati eta Joaquin; bilobak: Ander, Ane, Ainize, Nerea, Oxel eta Igor; anai-arreba, iloba, lehengusu eta gainerako senideek

lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2012ko urtarrilaren 9an.

AI, ENE!

Laster, saltokietan... iKomuna!

Ez da Apple-en azken asmakizuna, Milos Paripovic diseinatzaileak egindako parodia baizik. Baietz egon erosteko prest dagoenik? www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Krisiak guztioi eragin digu, murrizketak egin behar izan ditugu-eta".

TAMARA FALCO | ISABEL PREYSLERREN ALABA

Gustatuko litzaziguke Tamarak egidako murrizketak zeintzuk izan diren jakitea. Ilean xerlo edo metxa gutxiago egitea? Bost zapata pare erosi beharrean, lau erostea? Jende askok bizi duen egoera ikusita, ixilik egoten jakitea bertute handia da...

Diez Minutos

EGURALDIA



Max. 11°

Min. 7°

Astelehenean joera aldatu eta eguraldiak hobera egingo du, bereziki arratsaldean. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-01-09

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Iban Garate Aurten 30 urte beteko ditu pantailan hazten ikusi dugun azkoitiarrak. Kamara aurreko lanek egin dute oso ezagun, baina kamara ostean dagoenean ere ez da geldi egoten | TXOMIN MADINA

"Mundu honetan gabiltzanok bokazioagatik eusten diogu"

1. Aktore, aurkezle, erreportari... Egongo da mihi gaiztorik protagonismo gosea duzula esango duenik...
Galdera egin duenaren ustea hori ote! Denen bistara lan eginda gehienek dute guri buruzko iritzi profesional eta pertsonala. Ez da kome ni "protagonistaegia" izatea, baina zaila da neurria hartzea.

2. Kamara baten aurrean lehen aldia 15 urterekin izan zen. Denerako izan duzu horrelako presa?
Kamara aurreko lanaren ona da adin eta klase guztietako jendea behar dela pertsonaietarako. Baina presaka ez naiz bizi: 29 urterekin ez naiz tabakoa erretzen hasi eta mozkorrik ere ez dut harrapatu!

3. Nola gogoratzen dituzu Arralden emandako urteak?
Goenkale eskola izan nuen eta ikastolan ikasiko ez nituzkeen gauzak irakatsi zizkidan. Leku bikainean agertu nintzen lehenengoz.

4. Ia denetarik aurkeztu duzu; zeri esango zenioke ezetz?
Ondo egingo ez dudala dakidan horri; neure buruarekin zintzoa izan behar dut lehenengo. Eduki aldetik ez zaizkit gustatzen pertsonak erabiltzen dituzten programak, talk-show eta antzekoak.

5. Noiz sentitu duzu lotsa gehien kamara aurrean?
Telebistan emandako lehenengo musua: Goenkalen, 15 urte nituela eta Barbara Goenagarekin. Behin edukiko musua emateko aukera eta denen aurrean egin behar!



JON POZO

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Oinarrizko beharrak aseko nituzke"

"Pertsona guztien oinarri-oinarrizko beharrak aseak egotea bermatuko nuke. Baina horrelako makiltxorik ez daukagunez, konturatu gaitezen oraindik ia dena daukagula egiteko".

6. Zineman, nolako da norbere burua pantaila handian ikustea?
Berdin dio neurriak, zaila da norbera ikustea. Itsu egoten gara geure buruari begira, besteen lanaz konturatu gabe, eta bosgarren ikustaldira arte ez dugu pelikula uler-tu ere egiten.

7. Hurrengo Miel de naranjas-en ikusiko zaitugu. Aurrerapenik?
Espainian, 50eko hamarkadan gertatzen den istorioa da, maitasuneko thrillerren mundua oso present duena. Imanol Uribe da zuzendaria, eta udaberrian estreinatuko dela pentsatzen dut.

8. Tuntuxa ekoiztetxearekin kamara atzean zabilta. Ikusentzunezkoen mundua ez al dago beti krisian?
Bai, mundu honetan gabiltzanok bokazioz ari garelako eusten diogu. Gainera, herrigintzaren erroetako bat kultura izan arren, murrizketa garaian zerrendan lehena da.

9. Lehen ez omen zinen parrandan irteten jendetza gerturatzeko zitzazulako. Aldatu al da hori?
Kontua ez da jendetza gerturatzea, leku horietan jendetza dagoela baizik. Nahiago dut lagunartean lasai egotea, afariren bat-edo... Baina parranda Euskal Herrian ez dago horretarako pentsatua.

10. Zertan ikusten zara 40 urterekin?
Akaso 35 ditudala esaten! Ondo legoke ordurako kamara aurreko eta atzeko lanen arteko oreka aurkitzea.

BIHARAMUNA

MARIA AGIRRE



Oinez bailaran

Fenomeno bat bilakatu da. Trenbide izanda-koan, orain, oinezkoen joan-etorri etengabea. Edozein ordutan ikus ditzakezu, goizez edo iluntzez, gazte eta heldu, korrika, eta batez ere oinez.

Azkenaldian atentzioa ematen didan zerbait da. Izugarria da Arrasatetik Eskoriatzara bitartean, egunero-egunero aurrera eta atzera dabilen jende kopurua. Batzuk eskolara doaz, beste batzuk lanera, eta asko, besterik gabe oinez ari dira. Gipuzkoan badira bidegorriak, baina gurean beste ez dut uste beteko direnik. Ez ote gara gipuzkoako ibiltarienak? Bidegorriari erabat engantxatuta omen dago jendea. Egunero ateratzen ez badira, faltan botatzen dutela!

Azken urteetan bailaran egin duten inbertsiorik bikainena izan da trenbidea bidegorri bilakatzea. Bidegorria apurka-apurka joan da egiten, beharbada motel, beste azpiegitura batzuek lehen-tasuna izan baitute. Trenbide izateari aspaldi utzi zion, eta hainbat urtez zati batzuk ia erabilpenik gabe egon dira. Baina, jada, posible da herriz-herriz bidea oinez, korrika edo bizikletaz egitea. Merkea eta osasuntsua. Ez dugu oinez ez ibiltzeko aitzakiarik.

ANTHONY BLAKE

'No vengas solo' ikuskizuna.

Urtarrilaren 13 eta 14an. 22:30.

Sarrerak salgai:

Bazkideak 15 €.

Aurrez zein takilan 18 €.

Espaloian bertan. Erreserbak 943 78 90 85.



ELGETAKO **espaloia** KAFE ANTZOKIA

Espaloia Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85